



Eskola Antzerkia



54
Euskara Zerbitzua
Zabalkunde-lanak

ESKOLA ANTZERKIA 9



HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2005

Eskola antzerkia 9 / [prestatzaileak, Iñaki Artola ... et al.]. – 1. argit. – Vitoria-Gasteiz : Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, 2005
or. ; cm. – (Zabalkunde-lanak ; 54)
ISBN 84-457-2357-X
1. Haur-antzerkia-Antologiak. I. Artola, Iñaki. II. Euskadi. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. III. Bilduma.
087.5:82-2(082.2)

Argitaraldia: 1.a, 2005eko abuztua

Ale-kopurua: 2.000

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

Internet: www.euskadi.net

Prestatzaileak: Iñaki Artola, I. Iturain, L. Mindegia, JM Odriozola, Maite Artabe, Santos Izagirre

Azala: Jesus Ituriza

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Fotokonposizioa: mccgraphics. Planta Elkar.

Inprimategia: mccgraphics. Planta Elkar.

ISBN: 84-457-2357-X

Lege Gordailua: BI-1924-05

AURKIBIDEA

HITZAURREA	7
DESOREKATIK OREKARA HIRUTIKAN HAMAİKARA	
Lukas Dorronsoro	9
ANTZEZLANAK	
Guk love piratak	
Komedia. Sondikako Gorondagane herri ikastetxea	15
Gure koadrilan...	
Komedia. Azkoitiko Xabier Munibe ikastola.....	31
Hilton hoteleko misterioa	
Poliziakoa. Hondarribiako Talaia herri ikastetxea.....	49
Ikasturte bateko mobidak	
Alegia. Portugaleteko Ballonti institutua	61
Kale gorrian	
Galdakaoko Elexalde institutua	109
Kastillopranko	
Txotxongiloa. Hondarribiako San Jose Gurutzearen Alabak ikastetxea.....	129
Lapurrak ez du ordu jakinik	
Drama. Azkoitiko Xabier Munibe ikastola.....	145

Lau anai eta baserria	
Drama. Aizarnako herri ikastetxea	159
Mambruren zain	
Ipuin antzeztua. Ermuako Sallabente ikastetxea	175
Morroi alferra?...	
Komedia. Zestoako Aizarna herri eskola	187
Otsoak uau, uau, uau, uau...	
Ipuin antzeztua. Ataungo Joxemiel Barandiaran herri eskola	201
Otsoko	
Abentura. Azkoitiako Xabier Munibe ikastola.....	213
Ramonen robota	
Poliziakoa. Zegamako Aitxuri herri ikastetxea	227
Susanita eta burbuilak	
Txotxongiloa. Bilboko Madre de Dios ikastetxea.....	241
Urrezko baloia	
Komedia. Ataungo Joxemiel Barandiaran herri ikastetxea	259
ESKOLA ANTZERKIA 1-9:	
ANTZEZLAN GUZTIEN ZERRENDA	273

HITZAURREA

Hamazortzi urte egin ditu, 2002-03 ikasturtearekin, Eskola Antzerkigintza laguntzeko Hezkuntza Sailak egiten duen deialdiak. Hainbat urtetan Eskola Antzerkigintza, Bertsogintza eta Kantagintza laguntzeko deialdiak egin ondoren, 2000-01 ikasturteaz geroztik hiru arlo horiek, irratigintza eta kontalaritzaarekin batera, Ahozko Adierazmena izeneko deialdiaren barruan sartzen dira, ahozko adierazmenaren lanketa modu osatuan planteatzeko ahaleginak bideratzearen. Lehengo moldean nahiz oraingoan deialdi horretan parte hartu duten ikastetxeen, eta batez ere ikastetxe horietan antzezlanak taxutzen eta lantzen hainbeste ahalegindu diren irakasle eta ikasleen fruitu dira liburu hauek. Eskola Antzerkia 8 eta 9 dute izenburua orain argia ikusten ari diren aleak; aurretik argitaratutako beste zazpiren segida dira, beraz. 15-16 antzezlan bildu dira liburu hauetako bakoitzarekin: neurri, molde eta tankera desberdinetakoak. Adin eta maila desberdinetan egin, landu eta antzeztuak. Bakoitzaren hasierako aurkezpen orrian azaltzen dira zehaztasunak, gaiaren laburpenarekin batera.

Ikastetxeetako taldeei, laguntza eskuratzekotan, hauxe eskatzen zaie: eska-bidearekin batera antzezlanaren testua Hezkuntza Sailera bidaltzea (beraiek asmatua denean Aste Santua arte luza daiteke epe hori); euskara landuz antzezlanak prestatzea eta gutxienez hiru emanaldi egitea, lehena norbere ikastetxean eta beste biak inguruko beste bi ikastetxetan. Ikasturte amaierarako, antzerki lanketa nola egin den azaltzeko galdekizuna eta emanaldi bakoitzeko ebaluaketa fitxa bat bete eta bidali behar izaten da Hezkuntza Sailera. Deialdi honen inguruan ikastetxe eta talde asko dabil. Zehatz esanda, 2002-03 ikasturtean 237 ikastetxe eta 620 talde. Deialdiaren helburuez edo jardunbideaz gehiago jakin nahi duenak jo beza urtero EHAAn argitaratzen den Agindura, eskola-antzerki liburuen sail honetako beste zazpietara, *Euskararen Irakaskuntza: 10 urte* argitalpena edota <www.ulibbarri.info> (NOLEGA) atalera.

Eskoletatik jasotako antzezlanak ez dira Hezkuntza Sailean gordeta geratzen. Eskoletan horien premia badagoela aipatzen dute irakasleek, behin eta

berriz. Premia horri erantzun nahirik egiten da jasotakoen artean aukeraketa eta, ondoren, argitalpena. Argitaratzeko aukeratu ez diren antzezlanak ere, alfabeto ordenan eta aurretik laburpen fitxa dutela, 20 karpeta osatutako 5 bildumatan daude jasoak. Lehen karpeta aurkibide orokorra da eta bilduma handitu ahala berritzen da. Bilduma hauek ere ikastetxeen eskura daude eskualdeetako Berritzeguneetan.

Eskola Antzerkiaren saileko zortzigarren eta bederatzigarren ale hauetan jasotako antzezlanak 1997-98 ikasturteetik 2000-01era bitartean jasotakoen artean hautatuak dira eta alfabeto ordenan agertzen dira, ez beste inolako lehentasun begira. 2001-02 ikasturteko lanak eta hurrengo urteetakoak lanketa fasean daude eta horiek izango dira sail honetako hurrengo aleetarako oinarri.

Liburu honetako antzezlanak lagungarri gertatuko zaizkio, seguru asko, ikasleekin batera edo bere kasa berriak sortzeko beta edo aukerarik ez duen irakasleari. Beta, modua eta gogoia duenarentzat, berriz, pizgarri izan nahi lukete. Polita ateraz gero, hurrengo liburuetan argitaratua izateko aukera izan dezake. Hartara, beste eskoletara zabalduko da eta seguruenara behin eta berriz antzeztua izango da. Argitaratzen ez bada ere, Bilduman jaso eta beste eskolen eskura jarriko da Berritzeguneetan.

Helburu honekin, hain zuzen ere, ohiko argitalpenari aurtengoan CD-a erantsi diogu. Horrela irakasleak aukeratutako antzezlanak Word dokumentuan izango du ondo deritzon zuzenketak eta egokitze lanak era erosoan egin ditzan.

Eskerrik asko antzezlanen egile, itzultzaile, moldatzaile... guztiei, argitalpen hau gauzatzeko eman dizkiguten erraztasunengatik. Esker mila, halaber, Lukas Dorronsorori eta bere lankide izan diren GOAZ antzerki taldeko kideei, antzezlanak hautatzen eta prestatzen egindako lanagatik. Hitzaurre honen ondoren, "Erronkan aurrera" idazlana aurkituko duzue 8. Alean eta "Desorekatik orekarara, hirutikan hamaikara" izenburua daraman idazlana 9.ean. Egilea, bi kasutan, Lukas Dorronsoro da. Bertan saiatu da "Eskola Antzerkia 6" argitalpenean "Testua eta itxura: Hamaika galdera eskura!" izenburupean plazaratutako galderetako batzuei erantzuna aurkitzen. 7. alean "Erronka" izenarekin hasitako lanaren jarraipenak dira hortaz ondoko bi hauek. Bihoazkio horregatik ere gure eskerrak. Beste hainbeste, azkenik, prestakuntzan lagundu diguten lankide guztiei, bereziki Blanca Castaño, Lurdes Mindegia eta Iñaki Ituraini.

EUSKARA ZERBITZUA

DESOREKATIK OREKARA HIRUTIKAN HAMAIKARA

Lukax Dorronsoro

“Eskola Antzerkia 6” liburuko “TESTUA ETA ITXURA: HAMAIKA GALDE-
RA ESKURA!” hausnarketaren “Hizkera molde herrikoia, arrunta, jaso?” ata-
lak 7. eta 8. ataletan jaso zituen lehen erantzunak: “Erronka” eta “Erronkan aurre-
ra”. Oraingo honekin jarraipena ematen zaio lan horri.

Ea, ba, ESKOLA ANTZERKIA 8an agindu bezala, hamaikara artekoak zakukada bakarrean sartzeko kapaz naizen eta zu horrenbesteko zakukada bizkarreratzeko gai.

Bizitasuna? Berriro ere, semantika arazoak ditu gure galdegile anoni-moak. **Bizitasuna** dioenean, arintasuna esan nahi duela sinestu nahi nuke. Izan ere, adjektiboz eta zirkunstantzia sintagmaz oparo hornituriko esaldi luze konplexuak ez du zertan bizitasun gutxiago izan labor sinpleak baino, testuak, sakon sendoa denean, astun gertatzeko joera ere berekin duen arren.

Arintasunari dagokionean, berriz, esaldi bakun eta konplexuen arteko auzia baino gehiago, erritmo, abiadura eta, gora nahiz beherako, mailaketa espresiboa egoki (artistikoki?) taxutu eta erabiltzearen ondorio dela derizt. Nolanahi ere, testuak, bere sakontasun arinean edo arintasun sakonean, ikus entzulearengana heltzeko, antzezleriaren trebetasuna behar du. Honek gano-razko enfasiak esan eta dramatizatu ezean, gidoirik bikainenak ere huts emango dizu. Agerraldia jendetsua denean, hitza ahotik ahora sarri aldatzea mesedegarri gertatzen da, jende multzoa jarreraz eta tokiz ere aldatzera bul-tzatzeko, noiz nor nori nola solasean jarri une oro erabakiz.

Elipsiaz zerbait esaterakoan bere aurkakoa ere, erredundantzia alegia, aipa beharko genuke, itaun egileari ahaztu bazaio ere. Elipsia ilungarri gerta-tzen da larregi erabiliz gero; erredundantzia, aldiz, gogaikarri, batez ere tematikoa denean. Bata nahiz bestea dira neurritz erabiltzekoak; baina, nik erredundantziak belarran eragindako hatz- gurea nahiago, elipsiaren ondo-

riozko uler ezintasun kezkarria baino. Kontuan hartu behar dugu eszenatikik ikus-entzulearengana dagoen tarteak zaildu egiten duela hitzak eta esaldiak areto-gune guztietara gardentasun osoz heltzea, beste gorputz adierazpideen zehaztasuna ere murrizten duen bezalaxe. Hara, ba: elipsiak areagotu egingo dizu distantziak berezko duen oztoparri hau.

Akotazioetan elipsia erabiltzeak ez dakarkio hainbesteko kalterik entzulearen ulermenari. Gainera, akotazioa, esan aldiaren barruan eta esaten denarekin orekan gertatzen den, egoera aldaketa adierazteko denean, azalpenak ahalik eta laburren ematea komeni da, ahoz esan beharrekoa zatikatuegia gerta ez dadin, beti ere antzerkilariak eragin nahi zaiona nekerik gabe ulertu ahal izateko neurrian.

Bestalde, gogoan erabili behar dugu, antzerkia idazterakoan, opus literario bat ari garela eraikitzen; antzerki talde on batek taularatzean, arte-lan ikusgarri bilakatzeko gauza izan behar duen gidoi bat alegia. Komeni da, beraz, nobela on bati eska diezazkiokegun deskribapen fisiko nahiz psikologikoei, han bezain eder, hemen ere tokia ukan dezaten ahalegintzea. Agerraldi bakoitzaren sarreran, gertatzera doanaren diseinu deskriptibo zehatz eta ederra marrazten saiatu beharko dugu horretarako.

Hauek honela, erabat toki jakina eta mugatua du elipsiak akotazioetan ere: Erreduantzia saihestu beharrak eskaintzen diona, juxtu-juxtu.

Nori, bere, gure... posesiboak bi eratara erabiltzen ditugu: izenaren mugatzaile (determinante) gisara eta izenorde gisara. **Hainbestetan...?** ez dut uste kantitate kontua denik, oker edo zuzen erabilia noiz eta non dagoen antz ematen jakitea baizik. Hori, berriz, eskolan ikasten den gaia da. Alta, galdera egina dagoenez, itsusi litzaidake erantzun llabur bat bederen eman gabe uztea.

Mugatzaile lanean, izenak nahiko zehaztasunik ez duenean erabil behar dugu soilik. Galderak berak dakarren adibidea aintzat hartuz: “Aitari esan diot” esaldia zuzena da, aita norena den testuinguruan argi adierazia baldin badator; bestela, posesiboaren beharra luke, eta, “nire, zure...” beharrean, gure, zuen... erabiltzen gaitu tradizioak (nik ezagutzen dudana neurrian bederen); “gerrian duzu” zehaztapen beharrik gabea dugu dagoenez dagoen; “bere eskua” dioenari, berriz, honen, horren ala harena ote den galdegin beharko diogu, aurrez argi esana ez baletor.

Posesiboak, izenorde denean, izen eliptikoaren tokia betetzen du, erredundantziaren ihesi. Ordezkatzen duena garbi adierazten badu, eskergarri gertatzen zaio belarriari.

Erakusleek ere izaera bikoitza dute, posesiboek bezalaxe: izenaren mugatzaile erabiltzen ditugu batzutan eta izenorde besteetan. Hauek honela, posesiboez esandakoa bete-betea doakienez..., argi gehiegi itsugarri gerta ez dakizun...

ITXURA

Arte lanari itxura ere artistikoa dagokio. Badakit esaera borobil honek ez duela argibide handirik irekitzen; baina, esparru jakin batera garamatza: eder tegira, artea eder lana denez gero eta antzerkia arte. Zirriborro izerditsuak har beza paperontzian atsedean, antzerki talde duinari begi-betegarri dakiokoen txosten dotorea sortarazi duenak ongi merezia du eta. Hortik aurrerako guztiak izan behar du dotore, azaletik azaleraino.

Azala. Informatika gelatik osteratxo bat edo beste zertu orduko eginen duzu topo diseinugintzarako jaioa dirudienen batekin. Artista gai petoa da. Harrituta utziko zaituzte haren agindura, bata bestearen atzetik, pantailan agertzen ari diren bitxikeriek. Une hartan ez da berarentzat ordenadorea beste mundurik, eta, ez da, noski, ohartu begira zagozkionik. Uki ezazu sorbaldan emeki-emeki, aztora ez dadin.... Bai, bai, ez badirudi ere ohartu da. Har ezazu unetxo batez pazientzia, azken ariketa toki seguruan jasotzen ari da eta. Hara!, prest daukazu zure munduan sartzeko. Kontaiezazkiozu antzerkiaren nondik norakoak. Aski izango duzu behin bakarrik kontatzea, zentzu guztiak zuri adi baititu orain. Baina, astiro! Horrela! Bukatu duzun bezain laster eman dizu baiezkua buru-keinu soilaz, iharduna aintzat hartu diozulako ezpain-begietako irribarreak eskerrona adierazten dizula. Zeu ere irribarretsu zaude. Badakizu, orain, zuen gidoiak dagokion azala izanen duela.

Lehen orrian, pertsonaien aurkezpena egin behar da, bakoitzaren fisonomia fisiko- psikikoa, laburki, zehaztuz.

Gelako lagun guztiek parte har dezaten zer egin? Ez da gezurra, ez, pertsonak zuhurrenak bota ohi dituela, aldizka, ximplekeriarik geldoenak ere. Zein da helburua, denek parte hartzea ala denek antzerkia egitea? Denek parte hartzea besterik nahi ez baduzue, une jakin batean dantza saio bat, talde

abesti bat, manifa, prozesio, eskola saio baten bukaera... sartzea aski duzue. Denek benetan antzerkia egitea nahi baduzue, berriz, ikasleak bi, hiru, lau edo bost taldetan banatu eta kitto. Taldetxo bakoitzak bere antzerkia idatzi dezala. Ikusiko duzue antzerki laburrez osatutako ikuskari polita eta, agian, bikaina ateratzea nola lortuko duzuen

Testuaren antolamendua. Antzerkia ekitaldi bakarrez edo gehiagoz dagoke egina, espazio nahiz garai aldaketan arabera. Hauetako bakoitzaren hasieran, dagokion eszenografia deskribatu behar da garbi, atrezzoak ere zehaztuz. Bada diseinu grafikoak jaxten dituenik ere. Alta, antzerkia eszenaratzeak taldearen sortze lana ere izan behar duenez, askatasuna izan behar du honek, testua aztertu ondoren, tutorearekin batera, bere diseinu eszeniko propioa eta abar asmatzeko.

Agerraldiek gorpuzten dute ekitaldia. Ordenan zenbatuak, letraz berezi eta erdian kokatuak ezartzen ditugu, azpian, bakoitzean parte hartuko duten pertsonaien zerrenda daramatela. Ondoren, behar adineko tartez eta hizki moldez bereizia, agerraldiaren izaera orokorra adieraziko digun akotazio nagusia.

Aktoreak hizketan eta ekintzan murgilaraziko dituen testua dator azkenik, unean unerako akotazioz bizkortua. Idazkera arruntean emana dator, baina, pertsonaien izenak eta akotazioak erabat nabarmen direla.

Tipografiari buruz ez noa ezer esatera. Bakoitzak egin beharreko aukera dela deritzot, nabarmendu nahi lukeena behar duen neurriko aberastasunez hornitzeko, ingurukoarekin oreka mantenduz.

Eta kito!

Hamar ihardespentetan

*Hamaika erantzun.
Orain zuen kritikak
Nahi nituzke entzun.*

Lukax Dorronsoro

GUK LOVE PIRATAK

Ana Maria Gil/ Luis Mari del Valle
Komedia
Gorondagane h.i.
Sondika
99/00

GAIA

Hiru neska mutil egiazko piratak izateko itsasoratzen dira. Piraten eskola batean hiru proba gainditzen dituzte eta, azkenik, helburua betetzen dute.

PERTSONAIAK

Elein
Kako Oker
Bizargorri
Loroa
Nagusia
Sukaldaria
Ezpataria
Marinel 1
Marinel 2
Aurkezleak

Aurkezle1 Kaixo, lagunok!

Aurkezle2 Piratak gustatzen zaizkizue?

Aurkezle1 Ba, suerte ona eduki duzue. Gorondaganeko neska-mutilek itsaslapurrei buruzko antzezlan bat aurkeztuko dizuete eta.

Aurkezle2 Beraz, isilik egon, itsasoaren hotsa entzuten dugu, ja.

1. EKITALDIA

(Argiak amatatuta. Umeen hotsak entzuten dira)

Elein Zein ondo pasatu dugun piratetan jolasten!

Kako Oker Niri benetako pirata izatea gustatuko litzaidake!

1. agerraldia

-Bizargorri, Kako Oker, Elein Begibakarra-

Ateratzen doaz eta argia pizten da. Hiru ume dira Bizargorri, Kako Oker eta Elein Begibakarra. Pirata jantzian daude.

Agertokia kokatuta dago, nahiz eta hasieran egongo ez balitz bezala egin.

Bizargorri Horixe! Belauntzi batean zazpi itsasoak zeharkatzera!

Elein Beste itsasontziak abordatzera, beren ondasunak hartu eta irla batean altxorra ezkutatu!

Kako Oker Eta... irla ezezagun batean babeslekua eduki, badaezpada.

Bizargorri Egin dezagun! Izan gaitezen piratak!

Elein Bai horixe! Eta nola egiten da hori?

Bizargorri Ja jantzita gaude, ezta? Ea, buruan zapia, begian partxea, gerrikoan ezpata...

Kako Oker Ez daukagu ezpatarik!

Bizargorri Behar beharrezkoak dira.

Elein Ganbaran kutxa handi bat dago, zaharra. Hor daudela uste dut.

Bizargorri Ba, ekarri!

(Elein ateratzen da)

Kako Oker Eta belauntzia?

- Bizargorri** Ez da belauntzi bat, baina nire txalupa txikia erabil dezakegu.
- (Elein agertzen da, ezpatak dakartza eta kortsario kapela bat)*
- Elein** Begira zer topatu dudan! *(Ezpatak banatzen ditu)* Kapelu bat, egiazkoa, eta paper bat dauka barruan. *(Kontu handiz ateratzen du)*
- Bizargorri** Hori ez da papera, pergamino bat baizik. Eta oso zaharra!
- Kako Oker** Ulertzen duzue zer esaten duen?
- (Hiruren artean irakurtzen dute)*
- Umeak** Kapela hau TARRAPATATA Piratarena da. Urtez urte gorde-ta egon da, eta batzuetan erabilia ere izan da. Zuk duzu aukera: gorde edo erabili. Kontuz! Erabiltzeko pirata izan behar!!!
- Elein** Jantziko dugu eta pirata bihurtuko gara.
- Bizargorri** Ez du hori esaten, baina proba dezagun!
- Kako Oker** Nork jantziko du?
- Hirurak** Nik! Nik!
- Elein** Zotz egin!
- (Txinatarretara egiten dute)*
- Hirurak** **Elein:** Hiru, **Kako Oker:** Bi, **Bizargorri:** Lau *(Eta Eleinek irabazten du)*
- Elein** Nik jantziko dut. *(Jantzi baina hegaz egiten dio burutik)* Ez dut ulertzen, zer gertatu da?

- Kako Oker** *(Kapelua hartuz eta buruan jantziz)* Nik probatuko dut. *(Eta berdin gertatzen zaio)*
- Bizargorri** Ea, niri. *(Eta berdin)*
- Elein** Argi dago. Gu ez gara piratak.
- Bizargorri** Orduan... izan gaitezen! Ez du ipintzen hor ezer, piratak izateko zer egin behar den?
- Elein** Ez. *(Kapelu barruan begiratzen)*
- Kako Oker** Goazen nabigatzera zure txalupan. Eta agian... belauntzi batekin topo egingo dugu... eta pirata bada bere tripulazioak... har gaitzake eta...
- Bizargorri** Utziozu ametsari. Baina arrazoi duzu, goazen nabigatzera.
- Elein** Nik kapelua motxilan sartuko dut. Eta bandera pirata hau ere topatu dut. *(Erakutsiz)* TARRAPATATA piratarena dela uste dut nik.
- (Txalupa hartu eta irlarantz doaz. Bizargorrik kapitainarena egiten du, txalupa berea da-eta, beste biak arraunketan. Kapitainak katalejo bat du eta begiratzen du)*
- Bizargorri** Hor irla ezezagun bat dago. Jar dezagun branka irlarantz! Hola, boga-boga! Ababor orain...

2. agerraldia

-Lehengoak eta loroa-

Honela daude, itsasoan, irlaren aurrean eta kupel bat pasatzen da haien ondotik, hurbildu eta loro bat ateratzen da kupeletik.

- Lorua** Libero, libero. Io so libero! Por cien mil batracios verdes! Askatasuna behar nuen. Eta ron zurrupada luzea. Non daude ron upelak?
- Bizargorri** Nor zara zu?
- Lorua** Por cien mil batracios verdes y tres tiburones desdentados! Tontokatilu hau zuen kapitaina al da?
- Bizargorri** Ez naiz tontokatilua! Eta banaiz txalupa honen kapitaina. Etorri, baina erakutsi nirekiko errespetu apur bat.
- Lorua** Stupido, tua molto estupido.
- Elein** Nork sartu zintuen upelan?
- Lorua** Ni neu, txotxolo. Ron upela zen. Bete-beterik, Monsieur, monsieur, o la la, c'est un ron magnifique!
- Kako Oker** E, loro. Irla hori zein den badakizu?
- Lorua** Neptunorengatik! Nire izena ez da loro, Floro deitzen naiz. Floro loroa eta begirunez hitz egin nirekin. TARRAPATATA Pirataren kontraestrea izan nintzen!
- Bizargorri** Begira ezazu gure bandera!
- Lorua** Ene, zuek ere piratak zarete?
- Bizargorri** Eta zu, orain, gure tripulaziokoa izango zara.
- Elein** TARRAPATATA Piratarekin ibilia bazara, benetako piratak izaten lagunduko diguzu!
- Kako Oker** Bai, mesedez, arren.

- Lorua** Ui ui ui, lan handiegia izango da. Pirata batek ez du mesedez ezer eskatzen, nahi duena hartzen du eta kito! Eta iraintzen maisu/maistra izan behar du!
- Bizargorri** Horretan bai lagundu ahal diguzu.
- Lorua** Neptunoren bizarrengatik, lagunduko dizuet! Baina ez deitu Loro jauna, dei nazazue: Floro loro txoro bobo, Loro modor-roa. Ulertzen duzue?
- Bizargorri** Bai, Floro loro txoriburu.
- Elein** txorimalo!
- Kako Oker** txori-zoa!
- Lorua** Goazen irla horretara! Piraten akademia zabaldu dute eta.
- Bizargorri** Bai? Nola enteratu zara zu?... memelo hori!
- Lorua** Zuek ez al dituzue berriak irakurtzen? Ezjakin halakoak! Itsasoan mezuek botiletan nabigatzen dute eta halako batean irakurri nuen iragarkia: “Pirata, Kortsario, Filibustero izan nahi baduzu, zatoz txirla Irlara.”
- Kako Oker** Eta hori al da txirla Irla?
- Lorua** Baietz, ba. Ez dio forma ikusten marinel txotxolo horrek?
- Bizargorri** Branka irlarantz!

2. EKITALDIA

(Irlara heltzen dira, txalupa bazter batean uzten dute eta itsasontzian atea jotzen dute. Tok, tok)

(Itsasontzian 3 pirata nagusi daude, eta beste bi atzerago. Pirata nagusiak ateratzen dira, besteak itsasontzi atzean gelditzen dira.

Honelakoak ziren:

Nagusiena emakumea, bitxi asko eskuetan, koilarea, urrezko ezpata, perlak... Beste bat sukaldari txapelarekin. Beste bat ezpata berezi batekin, ezpataria baita)

1. agerraldia

-Nagusia, Sukaldaria, Zapataria, Bizargorri, Kako Oker, Elein Begibakar-

- Nagusia** Mila ekaitz, trumoi eta tximistarengatik, nor ausartzen da gure atea jotzen?
- Elein** Gu gara, ez al da hau piraten eskola, kortsario andrea?
- Nagusia** Bai, hau da.
- Sukaldaria** Nola enteratu zarete?
- Bizargorri** Floro loroak esan digu, pirata nagusi jauna.
- Ezpataría** Ene! Portuko labezomorroak! Piratak izateko jenio txarra behar da, ezin duzue jendea begirunez tratatu.
- Nagusia** Pirata onak izateko, hau da, lapurrak edo filibustero basatiak izateko, hiru proba gainditu behar dituzue. *(Umeak bai, bai, buruaz esaten)* Eta gainera gure kanta ikasi eta gogoz abestu.
- Marinelak** *(Kanpotik) (Abesten)* Ron, ron, ron,
botila bete ron.
Ron, ron, ron
botila bete ron.

Nagusia Hori ez da gure kanta. Gainditu eta gero erakutsiko dizuegu. Ea, sasi-piratak, ilaran! Hauek dira probak: Bazkari nazkagarri, Ezpata duelua, Altxorraren bila.

(Sukaldaria bakarrik gelditzen da)

Sukaldaria Piraten bititza oso gogorra da, itsaso zabalean egunak eta egunak igaro behar, beti bazkari berbera jaten... nahiz eta txarra izan. Horregatik oso inportantea da pirata batentzat, edozein gauza jaten eta edaten jakitea. Zuen lehenengo proba zopa prestatzea da. Hemen duzue lapiko bat eta hondartzan dagoen su-toki horretan prestatu.

Kako Oker Eta osagaiak?

Sukaldaria Zuen kontura. Denak balio du. Prest daukazunean abisatu bazkaltzeko.

(Eta badoa)

2. agerraldia

-Bizargorri, Elein eta Kako Oker-

Elein *(Lapikora begiratu)* Beno, ura badago lapikoan, bakarrik gauzak bota behar dizkiogu.

Kako Oker Ea motxilan zer ekarri dugun: gusanitoak? bai; txokolatea? bai; gailetak? ere bai.

Bizargorri *(Poltsikoak miatzen)* Nik txikleak ditut.

Kako Oker Bota horiek ere.

Elein Zopa egiteko, barazkiren bat ere bota behar da.

Kako Oker Hartu belar horiek *(perrexila)*.

- Bizargorri** (*Buelta bat irlatik eman ez*) Begira zer topatu dudan. Balioko ote du?
(*Arraina, supermerkatuko gauzak, galtzerdi zikina...*)
- Kako Oker** Bota, ba. (*Burruntzaliaz bueltak ematen ditu*). Humm!!
Usain ona du. Zuek uste duzue Pirata Sukaldariari gustatuko zaiola?
- Elein** Edozein gauza jateko gai dela esan du berak.
- Kako Oker** Honi begira dago. Katilu batean emango diogu zer sartu diogun ikusi ez dezan.
- Bizargorri** Bale. Hemen koilara.

(*Itsasontzira doaz, atea jo eta deitu*).

3. agerraldia

-Lehengoak, Sukaldaria eta Bi Marinelak-

- Elein** Sukaldari jauna! Sukaldari jauna! (*Ateratzen da*). Hemen duzu zure zopa.
- Sukaldaria** Nork esan dizue nire zopa dela? Ea... probatuko du... Non dago zuen lora? Desagertu egin da. Marinelak! Itsasoko arratoiak! Zatozte hona! (*Ateratzen dira*). Hemen duzue bazkari nazkagarria, jateko prest!
- Marinel** (*Agertuz*) Agintzen duzuna, Sukaldari nagusi!

(*Eta probatu egiten dute, beren gustukoa dela adieraziz*)
- Marinel1** Mm! Mm! Benetan goxoa!
- Marinel2** Mm, mm, ea osagaiak asmatzen ditugun! Nik esango nuke... tximu burmuinen zapore berezi hori argi dagoela.

- Marinel1** Gehiago esango nuke nik. Ez duzu nabaritzen, suge solomoren zapora liluragarria?
- Marinel2** Eta den dena senda belarrez hornitua.
- Marinel1** Ron baso eta erdi daukala ahaztu gabe.
(Umeeak aurpegi arraroa jartzen dute, piratek probatzen eta hitz egiten duten bitartean. Sukaldaria poz-pozik. Gero marinela bere lekura doa.)
- Sukaldaria** Zorionak, sasi-piratak! Lehenengo proba... Gaindituta *(eta badoa)*.
- Kako Oker** Ez dut ezer ulertzen. *(Probatzen du eta nazka)* Ag! Ag!
- Elein** Non sartu da Floro?
- Bizargorri** Upelan sartu da berriro eta lotan gelditu da. Benetan loro modorra da!
- Loroa** *(Upelatik burua agertzen)* Entzun dut. Ez zenuen nire laguntzarik behar. Eta nik ron botila bat topatu dut.
(Ezpataria agertzen da).

4. agerraldia

-Elein, Kako, Bizargorri eta Ezpataria-

- Ezpataria** Bigarren proba: Ezpata duelua. Piratentzat ezpataz trebea izatea oso inportantea da, baina are gehiago iraintzen jakitea.
- Elein** Eta nola egiten da hori?
- Ezpataria** Pirata dueluetan batek astakeria bat esaten badu, besteak astakeria handiago bat erantzun behar dio. Bestela akabo!

- Elein** Floro, orain bai, zure laguntza behar dugu.
- Lorua** Bai, benetan!
- Umeak** (*Mosketeroena egiten*) Bat guztiontzat eta guztiok batentzat!
(*Duelua hasten da.*)
- Ezpataria** Alproja batek bezala borrokatzen duzu!
- Elein** Eh? Zer? Eta zuk?

(*Tris-tras. Piraten erara erantzun ez duenez, pirata aurrera eta umea atzera. Gelditzen dira eta piratak botatzen dio bigarren iraina.*)
- Ezpataria** Zure ordua heldu da, zortzi hankako pizti ileduna!
- Elein** Eee... ta zu, txakur bat zara!

(*Tris-tras. Lehen moduan.*)
- Ezpataria** Pis-oihalak erabiltzeari utzi diozu?
- Elein** (*Florok esaten dio*). Zergatik? Baten beharrean al zaude?

(*Tris-tras. Honetan umeak ondo erantzun duenez, aurrera doa eta pirata atzera.*)
- Ezpataria** Behin eduki nuen zu baino argiagoa (listoagoa) zen txakur bat.
- Elein** (*Florok lagunduta*) Dakizun guztia hark irakatsiko zizun!
(*Tris-tras*).
- Ezpataria** Zure odola nire zapiaz garbituko dut!
- Elein** Ah! Garbitzailearen lana lortu duzu (*Tris-tras*).

- Ezpataria** Ikusiko duzun azkena nire aurpegia izango da!
- Elein** Hori zure aurpegia al da? Zure ipurdia zela pentsatu dut!
(Tris-tras eta ezpatariak galdu)
- Ezpataria** Irabazi duzu. Bigarren proba... Gaindituta!
(Eta badoa. Nagusia dator) (Pozik, esku-zartaka ari dira nagusia sartzean)

5. agerraldia

-Elein, Kako, Bizargorri, Nagusia eta Loroa-

- Nagusia** Zorionak, sasi-piratak! Ondo zoazte! Proba honetan altxorraren bila joango zarete. Azalpenak mapa honetan dituzue. Zorte ona izan!
- Elein** *(Irakurtzen)* Altxorra irla batean dago.
- Bizargorri** *(Irakurtzen)* Ez du esaten zein den? A, bai! txirla irlan. Hau da!
- Kako** *(Irakurtzen)* Azalpenak jarraituz helduko zarete. Hamar urrats ekialdera. *(Egiten dute eta ateratzen dira)*
- Bizargorri** Ez, ez, urrats txikiagoak! *(Egiten dute)* Gero palmondorantz 5 urrats. *(Egiten dute)*
- Elein** Begira! Kutxa bat!
(Zabaltzen dute eta 3 kamiseta eta mezu bat topatzen dituzte. Kamisetan I ♥ ITSASLAPURRAK idatzita dago)
- Bizargorri** *(Mezua irakurtzen)* Zorionak! Azken proba gainditu duzue! Egiazko piratak zarete!

Loróa Baff! Benetako piratak! Erraz lortzen da orain gaitasuna. Nire denboran...

(Pirata guztiak agertzen dira)

6. agerraldia

-Pirata guztiak elkarrekin-

Nagusia Ixo, apo hegalaria halakoa! Lumatuko zaitut bestela! Pirata tituluak lortu dituzue, Zatozte agiriak hartzera. *(Pelikuletan bezala, agiria eman, musu bi)* Orain, zertan arituko zarete?

Bizargorri Asko pentsatu dugu. Piraten lana, ez bada irakaskuntzan, zuek bezala, ez da erraza izango, baina gure burua eskainiko dugu pelikuletan jokatzeko.

Kako Oker Edo ipuin kontalari hasiko gara. Oso ipuin politak daude piratenak.

Elein Niri itsasoan nabigatzea gustatuko litzaidake. Kapitain izateko ikasiko dut.

Nagusia Hip hip hurra, gure pirata berriengatik!

Denak Hip hip hurra!

Loróa Por diez mil pulpos mancos! Geldi! Hemen zer edo zer falta da.

Denak Zer?

Loróa Txipiroi baten tinta baino argiago dago! Kanta!

(Musika eta denek kantatzen dute)

(Kanta amaitzen denean, aurkezleek aktore/aktoriesak aurkezten dituzte)

GURE KOADRILAN...

Idazleak:

Leire Caballero

Beatriz Reimunde

Agurtzane Epelde

Garazi Salegi

Joana Zubizarreta

Komedia

Azkoitiko Xabier Munibe ikastola

Azkoitia

GAIA

Neska koadrila baten pasadizoak.

PERTSONAIAK

Alazne
Noelia
Maitane
Aintzane
Leire
Mr. Smith
Ama
Pototo
Serafin

1. EKITALDIA

AGERTOKIA: Parke zahar bakarti bat.

1. agerraldia

-Alazne eta, geroxeago, Noelia-

(Alazne, erdi samarrean dagokeen banku batean jarrita, lagunei itzaroten dago, gora begira, pentsakor) (Noelia agertzen da eskuinetik, lagunkoia izan arren oso pijoa da)

- Noelia** *(Mugikorretik hizketan)* Pablo!(...) Gaur ezingo dut zurekin afaldu. (...) Bihar hitz egingo dugu, bale? (...) Nik ere bai. (...) Nik gehiago!(...) Baaale! Musutxoak. (...) Chao!
(Mugikorra itzali eta Alaznerengana hurbilduz) Aupa!
- Alazne** Aupa Noe! Orain ere mugikorrarekin jo eta su, e?
- Noelia** *(Handiki)* Zer nahi duzu? *(Atzamarrez dirua adieraziz)* Guk daukagunok... azken modeloa ikusi eta huraxe eskura.
(Mugikorra erakutsiz) Begira: 1000 memoria, markaketa automatikoa eta, gainera, Internet! Kristorena!
- Alazne** *(Harriduraz)* Mugikor berria? Eta zer gertatu zaio besteari?
- Noelia** Bestea? Modaz pasa. Gainera bazituen bi aste eta, gona urdinarekin ondo ez zetorrenez, ba... Osaba Robertok erosi dit, Erroman izan garenean.
- Alazne** A, bai! Zer moduz ibili zarete Erroma aldean?
- Noelia** Zoragarri, neska! *(Ametsetan bezala)* Hura beste mundu bat dun... Amets bat.

(Noelia azalpenak ematen ari den bitartean, Maitane agertzen da eskuinetik.)

2. agerraldia

-Lehengoak eta Maitane-

- Maitane** *(Hurbilduz)* Aupa!
- Alazne** *(Alai)* Aupa, Maitane!
- Maitane** *(Azpikeriaz.* Zer, Noelia, diru asko ekarri al dun?
- Noelia** *(Kopetilun)* Hiretzat ez!

- Maitane** *(Ondo entzun ez balu bezala)* Barkaidan!, barkatu...
- Noelia** Entzun dunana.
- Maitane** *(Eskuarekin jipoi mehatxua eginez)* Oraintxe bertan *(Silabaz silaba)* mila pezeta ematen ez badizkidan...
- Alazne** *(Bakeak egin nahian)* Ez zaitezte betiko moduan hasi!
- Noelia** Bera hasten dun, beti, zirikatzen. Nazka-nazka eginda nagon eta banoan. *(Abiatuz)*
- Maitane** *(Noeliari besotik helduz)* Hi ez hoa inora, nire dirua eman arte. Aditu dun? *(Besoa altxatuz)* Ala beste era batera nahi dun azaltzea?
- Noelia** *(Besotik askatuz)* Utz nazan bakean! *(Korrika alde egiten dio ezker aldetik)*
- (Maitane atzetik abiatzen zaio, baina drogazaleekin egiten du topo)*
- Alazne** *(Berekiko)* Hau dun marka hau! Ezin al dinagu, behingoagatik, arratsalde on bat pasa denok batera!?
- (Aintzane eta Leire agertzen dira Maitanerekin)*

3. agerraldia

-Alazne, Maitane, Aintzane eta Leire-

- Aintzane** *(Harriduraz)* Nora zihoan Noelia horrenbesteko presarekin?
- Maitane** *(Noeliarengatik)* Atso zanpan horrek!... *(Sartu berriei, penaz)* Ezingo zaituztet gonbidatu gaur.

- Alazne** *(Tartekatuz, Maitaneri)* Hik gonbidatu?... Ala Noeliak?
(Maitane Alazneri erantzuteko geratzen den bitartean, beste biek aurreraxeago jarraitzen dute)
- Maitane** *(Muturka)* Nik!!! *(Eskua altxatuz, pasotarena eginez.)* Eta, bale!
(Zapuztuta geratzen da une batez)
- Leire** *(Aintzaneri)* Lortu al dun?
- Aintzane** Zer?
- Leire** *Kosto* pixkaren bat edo... Nik bazeukanat *maria* hosto bat.
- Aintzane** *Ni oraintxe noan Pototorengana kosto bila. Bost talegokoa eman behar zidan.*
- Leire** Ondo, ez?
- Aintzane** A! eta iluntzerako izango ditinat sei bat *tripi*.
- Leire** Artista bat haiz!

(Maitane eta Alazne hurbiltzen zaizkie jakin-minari eutsi ezinik)
- Aintzane** Bai, baina ordaintzeke zeuzkanat orain dela bi hilabetetik gaur arterakoak.
- Leire** Eta?
- Aintzane** Zera!, dirurik gabe gaudela eta gaur denak ordaindu beharra daukagula. Bestela, jai!
- Alazne** Bi hilabete ordaindu gabe! Arazo ederrean sartu zarete!
- Leire** Ba!, horiek ez zidaten beldurrik ematen. Zuek, bion artean, emandakoekin lehenengoan isilaraziko ditinagu.

Maitane *(Adiskidetsu)* Nire laguntzarik ez dizuet ukatuko. Eta, geure artean ezin badugu, Noeliak ordainduko dizue dena.

Alazne Tira! utz dezagun orain hori alde batera. Gaur gauerako plana prestatu behar dinagu.

Leire *(Zerbait entzunez bezala)* Hanka hotsak entzuten ditinat. Norbait zetorren!

(Noelia sartzen da, eta, atzetik, bere maiordomoa, burua estaltzen dioten opariez beteta)

4. agerraldia

-Lehengoak, Noelia eta Mr. Smith (maiordomoa)

Noelia *(Ezkerretik agertu eta gehiegi hurbildu gabe, adiskidetsu)*
Kaixo!

Maitane *(Harriturik)* Hori dena niretzat al da?

Noelia Denontzat. Erromatik oparitxo batzuk ekarri dizkizuet.

(Bat-batean, maiordomoa, hanka trabatu eta, erori egiten da)

Noelia *(Haserre, baina handikien eran)* Mr. Smith! Zer egin duzu? Ama!!! Nire Aita Santuaren irudiak!... Aldrebes hutsa zara. *(Noraezean dabilela, fardeletako batean trabatu eta maiordomoaren gainera erortzen da)*

(Lagunak algaraz)

Alazne *(Karamelu potea erakutsi eta bat ahora eramanez)* Smith-ik gabe, musurik ez! *(Zalapartan jaikitzen dira. Mr. Smith noraezean dabil)*

Noelia (Mr. Smith-i, deiadarka) Alde egin ezazu hemendik, Mr. Smith, traba besterik ez duzu egiten eta! Uf!!!

Smith (Badoa atzeraka, erreberentziak eginez) Barkatu, arren, andereño! Barkatu!!! (ezker aldetik ezkututzen da)

5. agerraldia

-Lehengoak, Mr. Smith izan ezik-

(Bakoitzak bere fardeltxoak aurkitzen du eta, zalapartan zabaldu ondoren, ikusten duenak eragindakoa adieraziko du mimikaz)

Maitane (Berea eskuratu duenean, etsipenez) Honez gero apurtuta egongo da, baina begiratu egin beharko dugu barruan zer dagoen, ezta?

(Denek zabaltzen dute)

Alazne Nirea dena apurtua dago! Beno, kristala esan nahi dut. (Noeliari. Baina, eskerrik asko, Aita Santuaren irudiagatik!

Maitane (Paper bat baino gehiagotan bildurik dagoenez, kostatzen ari zaio askatzea) Nirea ez dadila, behintzat, Aita Santua izan, bestela... Hobe du zerbait polita izatea! (Azkenean lortzen du irekitzea eta, alaitasunez pizten zaio aurpegia) Ala!!!, musika aparailua da! Eta, gainera, kasete batzuk dakartza berekin!

Aintzane (Goibel) Noe!, nirea ere puskatua dago. (Poltsatxo bat belar atera eta, irribarretsu, Noeliari erakutsiz) Baina, eskerrik asko, mariagatik! (Denei) Badugu gaur gauerako haina!

Leire Gauerako bakarrik? Ez, ez! Oraintxe probatu behar dugu! Ea, egin ezazu bat! (Denak borobilean kokatzen dira, ikusmina eta irrika nabari zaiela, eta, zigarroxka bat biltzen dutelarik,

piztu eta zeremonia handiz hasten dira erretzen). (Erretzen ari direla, Alazneren ama agertzen da, poltsa bat besotik dakarrela, eskuin aldetik)

Maitane *(Zigarroa Alazneri pasatzerakoan, eskuinetik norbait datorrela ikusirik) Aizan!, hori ez al dun zuen ama? (Disimuluan, bere ondoan daukan Noeliari ematen dio)*

Alazne *(Ama berarengana datorkiola ikustean, urduri) Ai, ai, ai! Gure ama datorrela! Ez... ezkutatu dena! Be... ben... benga!!!*

Noelia *(Ziurtasunez) Ez izutu! (Aulkian eseri eta ipurdipean ezkutatzen du zigarroa)*

(Maitane soka saltoan hasten da. Alaznek amarenganantz egiten du apur bat)

Leire *(Barreari eutsi ezinik, Noeliaren alboan esertzen da) Hau dun hau lasaitua!*

Aintzane *(Noeliaren beste alboan eseriz) Bai, halaxe dun! (Irribarrez hau ere)*

6. agerraldia

-Lehengoak eta Ama-

Ama *(Alazneri, hurbiltzean) Zertan ari zarete hemen?*

Alazne *(Axolagabe) Hemen? Denbora-pasa, beti bezala!*

Ama *Parke zahar hau gustukoa duzue behintzat! (Noelia urduri ikustean) Noelia! Ondo al zaude?*

Noelia *(Ahots ikaratiz) Bai, bai, ondo nago? Zer, ba?*

- Alazne** (*Haserre, tarteratuz*) Beno, ama! Nahikoa dugu, e! Zer uste duzu hartzainen beharrean gaudela edo?
- Ama** (*Zer erantzun ez dakiela*) Ez, neska!
- Alazne** Zertara datoz, orduan, galdera txoro horiek?
- Ama** Errekaduak egitera irten naun eta, hemen ikustean, kasu egitera hurbildu nartzain, horixe dun guztia. Barka iezadan oker egin badut.
- Alazne** (*Goxoago*) Ongi da. Badakizu, ez da kasu egin didazulako, koadrilakoekin sartu zarelako baizik.
- Ama** (*Ausartago, baina onean*) Nolanahi ere, zer moduz dagoen galdetzea besterik ez dinat egin, neska!
- Alazne** (*Apalago*) Beno. Gero arte, ama.
- Ama** (*Ezkerretik abiatuz*) Bai, gero arte. (*Bihoa*)

7. agerraldia

-Lehenagoak, Ama izan ezik-

- Noelia** (*Amak alde egin orduko, jaiki eta saltoka hasten da*) Sua! Sua!
- (*Lagunek ipurdi alde astintzen diote instintiboki, baina porroa itzalia dagoela ikusten dute*)
- Leire** (*Gaitz-iritziz, burua astinduz*) Itzalia zegon porroa barren!
- Noelia** Eta galtzak?
- Maitane** (*Ipurtaldea igurtziz*) Pittin bat belztua zegon, baina erreta ez!

Noelia Ba, nik erre mina sentitu dinat!
(*Denak barrez*)

Noelia Benetan ari naizela.

Aintzane Sinesten dinagu, neska.

Leire Sugestio kontuak ditun.

Alazne (*Amak alde egin duen aldera begiratu*) Eskerrak ez gaituen harrapatu, bestela...

Aintzane Zein gaizki pasatu dugun!

Noelia Beno, hori bukatu dun. Zer egin behar dugu gauean?

Alazne Hori! Gainean dinagu gaua eta gu oraindik planik egin gabe.

Leire Zer iruditzen betikoa egiten badugu?

Aintzane Niri, oso ondo.

Alazne Orduan, 10:00etan parkean?

Noelia Ondo!

Maitane Orduan, gauera arte! Ni banoa etxera.

Leire Ni ere bai.

Alazne (*Noelia eta Aintzane*) Zuek ez al zoazte etxera?

Noelia Ez, gu oraindik ez! (*Musika biziagotuz*)

Alazne Ni ere ez.

Leire Gero arte, denoi!

(Bihoaz eskuinetik)

Aintzane Bai, agur!

(Musika topean dutela dantzari ekiten diote Noeliak, Aintzane eta Alaznek, erabat ilundu arte)

2. EKITALDIA

AGERTOKIA: Lehengoa bera. Gaua da.

1. agerraldia

(Leire eta Alazne agertzen dira eskuinetik)

Leire *(Alde guztietara begira)* Joe! Oraindik ez dira besteak agertu!

Alazne Lasai! Laster etorriko dira. *(Atzera begiratzen du)* Begira nortzuk datozen hortik!

(Ager bitez Aintzane eta Maitane)

Maitane Kaixo! Oraindik ez al da Noelia agertu?

Alazne Hori, beti bezala, berandu agertuko da!

Aintzane Noelia aurrena etortzen den egunean, oiloak txiza egingo du! *(Barre egiten dute)* *(Bitartean azal bedi Pototo, ezkerretik, bere kideekin)*

Pototo Zer, ekarri al duzue dirua?

Aintzane Oraindik ez, baina laster edukiko dugu eskuartean.

Pototo Bihar goizean bederatzieta etorriko naiz hona diruaren bila, eta ez baduzue... *(Hatz handia beherantz ipiniz)* a-ka-bo!!!

- Leire** *(Ausart)* Lasai! Ez zaitez larritu! Bihar hemen edukiko dituzu 100.000 pezetak!
- Pototo** *(Harro)* Hobe duzue egia esatea. *(Alde egin beza bere kideekin etorri den bidetik)*
- Alazne** Arazo ederrean zaudete sartuta! Zer pentsatzen duzue egitea?
- Aintzane** Ez zekinat. Baina, nola edo hala dirua lortu beharra zeukanagu!
(Isilune laburra)
- Maitane** *(Isilunea hautsiz)* Bazekinat! Zer iruditzen denok lan bila hasiko bagina?
- Alazne** Ondo. Leire eta ni Alde Zaharrera joango gara. *(Aintzaneri begira)* Zu eta Maitane, berriz, taberna aldeetara. Hamaiketan berriro ere hemen agertuko gaitun, ea zer moduz joan zaigun ikusteko.
- Aintzane** Eta Noeliarekin zer egingo dugu?
- Maitane** Bizia topa dezala!
- Leire** Beno, orduan, hamaiketan hemen!
(Badoaz, eskuineko atze aldetik, elkarri agurka)
(Bitartean Pototo agertzen da, ezkerreko aurre aldetik, bere lagun Serafinekin)
- Alazne** Ez, baaa! Poltsa ahaztuta utzi dinat banku izkinan.
- Leire** Beno! Goazen, ba, bila!
- Alazne** *(Isilka)* Leireee!!! Begira nor dagoen hor?
- Leire** *(Harriduraz)* Pototo!

Alazne Eta zein da beste mutil hori?

Leire Hori? Hori Serafin dun. Pototoren lagun bat. Goazen hor a-
tzera, (*Banku atzea seinalatuz*) zer esaten duten entzutera.

(Bihoaz, ahalik eta erarik ezkutuenean)

*(Bitartean, erdialdera doaz Pototo eta bere laguna ere, oze-
nago mintzatzen direla)*

Serafin Nola esan duk?

Pototo txoratuta nagoela Noeliaz

Serafin Ezin diat sinetsi! Burutik eginda hago!

Pototo Bai, izugarria duk neska hori, liluragarria benetan!

Serafin *(Lelo aurpegiz begiratzten dio)* Horrenbeste?

Pototo Bazekiat ez dudala posibilitaterik, baina bihotzaren kontra
ezin diat ezer egin.

Alazne *(Isilpean, hitzez baino gehiago keinuz)* Entzun al dun?

Pototo Horregatik ematen zieat horrenbeste denbora dirua ordain-
tzeko. Horrela, egunero ikusten diat nire bihotzeko azukre
koxkorra.

Serafin Aholku bat emango diat.

Pototo Zein?

Serafin Barkatu egin behar hieke zorra. Horrela euren lagunartean
hartuko haute eta...

*(Alazne zutitu eta aurreratzen hasten da, Leire atzera tiraka
duela)*

Pototo Hala uste al duk?

Alazne *(Tarteratuz)* Bai!

Pototo *(Ustekabean harrapatua)* Zertan ari zarete zuek hemen?

Alazne Aholku bikaina eman dik Serafinek!

Serafin *(Harroxko)* Zer!?

Leire Alegia, lehen ere lagun samarra dugula Pototo eta...

Alazne Zorra barkatuko baligu...

Pototo Zer?

Leire Ba, guk Noeliarekin hitzordu egoki bat konponduko geniake.

Pototo *(Urduri baina alai)* Noiz?

Alazne Poliki, adiskidea, poliki.

Leire Lehenbizi zorraren kontu hori garbitu beharko genikek, ez?

Pototo Hitzorduaren truke, zorra kitto!

Alazne Orduan gaueko hamaiketan hementxe!

Pototo Nahiko al du?

Leire *(Bankua erakutsiz)* Banku horretantxe izango duk, otzan-otzan. Lelotua daukak, barren!

Alazne Eta orain, hanka hemendik!
(Pozik eta saltoka alde egiten dute, etorri diren lekutik)

Leire Iupa! Lortu dinagu!

Alazne Goazeman azkar, besteei kontatzera!

(Eskuinetik alde egiten dute)

EPILOGOA

AGERTOKIA: lehengoa bera

2. agerraldia

-Aintzane, Maitane, Noelia-

(Aintzane eta Maitane aulkian daude, oso urduri, alde guztietara begira)

Maitane Etorriko dun, ezta?

Aintzane Bai, neska! Hago lasai! Zeren beldur haiz?

Maitane *(Atzamarrez dirua adieraziz)* Zera...*(Noelia ikusi du eskuinetik sartzen. Bat-batean zutitu eta...)* Zer, Noelia, lo hartu al dun?

Noelia Etxera joan naizenean, *pele arrosa* bat ikusten aurkitu dinat ama eta, neuri ere gustatzen zaizkidanez...

Aintzane Ahaztu egin zain gurekin huen hitzordua.

Noelia Zuekin? *(Aurpegi nabarmen makilatua harro erakutsiz)* Beste norbaitekin uste ninan ipini zenidatela hitzordua, ez?

(Barrez daudela, Pototo agertzen da Serafinekin, ezkerretik)

3. agerraldia

-Lehenkoak, Pototo eta Serafin-

Maitane Begira, nor datorren!

Pototo Epa, denoi! (*Noeliarengana hurbilduz, goxo*) Kaixo, Noelia?

(Noeliak irribarre eztiz erantzuten dio, hitzik gabe, eta bata besteari begira, xoro, une batez egon ondoren, elkarri heldu-heldu eginik, aulkira joan eta han geratzen dira maitasunaren epelean, goxo)

(Bitartean, Aintzane eta Maitanek beso banatatik hartu eta eskuinetik eramaten dute Serafin, isil-isilik)

HILTON HOTELEKO MISTERIOA

Ikasleak/Irakasleak
Poliziakoa
Talaia h.i.
Hondarribia
99/00

GAIA

New Yorkeko hotel batean Picassoren koadro erakusketa bat dago. Bertatik azaltzen dira kartzelatik atera berriak diren bi lapur, bi surfer eta aitona-amona bikote bat. Denek interes handia dute hotelera joateko...

PERTSONAIAK

Narratzailea
Polizia1
Polizia2
Surfer1
Surfer2
Lapur1
Lapur2
Aitona
Amona
Harrerakoa

1. EKITALDIA

Narratzailea Gu 4. mailako ikasleak gara. Ilusio handiz prestatu dugu antzerki emanaldi hau, eta espero dugu zuen gustukoa izatea. Gure istorioa New York hirian gertatzen da. Bertako hotelik garrantzitsuenean oso margolari ezagun baten lanak erakusten dira. Gure protagonistek interes handiegia dute koadroengatik. Baina kontatzen jarraitu beharrean ikus dezagun! Aurrera!

1. agerraldia

–*Bi polizia-*

(Kalean, iragarki handi baten aurrean)

(Bi poliziak agertokian sartzen dira, egunkaria irakurtzen)

Polizia1 Hau lan aspergarria!

Polizia2 Bai. Aspaldian ez dugu lapurrik harrapatzen.

Polizia1 Hara, begira zer jartzen duen egunkarian! Leon eta George lapurrak kalean daude berriro!

Polizia2 Azkar pasa dira, bada, 10 urte!

Polizia1. Bai, gainera gu izan ginen kartzelatu genituenak.

Polizia2 Begira zer dagoen horko paretan!

Polizia1 Hara Picassoren erakusketa bat Hilton Hotelean.

Polizia2 Seguruenik Leon eta George lapurrak hara joango dira.

Polizia1 Gu ere han izango gara badaezpada, Hilton Hotelean!
(Badoaz) (Une berean aitona-amonak sartzen dira, makila eskuan dutelarik, ezkerretik)

Amona Ai, erreuma madarikatu hau! Hezur guztiak sentitzen ditut.

Aitona Lasai, Marion, adina besterik ez da.

(Amona kartelari begira gelditzen da, aitonak bidean jarraitzen duen bitartean, hizketan)

2. agerraldia

-Aitona eta Amona-

- Aitona** *(Protestaka)* Emakume hau beti azkena!
- Amona** Pi-ca-ssoren ko-a-dro-ak Hil-ton Ho-te-le-an...
- Aitona** *(Hurbiltzen da)* Joango gara, bada!
- Amona** Seguru oso koadro politak izango direla!
- Aitona** Eta, gainera, hotela ikusteko aukera izango dugu.
- Amona** Eta ni ile hauekin! Pelukeriara joan beharko dut. *(Badoaz)*
(Surferrak sartzen dira, korrika, eta spray poteak eskuan dituztelarik gelditu eta atzera begiratzen dute, urduri)

3. agerraldia

-Bi surferrak-

- Surfer1** Eskerrak ez gaituztela harrapatu!
- Surfer2** *(Urruti samarrera begira)* Super Wuay utzi dugu paretara hori!
- Surfer1** Eh, tronka! begira zer jartzen duen hemen!
- Surfer2** Ah, bai, oso tipo enroilatua zen Picasso hura!
- Surfer1** Zergatik ez goaz ikustera? Eskolako paretan pintada bat egin nahi dut eta ez nago oso inspiratuta.
- Surfer2** Zuk uste al duzu Picasso kolegari inportako litzaiokeela bere koadroa gure eskuetan eroriko balitz?

Surfer1 Bai ideia ona izan duzula! Koadro hori lapurtzeko irrikaz nago. (*Bihoz eskuinetik. Irteterakoan lapurrekin gurutzatzen dira*)

(*Lapurrak agertokira*)

4. agerraldia

-Bi lapurrak-

Lapur1 Kartzelan hamar urte pasa ondoren zein aldatua dagoen hiria!

Lapur2 Egia da. Eraikin hori berri egin dute, lehen zahar-zahar zegoen eta!

Lapur1 Moskis! Begira zer jartzen duen kartel horretan!

Lapur2 Picassoren koadroak Hilton Hotelean.

Lapur1 (*Eskuak igurzten dituen bitartean*) Zer, lan egiteko gogoia berri al zaizu?

Lapur2 Bai, tronko! (*eskuak igurtziz eta oso pozik*) Beno, goseak nago!

Lapur1 Baita ni ere; *txakurtxo bero* bat jango nuke, garagardo txarro batekin.

Lapur2 Goazen, bada! Bitartean pentsatuko dugu nola egin lapurreta.

2. EKITALDIA

Hotelean: Eskuinean, sarrera; ezkerrean, beste geletarako bidea.

(Harrerakoa agertokian dago, orriz beteriko mahaitxo baten atzean. Oso pinpirina da eta norbait ailegatzen denean bakarrik altxatzen da, beste denbora guztia bere burua margotzen eta ispilu aurrean pasatzen du)

1. agerraldia

-Harrerakoa eta bi poliziak-

(Poliziak ailegatzen dira)

- Harrerakoa** Arratsalde on, ikusi nahi al duzue Picassoren erakusketa?
- Polizia2** Ez, lan egitera gatoz. *(Polizi plaka erakusten duten bitartean)* Walker tenientea eta Piter inspektorea gara. Zure laguntza behar dugu.
- Harrerakoa** Arazoren bat al dago?
- Polizia1** Bai, uste dugu Leon eta George lapur ospetsuak etorriko direla eta gu haien zain egongo gara. Non ezkuta gaitzeke?
- Harrerakoa** Gortina honen atzean gorde, lasai. *(Gortina seinalatzen du).* Inor ez da enteratuko.
- Polizia2** Ondo da. *(Ezkuta bitez)*
- (Harrerakoa eseri egiten da)*
- (Lapurrak sartzen dira)*

2. agerraldia

-Lehengoak eta bi lapurrak-

- Harrerakoa** *(Zutituz)* Kaixo! Picassoren erakusketa ikusi nahi baduzue har ezazue foiletoa. *(Foiletoa luzatzen die)*
- Lapur1** Bai, gainera interes berezia dugu! *(Kopadurak ikustera hurbiltzen dira)*
- Lapur2** Hara, begira zein koadro politak! Lapur ditzagun!
(Momentu horretan poliziak ateratzen dira)
- Polizia1** Geldi hor, Leonar eta George!
- Polizia2** Eskuak gora! *(Eta pistola ateratzen dute)*
- Lapur2** Uste dut harrapatu gaituztela.
- Lapur1** Ez, oraindik ez! *(Eskuak jasotzerakoan hautsa botatzen die)*
- Lapur1** Hurrengo batean izango da! *(Alde egiten dute)*
- Polizia2** Atxis, atxis! Ez dut ezer ikusten.
- Polizia1** Nondik joan dira?
- Polizia2** Hortik uste dut. Goazen atzetik! *(Bihoaz)*
(Lapurrak eta poliziak joaten direnean, harrerakoa eskuz airea botatzen...)
- Harrerakoa** Ah, zein lan neketsua!
(Hori esan, eta oraindik haize ematen ari delarik, surferrak azaltzen dira. Harrerakoak ez ditu oso begirunez ikusten azken horiek)

3. agerraldia

-Harrerakoa eta bi surferrak-

Harrerakoa Arratsalde on! Zuek ere interesatuak al zaudete erakusketa-gatik? (*Susmo aurpegiz foiletoak luzatzen dizkie*). Hona hemen liburuxkak!

Surfer1 Espero dut merezi izatea, atzo eskuratu nituen 100 dolarrak taxian gastatu ditugu eta!

Surfer2 Ez kezkatu, eta utzi nire kontura.

(Surferrak koadroak ikusten ari direnean, aitona-amonak sartzen dira)

4. agerraldia

-Lehengoak eta aitona-amonak-

Harrerakoa (*Zutituz*) Sartu, sartu lasai.

Amona O, zein hotel polita!

Aitona Zer ondo dauden jantzita hotel honetan!

Amona Baina, baina! Begira zelako bi ganberro dauden hor!

(Surferrak hurbiltzen zaizkie, burlaka)

Surfer1 Zer gertatzen da? (*Mespretxuz*)

(Amonak makila altxatzen du, haiek jotzeko asmoz)

Aitona Utzi bakean, horrelako tipoekin ez du merezi!

Amona Alu madarikatuak!... Beno, goazen goiko pisura, nolakoa den ikustera!

Surfer2 Hori, hori, alde hemendik!

(Aitona eta amona ezkerretik joaten dira. Bitartean surferrak koadro nagusia ikustera hurbiltzen dira)

Surfer1 Begira zein *flipantea* den koadro hau!

Surfer2 Bai, justu behar nuena. Hauxe eramango dugu inspiratzeko. *(Hartu eta aterantz abiatzean polizia ailegutzen da. Poliziak korrika datoz lapurrak harrapatzera eta surferrekin egiten dute topo)*

5. agerraldia

-Harrerakoa, surferrak eta poliziak-

Polizia1 Hara, hara! Leon eta Georgek alde egin digute; baina, dirudienez, ez dira lapur bakarrak.

Polizia2 Bada, horiek ez zaizkigu joango.

Polizia1 Geldi hor, eta utzi koadro hori bere tokian.

(Surferrek, guztiz beldurtuta, eskuak buru gainean jartzen dituzte; dardara batean ari dira. Bitartean, harrerakoa oso urduri jartzen da hori dena ikusita eta haize ematen ari da)

Polizia2 Etorri gurekin! Primeran pasako duzue kartzelan eta!

Surfer1 Kaka zaharra! Orain bai izango dugula denbora inspiratzeko!

Surfer2 Bai aspertzeko ere!

(Haiek doazen bitartean, harrerakoa guztiz zorabiatuta...)

Harrerakoa Ai, zorabiatzen ari naizela uste dut... *(Eta erori egiten da)*

6. agerraldia

-Harrerakoa eta aitona-amonak-

(Harrerakoa lurrean erorita dagoelarik aitona eta amona azaltzen dira. Amonak estropezu egiten du harrerakoarekin, baina ez da konturatzen bera denik)

Amona Ai ene, zenbat traste! Ia erori nintzen!

Aitona Zenbat aldiz esan behar dizut okulistarengana joateko!

Amona Tira, tira, zuk ez duzu ikusmen hobe eta! Goazen koadroak ikustera!

Aitona Bada, oso ospetsua izango da Picasso hori, baina nik mamarratxoak besterik ez ditut ikusten!

Amona Begira, farola honetan dagoenak kolore politak ditu.

Aitona Ez dago gaizki! *(Koadroa esku artean hartu eta...)* Eraman egingo dugu!

Amona Ondo da!

Aitona Gure etxeke logelan ondo geratuko da.

(Eta badoaz, koadroa eramanez)

IKASTURTE BATEKO MOBIDAK

Ikasleak/Irakasleak
Alegia
Ballonti institutua
Portugalete
01

GAIA

Ikasturtean zehar gazte batzuk elkarrekin bizi dira pisu batean. Bakoitzak bere izaera dauka, bere maniak eta bere gustuko gauzak. Eta bakoitzak bere problemak ditu.

1. EKITALDIA

Etxekoandrea, Maite eta Mikel agertzen dira agertokian. Oihala zabaltzen da, eta eszenatik elkarrizketa bat entzuten da.

(Kanpotik)

Pantxika Etorri ziren azkenekoak ere txarrak, hilabete bi ere ez ziren hemen egon, zelako astrapala!! Bai, bai ...! Ez jarri horrelako aurpegirik! Hator, mutil, hator! *(eszenan sartzen dira Pantxika eta Mikel)* Ikusten duzu, mutil? Zelako bista polita! Eta gero hemen daukazu *(armairura hurbiltzen da)* liburuak eta ariketak ipintzeko armairu galanta.

Mikel *(Larri eta estu)* Bai, bai, baina, Maite! *(deika dabilkio kanpora begira)* tira, andrea, zer zabilta? Ordu erdi daramazu hor kanpoan!

Maite *(Kanpotik)* Mikel, mesedez, jota nago! Lagun iezadazu! *(ailegatzen da, oso haserre, fardela eta gitarra dakartzala)* Zelako aurpegi gogorra duzun! Nik eraman behar izaten ditut beti zure gauza guztiak! Kokoteraino nago! *(pisu berriari begiratzen dio goitik behera)* Orduan hau izango da gure bizileku berria?

- Mikel** Bai, oso ondo dago, ezta?
- Maite** *(Harrokeria handiz)* Bai, bai, ez dago txarto, ez. Bai, gustatzen zait. Oso ondo dago, bai!
- Pantxika** Ejem!! Zuek biok nobioak zarete?
- Maite** *(Harrituta)* Nortzuk, gu biok nobioak?? Mikel eta biok nobioak?? Beno, andrea, etxe honetan txantxarik ez! Mesedez!
- Pantxika** *(Mikeli diotso)* hori *mujer de mala saña* da.
- Mikel** *Nor? Astrapala hori? Ez, neuri zeure moduko andre helduak gustatzen zaizkit.*
- Pantxika** Ai, ene Maria! Zuk zer uste duzu naizela ni? *(Mikel eta Maite esertzen dira sofan)* Beno, nik jakin behar dut zenbat denbora igaroko duzuen bertan.
- (Maitek zigarro bat pizten du eta Pantxikak kendu egiten dio)*
- Pantxika** Baina, beno! Hemen ezin da erre, ez zigarrorik, ez ezer!! Izan ere gero hortik hasten zarete: lehenengo, zigarroak; gero, porroak; gero, kokaina, heroina eta gero... ai ene!! *¡¡drogadictos en mi casa!!*
- (Maite altxatu nahian dabil, baina Mikelek ez dio uzten)*
- Maite** Baina, beno, ezin da erre ala? Eta, jakina, ezin da ezta txiklea mastekatu ere, ezta?
- Pantxika** Zein mundutik etorri zara, ba, neska?
- (Maite berriz ere altxatu nahian, baina Mikelek lasaitzen du)*
- Pantxika** Beno, beno, nik jakin behar dut zenbat denbora egongo zaretan hemen!

- Mikel** Beno, ba, ikasturte osoa, normalena da.
- Maite** Jakina! Ez gara gaur etorri berriro etxera joateko!
- Pantxika** Eta zuek baino ez zarete hemen egongo? Badakizue, auzo-koengatik, (*leihora begiratzan du*) neugatik...
- Mikel** Bai, beste bikote bat etorriko da.
- Pantxika** Bikotea, neska eta mutila?
- Maite** (*Altxatuz oso harrিতuta*) Ez duzu zure bizitza osoan neska mutilik ikusi ala?
- Pantxika** Bai, bai (*erdi lotsatuta*)
- Maite** (*Mikeli*) Mikel, ez du ikusi, antza!
- Pantxika** Eta ezagutzen dute elkar?
- Mikel** Ez, bata Elorriokoa da eta bestea Sopelakoa. Bai, eta, gainera, uste dut beste hirugarren bat ere badatorrela.
- Pantxika** Tira, tira, badaukazue ordurik?
- Mikel** Bai, ordu bata.
- Pantxika** Ai, demontre! Berandu da! Paella egin behar dut eta. Gustatzen zaizue?

(*Mikelek buruarekin baietz eginez*)
- Maite** Txarto ez da egongo eta!
- Pantxika** (*Joan aurretik Maiteri begiratu*) Eta ez erre, ez zaratarik egin, lasai, lasai!

- Maite** *(Pantxika imitatuz)* Eta ez erre, ez egin zaratarik, eta, jakina, ezin izango da txiklerik mastekatu!!
- Mikel** Beno, Maite, utz ezazu bakean! Badakizu nolakoak diren emakume hauek! Ez da pertsona txarra, ez?
- Maite** Pertsona txarra ez da izango, baina jasan iezazkiozu bere agindu guztiak!
- Mikel** Beno, Maite, bere etxean zaude eta hartu lasai gauzak!
- Maite** Begira, nik berari ordaintzen diodan bitartean berak egon behar du isilik!!
- Mikel** Beno, Maite, baina, gaur zure jarrera gehiegizkoa izan da. Sartu eta zarataka hasi zara.
- Maite** Bai, nirekin *pasada* bat izan da, ezta? Eta, jakina, zu izan zara pelikula honetako mutil jatorra, ezta? Nahiz eta kalean kale-borrokan aritu, etxean gizon dezentea zara!!
- Mikel** Lasai, lasai! Nik kanpoan egiten dudana nire arazoa da, eta hurrengoan, harriak bota beharrean, zeu botako zaitut euren-gana!
- Maite** *(Harrituta)* Zer diostazu? Neu? *(istilu izugarria)*
- Mikel** Bai, eta orduan jakingo duzu zer den bizimodua.
(Momentu horretan neska arraro bat sartzen da)
- Maite** *(Mikeli)* Badakizu zer diotsudan! Pikutara joan zaitezela!
- Mikel** Joan zeu, eta utz nazazu bakean!!
(Neska berri horrek ez daki zer egin eta dio...)
- Eva** Uste dut lekuz erratu naizela.

- Mikel** Ez, seguru ezetz, sar, sar zaitetz beldurrik gabe!
(Evak begiratzten du bere fardela barrutik, zerbaiten bila hasten da eta azkenean aurkitzen du: paper zatia da)
- Eva** Hau Añibarro kalea da, ezta? hirugarren zenbakia, bigarren pisua, eskuinekoa?
- Mikel** Bai *(Maitek eta Mikelek, biek aldi berean)*
- Maite** Ez.
(Evak barre egiten du, ez daki zer egin)
- Mikel** Bai, lasai, hemen da, ni Mikel naiz eta kontaktatilu hori Maite.
(Eskuak ematen dizkiote elkarri)
- Maite** Eta zu nola deitzen zara?
- Eva** Eva.
- Maite** Nola?
- Eva** Eva.
- Maite** *Effa? (Mikeli barre eginez)*
- Eva** Bai, badakit nire gurasoek ez zutela askorik pentsatu nire izena jartzeko orduan, eta gainera nik beti esan dut ez duela zerikusirik izen batek izen hori daraman pertsona horren nor-tasunarekin, eta ia inoiz ez dela egoten komuntadurarik izakia bera eta kontzeptu horren adierazleak sortzen dituen fonemen gehikuntzarekin.
(Mikelek eta Maitek elkarri begiratzten diote, oso harrituta eta ezer ulertu gabe)

- Maite** Badakizu zer diotsudan? Ez dizudala galdetuko nongoa zaren; ze horrenbesteko *txapa* sartu badidazu zure izenarekin, ezin dut ideiarik egin zer izango den zure jatorriaz galde-tzen badizut. (*Maitek eszenatik alde egiten du bere fardela-rekin, guztiz harrituta*)
- Mikel** Beno, (*Mikelek ere ez daki zer egin*) ni banoa Pantxikarengana zure etorreraren berri ematera, jesarri nahi duzu?
- Eva** Ez, zutik egongo naiz, etikoagoa dela iruditzen zait. (*Hasten da guztia arakatzen, besaulkia, sofak...; armairura hurbiltzen da eta gauzak ukitzen hasten da, bat-batean gitarra hartzen du, eta Maite sartzan da irrati-kaxeta batekin musika entzuten*)
- Eva** (*Harrituta*) Zurea da?
- Maite** Bai.
- Eva** Utziko al didazu?
- Maite** Bai, zergatik ez?
- Eva** Beraz, zurea da.
- Maite** Baietz, ba, nirea dela.
- Eva** Eta badakizu jotzen?
- Maite** Bai, zer ba?
- Eva** Ez, izan ere orain dela bi aste neu ere hasi nintzen gitarra jo-tzen ikasteko klaseetara, baina irakasten zigun tipoak kope-tatik hasita gangar urdin izugarria zeraman eta belarritakoa ere urdina. Nolako tipo arraroa! Utzi egin behar izan nion joateari!
- Maite** Punkyak!

Eva Nola?

Maite Punkyak!!

Eva Nola?

Maite Punkyak deitzen zaiela, eta ez tipo arraroak. Ea, esan! Punky!

Eva Punky, punky, punky (*barre egiten du*), eta zuri zein musika gustatzen zaizu?

Maite Latzen, Idi Bihotz, Urtz eta musika punkya!!

Eva Punky!

Maite Ez egon egun osoan punky-punky esaten!

Eva Badakit, baina gauzak ondo ikastea gustatzen zait.

Maite Ja, ja, konturatu naiz.

Eva Ba... Mikel etxeko ugazabaren bila joan da, Pantxika da, ezta?

Maite Bai (*aurpegi arraroa jarritz*)

Eva Zelako izena duen!! Lodikote horietako batena ematen du. Begi borobilduna eta, ziur asko, olibak gustatzen zaizkiona.

Maite (*Harrituta*) Olibak? Eta zergatik ez zaio mermelada gustatuko? Ea, esan!

Eva Ba, zuk errepikatu Pantxika izena behin eta berriro eta azkenean olibak datozkizu burura!

Maite Errepikatzeko?

Eva Bai, begira, esan Pantxika!

Maite Pantxika!

Eva O...!

Maite Pantxika!

Eva Oli...!

Maite Pantxika! (*Gero eta gogorrago*)

Eva *Oli...!*

Maite Pantxika! (*Oso gogor*)

Eva Olibak ! Bada ala ez da?

(Maitek ez daki zer erantzun; momentu horretan Pantxika sartzen da Mikelekin batera)

Pantxika Bai! Zer gertatzen da? Deitu egin didazue, ezta? Beno, beno, (*Evari begiratu*)z) begira nor etorri den. Ziur asko ikasle berria izango zara!

(Eva buruarekin baietz esanez)

(Maitek musika topean jarri du eta Pantxikak diotso)

Pantxika Maite, mesedez, itzali aparatu madarikatu hori edo joan logelara!! (*Oso haserre*)

Maite *Neu??*

Pantxika Bai zeu!

(Maitek itzaltzen du aparatua eta badoa, Mikel, bien bitartean, egunkari bat irakurtzera eseri da)

- Pantxika** *(Evari)* Eta, zelan, Eva?
- Eva** Ondo! Baina uste dut momentu honetan etxera joango naitzela...!
- Pantxika** Zergatik?
- Eva** *(Atzerantz, pixkanaka-pixkanaka)* Nire gurasoei esan dida-lako deituko diedala eta *(atzerantz)* esan... esan behar diet *(oso urduri dago)* ondo nagoela eta... eta..., *(atzerantz)* beheko tabernara noa!
- Pantxika** Baina, andrea,... lasai! lasai!
- Eva** Bai... eta..., orain etorriko naiz *(estropezu egiten du Mikelekin eta bere gainean erortzen da)*
- Eva** *(Zarata batean)* Ai, barkatu, barkatu, mesedez, nahi gabe izan da, nahi gabe... *(altxatzen da; badoa aterantz eta beste tipo arraro batekin estropezu egiten du berriro, momentu horretan sartu den betaurreko beltzak daramatzen tipo batekin estropezu egiten du eta lotsa gorritan doa)*
- Richi** Tira, tira! Asuntoa sutan dago! Ejem, beno, beno, Ricardo naiz, baina Richard deitu ahal didazue eta lagun onak izatera ailegatzan bagara, Richi!! *(Barre egiten du eta eskua ematen die biei)*
- Richi** Ez dago neska gehiago hemen, ala?
- Pantxika** Ai...! *(Masailetatik hartuta)* Baina, beno, hau da hau mutil andrezalea daukaguna *(barre eginez)*, beno, beno, ni banoa paella sutan daukat eta. Jesarri, jesarri hor, ea ondo konpon-tzen zaren Mikelekin. *(badoa)*
- Mikel** Eta zure gauzak?
- Richi** Nireak? A bai! Automobilean ditut “New Bettle” horretan.

- Mikel** “New Beetle” horretan dituzula?? Zu bezalako tipo batek bakarrik eduki dezake horrelako auto bat.
- Richi** Kontuz! Nik nahi dudan automobila erosten dut; eta jakina (*barre eginez*), nahi dudan beste neska izaten ditut! Automobilak eta neskak! Gauza bi horiek bai merezi dutela eta ez beste ezerk!
- Mikel** Neskak eta automobilak, besterik ez? Eta Euskal Herriko egoera politikoa ez zaizu axola, ala?
- Richi** Nola? Zaude isilik! Nahiko buruko min dut festa, mozkor, neska eta automobilekin; eta beste guztia, ez bost, sei axola! (*barre egiten du*)
- Mikel** Uste dut gu biok ez garela oso ondo konponduko.
- Richi** Beno, beno, *rollo* gutxiago, zer gertatu zaio korrika batean atera den neska horri?
- Mikel** Nik zer dakit! Badakizu nolakoak diren neskak, urduri jar-tzen dira eta ez dakite zer egiten duten bere buruarekin!
- Richi** (*Eserita daude*) Beno, Mikel, ni banoa nire automobilera, neure gauzen bila! (*barre eginez*)
- (*Richik alde egiten du eta Mikel segundo batzuetan bakarrik geratzen da eta hala diotso bere buruari*)
- Mikel** Harroputz galanta!! Baina aldatuko da, aldatu ere!
- (*Momentu horretan Maite sartzen da abesten*)
- Maite** Baina, beno, zer gertatu da hemen, guztiak ezkutatu egin dira, ala?
- Mikel** Beno, Maite, ez hasi, mesedez! Nahikoa izan dut izan dudana-rekin.

- Maite** Tira, banator zurekin hitz egitera eta, ez dakit ... (*esaldia bukatu aurretik*)
- Mikel** (*Bat-batean altxatzen da*) Maite, jesar zaitez!! Mesedez! Oraintxe bertan nator, egon zaitez hor, lasai! (*badoa barrura*)
- Maite** Mikel! Mikel! Zer gertatzen da? Zergatik utzi nauzu hemen bakarrik?
- Mikel** Lasai, lasai! Oraintxe noa! (*sartzen da edalontzi batekin eta botila bete urarekin*)
- Maite** (*Harrituta*) Zertan zabilta?
- Mikel** Gauza bat esan behar dizut, Maite.
- Maite** Neuri?
- Mikel** Bai, zeuri... etorri da tipo bat etxe honetara..., edan ura!!
- Maite** Baina ez dut ezer ulertzen!
- Mikel** (*Maiteri ura emanaz*) Edan, edan! Horregatik ekarri dizut, hau! (*Maitek baso bete ur edaten du, biak eserita daude, bata bestearen ondoan*)
- Mikel** Etorri da tipo bat hona..., jatorra, borrokalaria, abertzalea, zuretzat aproposa, Maite!
- Maite** Jatorra, abertzalea... Egia da, Mikel?
- Mikel** Bai, eta gainera neska baten atzetik dabil.
- Maite** Eta guapoa da, jatorra eta, (*bere gorputza begiratzen du*) eta neska baten atzetik dabil!
- Mikel** Bai horixe!

- Maite** Ai (*hasten da oinez leku batetik bestera, oso urduri dago*) Badakizu zer? Oso larri nagoela! Polita al nago? (*goitik behera begiratzan du bere gorputza*) Bai, uste dut oso ondo konponduko garela.
- Mikel** Bai (*erdi barrezka dago*)
- Maite** Zeri egiten diozu barre?
- Mikel** Ezeri ez, Maite, uste dut atean jo dutela (*biak esertzen dira, momentu horretan sartzen dira Richi eta Sira*)
- Richi** Beno, beno, zer daukagu hemen? (*Maitegatik*) Ez didazu esan horrelako neskari geneukanik. (*Maite zutitzen da, oso urduri dago, Sira Mikelengana doa eta Richi Maitegana*) (*Sirak eta Mikelek elkarri eskua ematen diote eta musu bana eta Maitek Richiri galdetzen dio*)
- Maite** Eta zu nola deitzen zara?
- Richi** Ni, Richi.
- Maite** Zelako izena! (*harritzen da*)
- Mikel** (*Sirari*) Eta zu, nongoa zara?
- Sira** Ni, Anbototik hurbil bizi naizenez, hara joaten naiz hausnartzera.
- Richi** Hausnartzera? Zertaz? Nik, egia esan, hausnarketak egin, ekintzen bidez egiten ditut, neskak erasoz... Erasoz... (*barre egiten du*) Begira, nik lehen Mikeli esan diot bizitza honetan garrantzitsuena ondo pasatzea dela, topean pasatzea. Utzi albo batera hausnarketak eta mendiak!!
- Sira** Baina, zuk ez dakizu, gizakiak hausnarketarik egiten ez badu, bere izaera osoa galtzen duela? Eta ezetz jakin hitzik ederrena isiltasuna dela!

(Maite zutitzen da)

Maite *(Sirari seinalatuz)* Hori gustatu zait! Eta zu, Richi, *(Richiri esanez)* zein arraro egin zaidan zuk horrela pentsatzea!

Richi Bai... neskak, automobilak, motorrak, mozkorrak gustuko ditudala esatea arraroa da ala? *(Maitek Mikeli begiratzeko dio harrituta)*

Sira Beno, gustatuko litzaidake nire logelara joatea.

(Mikelek esaten dio)

Mikel Neuk lagunduko zaitut!

Maite Ez, nik neuk, Sira, etorri! *(atera hurbiltzen dira)*

(Mikel eta Richi eserita daude; eta Maite, zutik, erretzen)

Richi Arraroa neska hori, Sira, ezta?

Maite Arraroa? Ba nik uste dut aho zabalik utzi zaituela!

Richi Aho zabalik? *(Maitegana hurbilduz)* Neuk ere aho zabalik utzi ahal zaitut!

Maite Baina, beno, zuk zer uste duzu? Nor zarela uste duzu? James Deen, ala?

Richi Horrenbeste ez! Baina ez nabil urrun!

Maite Ez zabiltzala urrun? Neuk esango dizut zer zaren! Pailazo bat!!... Bai, horixe, pailazo galanta! Ein... Mikel? *(Mikeli)* Etorri da tipo bat hona, jatorra, abertzalea... Eta begira nolako mokordo galanta daukagun!!!!

(Richik hartzen du bere maleta logelara joateko eta momentu horretan Pantxika sartzen da)

- Pantxika** Nora zoaz, zure logelara?
- Richi** Bai (*erdi haserre*)
- Pantxika** Ba, lehengoa da, ezkerrekoa. (*Badoa, ba, Richi*) Eta zer gertatzen da hainbeste zaratarekin, Maite? tira mugi hadi!! Bazkaria prest dago-eta, arin!! (*Badoa*)
- Mikel** Bai.
- Maite** Baietz, Pantxika! Eta zu, Mikel! Nolako tipoa edo zer da hori? Altuera hauetan gezurra esatea ere, Mikel!
- (*Sira momentu horretan eszenan sartu eta esertzen da, zapa-tilak kendu eta hasten da...*)
- Sira** Dilomati... Dilomati... Hom... Hom... Dilomati... Hom... Dilomati ... Dilomati... Hom... Hom...
- (*Errepikatzen du behin eta berriz, une horretan Pantxika sartu da platera eta sardexkekin; hirurak hurbiltzen dira beregana eta harrituta daude, azkenean oihu bat bota du eta hirurek atzerantz egin dute*)
- Pantxika** Zer gertatzen zaizu?
- Sira** A, ezer ez, yoga da.
- Hirurak** Yoga??
- Mikel** Bazirudien jainko bati abesten zeniola.
- Sira** Ba, oso lasaigarria da; Yoga egiptoarra da.
- (*Maite eta Mikel mahaia jartzen ari dira jateko*)
- Pantxika** Yoga, egiptoarra, burutik jota zaudete gaurko gazteak, ustelduta zaudete, ez nire denboretan, ai!! Nire denboretan, gizonari

akuilua eta idi pareta ematen zizkioten, eta emakumeari orratza eta haria eta sukaldera, lan egitera!! Eta ez yogara. Jan aurretik yoga egiten! Hau ere ikusi behar genuen (*aitaren egiten du*)

Maite Baina hori lehen zen, Pantxika! Gaur egun emakumeak libre gara!

Pantxika Libre! Bai, ondo libre ere, leku guztietara ailegatu ezinik ibiltzeko! Tira!! Jatera mundu guztia!!

(*Mahaian ipintzen dira, ia-ia amaitu dute*)

Mikel Richi, ea etorri!

(*Etorri eta guztiak eseri dira*)

Pantxika Ai!! (*hartuz*), “algun chico que me viste bien en esta santa casa”

(Guztiek elkarri begiratzen diote, eta une horretan Eva sartzen da, korrika batean, bere logelara joateko asmoz)

Pantxika (*Ikusten du*) Nora zoaz, aingeru maitea? Ekarri poltsa hori eta eseri, mesedez! (*Zutik dago ezer esan barik*)

Richi Zer, katuak mihia jan dizu, ala?

Eva Ez, nire gurasoei deitzera joan naiz... ondo nagoela esateko (*esertzen da*).

Mikel Benga, arin, arin... Urkorekin geratu naiz La Casillan, mani-fara joateko eta.

Pantxika Ostera ere? Bazoaz ostera ere...! Ai Dios!

Richi Manifara zoaz? Zoratuta zaude!

Mikel Zu ez bazoaz ondo jarrita ez dituzulako da.

- Pantxika** Beno, beno, bakea!
- Eva** *(Estu eta larri)* Ni etorri naizenetik pertsona bi gehiago daude.
- Sira** Bai, ni Sira naiz.
- Eva** Sira? Badakizu izen horrek historia izugarria duela?
- Maite** *(Sirari)* Ahaztu egin zait izenekin *engantxatuta* dagoela esatea.
- Eva** Badakizue nondik datorren *servitus-servituris* hitza? Latina da. Erromatarrek Europako mendebaldeari Siria deitzen zioten eta, Servitus-servituris erabili beharrean, Sira Sirum erabiltzen hasi ziren, esklabo edo gatibu izena adierazteko. Izen kristaua da, historia luzea duena. *(denak harrituta daude)*
- Richi** Munduko pertsonarik arraroenak zarete, izan ahal zara gauza batzuen zalea, baina izenena...
- Maite** Eta zu?
- Richi** Bai, ni neska eta autoena...!!

2. EKITALDIA

Oihala zabaltzen da, Pantxika plantxatzen ari da. Egoera hau egongelan gertatzen da, Eva eta Sira sofán eserita daude. Eva azkazalak konpontzen ari da eta Sira liburu bat irakurtzen.

- Pantxika** Ez iezadazue esan! Hori da gaztaroa izorratzeko modua! Zeren, nik, ezkondu arte, ezertxo ere ez; ez nion ukitzen uzten, ezta izterra ere. Eta leku ilunetara eramaten ninduenen, esaten nion: Pako, Pako, bizimodua garesti dagoela!!

- Eva** (Mozten du) Baina, Pantxika, hori aspaldi zen. Gainera sexua gauza normala da. Zuk diozuna orain dela 20 urteko kontua da.
- Pantxika** Baina, zuetako bati ezer gertatuz gero, baten batek atera beharko zaituzte estualditik. Eta, jakina, etxe santu honen izen ona non geratuko litzateke? Ez dut pentsatu ere egin nahi!
- Eva** Ai! Pantxika, maitasuna, ur jauzi bat bezalakoa da! Horrenbesteko indarra du, ezen aurkitzen duen guztia eramaten baitu.
- Pantxika** Bai, baina gero hartzen dituzuen disgustuek negarra eta buru-haustea besterik ez dute ekartzen.
- Sira** (Liburua itxiz) “Todas las rosas son rosa, amor la única rosa.”
- Eva** (Oso gogor) Juan Ramón Jimenez!
- Pantxika** Ikusten duzue!! beti mutilengan pentsatzen zaudete!! eta zu, Eva, ea espabilatzen zaren, etorri zarenetik ia ez zara etxetik atera eta.
- Eva** Maite biongatik ateratzen da, ia ez da etxean sartzen eta.
- Pantxika** Ai, zelako gautxorria!! Hori da izaera duena! Jasangaitza da, ez dio ezerk axola!
- Eva** Ez da horrenbesterako!
- Pantxika** Ezetz? Harritzen nau zuk horrela pentsatzeak. Izan ere, Sirarekin hobeto konpontzen da.
- Sira** Ulertu egin behar zaio, arazo pilo bat izan du bere bizitza osoan, Mikelekin egon zen irteten; baina etxean ez zioten uzten berarekin ateratzen. Mikelekin zebilen garaian atxilotu egin zuten; eta era guztietako torturak egin zizkioten...

- Eva** Baina zergatik egin zioten hori berari?
- Sira** Ba, Mikelekin zebilenez... bera ere atxilotu egin zuten, informazioaren bat ateratzeko asmoz.
- Pantxika** Beno, eta Ritxirekin zer gertatzen da? Azterketak hasi direnetik jasanezina dago.
- Sira** Bere gauzak baditu horrek ere!
- Eva** Bai, (*barre egiten du*) andrezalea da, baina berarekin hitz egin daiteke. Gainera azterketa sasoi normala da bere egoera.
- Sira** Hain dira desberdinak bera eta Mikel! Eta hain desberdinak beraien helburuak... (*geldiunea*) Desberdinak baina mutil onak dira.
- (*Eztabaida izugarria entzuten da kanpotik*)
- Richi** Zergatik ez nauzu bakean uzten?
- Maite** Utziko zaitut, ea Mikel ikusi duzun besterik ez dizut galdetu.
- Richi** (*Sartuz*) Ba, galdetu hauei, mihiari nahiko lan ematen diote eta! (*eszenan sartzen dira Ritxi eta Maite*)
- Pantxika** Arraroa, zuek biok eztabaidan aritzea!
- Maite** Mikelengatik galdetu besterik ez dut egin, eta begira nola jarri den.
- Ritxi** Bihar turismo azterketa daukat; eta ikasi egin behar dut.
- Maite** Eta zergatik ez daramazu praktikara eta hemendik alde egingen duzu!?
- (*Ritxik besotik oso gogor oratzen dio eta sofa gainera jaurtitzen du; besteak harrituta daude eta Sirak diotso*)

- Sira** (Ritxiri) Baina zer gertatzen zaizu?
- Richi** Niri ezer ez, eta zuri? (*Pantxikari*) zigarro bat nahi dut, emadazu zigarro bat!!
- Pantxika** (*Aitaren eginez*) Baina, badakizu nik ez dudala erretzen.
- Eva** Ni, ni, ni, ni banoa, geroago etorriko naiz!
- Pantxika** Vaya por Dios!!
- Maite** Eutsi, hemen daukazu (*zigarro bat ematen dio*) Zigarro bat erre beharrean, ur hotza beharko zenuke lasai zaitezen.
- Richi** Zaude isilik! Ez dakizu nik zer behar dudan. (*Pantxika mahaian dauden gauza guztiak batzen hasten da*)
- Sira** Ezin zaio antzeman; ez dakit zer gertatzen ote zaion.
- Maite** Txoriburu bat da!!
- Pantxika** (*Maiteri*) Zergatik etorri zara Mikelengatik galdezka?
- Maite** Arratsalde osoan ez dudalako ikusi. Gainera gaur manifa bat egon da Bilbon, eta ez nago oso lasai.
- Pantxika** Eva!! (*deitzen dio*) Eva!! ea, etorri! (*eszenan agertzen da oso urduri*)
- Eva** Joan da?
- Sira** Bai, joan da ekaitza.
- Eva** Orain oinaztargia ez etortzea espero dut.
- Maite** Ez duzu nigatik esango, ezta?
- Eva** Ez, ez, ez... Ez.

- Pantxika** Beno, ni orain kalera noa, erosketa batzuk egin behar ditut eta. Gero etorriko naiz. (*Eszenatik kanpo dagoenean berriz sartzen da*) Ei! noiz egingo duzue festa hori, gaur ezta?
- Maite** Ene, egia da!
- Sira** Ba prestatzen hasi beharko dugu.
- Eva** Ni... ni... ez naiz joango, istilu gehiegi egongo da eta.
- Sira** Jesus, andrea, ez zaitetz horrelakoa izan!!
- Pantxika** Beno, beno, ni banoa... Sira! Mesedez, kontrola itzazu neska-mutiko hauek!!
- Eva** (*Pantxikari*) lagunduko zaitut.
- Pantxika** Ez, ez da derrigorrezkoa, gera zaitetz etxean, ni neu konponduko naiz bakarrik, beno, agur, neskak!!

(*Denak esertzen dira agur esaten eta gero bat-batean Sira txarto sentitzen hasten da*)
- Sira** Ai!! Zorabiatu egingo naiz! (*Oka egiteko keinua egiten du*)
- Eva** Zer gertatzen zaizu?
- Maite** Beharbada, zerbaitek kalte egingo zizun.
- Sira** Ez, ez da hori.
- Maite** Orduan?
- Sira** Geroago esango dizuet. (*Oka egiteko keinua berriz eginez, eszenatik alde egiten du*)

- Eva** *(Kezkatuta)* Benetan. *(Maiteri)* txarto dagoela uste dut nik, baina makarroi xingle batzuegatik ezin zara horrela jarri, pasta nahiko *enpalagoso*a egon den arren.
- Maite** Zer pasta?
- Eva** Makarroiena.
- Maite** Etxe honetan mundu guztiak jan ditu makarroiak eta inori ez zaio ezer gertatu, zer diozu?
- Eva** Ba, orduan, tomatearena izan liteke, badakizu latakoa izan da. Beti, beti, beti, zerbait erosi aurretik, galkortasun data begiratu behar da.
- Maite** *(Aurpegi arraroa jarritz)* Banoa ikustera ea zer moduz dagoen. *(Deitzen dio)*, Sira, Sira!
- Sira** *Banoa.* (Kanpotik) (Orain eszenan sartzen da)
- Maite** *Hobeto zaude?*
- Sira** Bai, hobeto, bai.
- Maite** Kamamila prestatuko dizut, ea hobeto sentitzen zaren.
- Sira** Ez, ez dut nahi, egia esan, kamamilak ez dit ezertxo ere egingo.
- Eva** *Beharbada, tomateak edo pastak berak kalte egingo zizun, egia esan, nik neuk ere hemen daukat oraindik.* (Eztarria seinalatuz)
- Maite** (Erdi haserreturik) *Baina zer tomate eta zer demontre!! Pasta dela..., tomatea... dela, zer emakume gogaikarria!!*
- Sira** Ez, begira! Ez da ez tomatearena, ezta makarroiena ere. *(Maitek zigarroa pizten du)* Eta ezta larunbatean edan nituen

garagardoena ere. (*Geldiune bat dago, isiltzen da, zutitzen da eta berriz esertzen da, oso urduri dago, eta ezin du jarraitu*)

Maite *Orduan?*

Eva Ni... banoa... kafea ekarriko dut. Zer deritzozue?

Maite Ondo.

Sira Niri ere zerbait ekarri. (*Eva badoa kafearen bila*)

Maite *Tira, lagun artean zaude, egon lasai.*

Sira Ai! Maite! Desesperatuta nago.

Maite Ez da horrenbestera izango, Sira.

Sira Ez dakit, oraindik ez nago oso ziur, ostiralean joan behar dut analisien emaitzen bila.

Maite Baina, zer analisi?

Sira Ni, Maite..., (*oso urduri dago. Momentu horretan Eva sartzen da kafeontzia eta kikarekin*) uste dut haurdun nagoela. (*Evari, hau entzutean, dena erortzen zaio*)

Maite Baina (*haserre*) ez duzu inoiz emakume haurdun bat ikusi?

Eva (*Oso urduri gauzak batzen*) Bai, baina orduan... ez da makarroiengatik izan?

Maite Baina, zer makarroi eta zer demonio? Beno, (*Sirari*) zu lasai, dena ondo aterako da. Lehenbizi, ostiralera arte itxarongo dugu ea zer gertatzen den; eta, dena dela, izeba Eva eta izeba Maite gaude zu zaintzeko. Ez?

(*Evak ere baietz egiten du buruarekin*)

- Sira** Beno, pila bat eskertzen dizuet. Ikusiko dugu zer gertatzen den ostiralean; baina, baiezkoa atereaz gero, nire gurasoen beldur naiz.
- (Maite eta Eva pentsakor geratzen dira, bat-batean Evak apurtzen du isiltasuna)*
- Eva** Eta nola gertatu izan ahal zaizu hori?
- Maite** Ene bada!! Zu kaletik zoazenean eta platano azala zapaltzen baduzu, eror zaitezke ezta? Ba, hemen gauza bera gertatzen da.
- Eva** Jo! Nolakoa den bizimodua!! Kendu ahalko bagenitu platano azal horiek inoiz ez litzateke ezer gertatuko.
- Maite** Zu, azalarekin edo azal gabe, beti erortzen zara, orduan hobe gainontzeko gauzak ere egiten ez badituzu.
- (Kafea edaten ari dira, kanpotik entzuten da...)*
- Richi** Isilduko zarete? Berritsu horiek!!
- Sira** *(Harrituta dio)* Benetan haserre dago.
- Maite** *Eta zu, Sira, zer moduz zaude?*
- Sira** Nahiko txarto emaitzak jakin arte.
- Eva** Positibo emanez gero, hasieran gogorra bada ere irtenbideren bat aurkitzen saiatuko gara.
- (Bat-batean Sira altxatzen da eta leku batetik bestera dabil oso urduri)*
- Sira** Pantxikaz ahaztu naiz!
- Maite** Eta zer gertatzen da berarekin?

- Sira** Zuk ez dakizu, zu etorri aurretik berarekin egon gara hitz egi-
ten haurdun geratzen diren neska gazteei buruz, neure arazoaz
enteratzen bada eta positiboa ematen badit pisutik botako nau.
- Maite** Baina, Sira, nahiko arazo dituzu zuk, Pantxikaz arduratzeko;
ez bururik jan. Ze, azkenean, zuk zeuk bilatu beharko diozu
konponbideren bat.
- Sira** Tira, egia da; oso urduri nago eta.
(Momentu horretan Ritxi sartzen da, oso urduri eta oihukatzen)
- Richi** Beno, neskak! Japonieraz esan behar dizuet isiltzeko!? Eta
zu, *(Maite seinalatuz)* joan zaitetz zure logelako leihora.
Mikel deika eta deika ari zaizu kaletik.
- Maite** Baina non dago, zer egiten ari da?
- Richi** Eta nik zer dakit!! Bost axola!
*(Maite badoa, Eva, Sira eta Ritxi geratzen dira eszenan, Ri-
txi zerbait bilatzen ari da, oso urduri dago)*
- Eva** Zeren bila zabilta? *(Kafeontzia eta kafeak hartuz)*
- Richi** *Nire pipa paketearen bila. Konforme?*
- Eva** *Fakundokoa bada, nik neuk jan dut.*
- Richi** Eskerrik asko, baina ez nabil horren bila! *(Une horretan
Sira altxatzen da eta kafeontzia eta kafea eramaten ditu
eszenatik)*
- Richi** Edalontzi bat. *(Evari)* Ez daukazu edalontzirik?
- Eva** *(Oihukatuz)* Edalontzi bat, edalontzi bat!! Sira!! Ekarri
edalontzi bat!

- Sira** *(Kanpotik) Bai!!*
- (Ritxik armairutik anis botila bat ateratzen du)*
- Eva** Orduan horren bila ibili zara?
- Richi** Jakina, panpina, ez duzu inoiz ni bezalako gizon bat ikusi anisa edaten?
- Eva** Bai, baina nik uste nuen pipen bila zenbiltzala.
- (Sira sartzen da edalontzi batekin)*
- Sira** Hemen daukazu, Ritxi. *(Edaten du eta lasaiago geratzen da)*
- Richi** Ez nekien horrelako gauzarik gordetzen zuenik Pantxikak armairu barruan.
- Eva** Ez, gaur goizerarte ez da anis botilarik egon armairuan. Maitek erosi du gaur arratsaldean egingo dugun festarako. Baina zu aurreratu egin zara.
- Richi** Orduan, festa bat izango da?
- Sira** Hala dirudi.
- Richi** Ba, orduan dotore jarri beharko dut. Hau bai ezustekoa! Baina hemen oraindik jendea falta da, ezta?
- Eva** Bai, Pantxika erosketak egitera joan da, Mikel ez dakigu non dagoen eta zu hemen zaude.
- Richi** Txotxolo hori! Badakit ni hemen nagoela, ikusten dut neure burua.
- (Maite eta Mikel eszenan sartzen dira)*
- Mikel** Baietz, ba! Zenbat bider esango dizut ondo nagoela!

- Maite** Bai, baina zergatik duzu presa? Nora joateko? (*ate aurrean gelditzen dira hitz egiten*)
- Mikel** Beno, nire bizimodua da! Nik neuk zainduko dut nire burua! Horretarako gauza naiz eta!
- Richi** (*Mikeli*) Vaya, vaya, zutaz aritu gara hitz egiten oraintxe bertan, anisa nahi duzu?
- Mikel** Ez, banoa berriro eta.
- Maite** Ba, ni zurekin noa, entzun duzu?
- Mikel** Nirekin? Nora?
- Maite** Horixe, nora?
- Mikel** Ba, jakin nahi baduzu, gaur arratsalderako manifa bat dago deituta, eta hara noa. Ordu erdi bat baino ez dut Kasillara heltzeko!
- Richi** Ba, ni anis botila honetatik trago bat hartzera etorri naiz, primeran dago!!
- Eva** Gaur festa bat egingo dugu, azterketak amaitu ditugu-eta. (*Mikeli begiratzeko dio*)
- Richi** Ba, nik bihar beste bat daukat. Orduan, azterketak amaitu, zuk amaituko zenituen.
- Eva** Eta inauteriak direlako ere bai.
- Richi** Vaya, vaya! (*Berriz edaten du*)
- Mikel** (*Sirari begira*) Zurbil dago, ezta?
- Maite** Zaude isilik, itxura ezin hobea du!

- Mikel** “Zaude isilik”, ez zaizu esaldi filosofikorik gehiago geratzen ala?
- Richi** Ez nau harritzen zurbil egoteak. Filosofia ikastea ere, Sira! Hori katu beltz baten bila logela ilun batean sartzea bezala da. Baina arazo batekin: (*Evari begira*) Ez dagoela katurik.
- Eva** *Pornografia!* (Guztiek barre egiten dute)
- Richi** Filosofia! neska! Ai, neska hau ez da ezertaz enteratzen!! Beno, nik ikasten jarraituko dut. Zein ordutan da festa?
- Sira** Ordu erdi barru.
- Richi** Hemen izango naiz, baina, mesedez, isilik egon!! (*Maiteri begiratzen dio*)
- Maite** *Nahi badut isilduko naiz.*
- Mikel** Beno, ni banoa eta ez dakit zein ordutan etorriko naizen, manifa hamabost minutu barru hasiko da.
- Sira** Manifaz hitz egiten ari bazara, kontuz, Mikel, gaur egun ez dago adierazpen askatasunik eta.
- Maite** Tira, ateraino lagunduko zaitut. (*Une horretan Pantxika sartzen da kaletik*)
- Pantxika** Baina, nora zoazte?
- Mikel** Ni kanpora noa buelta bat ematera, laster etorriko naiz.
- Pantxika** Beno, laster bazatoz ez dago arazorik, baina eraman txamarra edo beroki bat, hotza dago kalean eta.
- Mikel** Bale, ba! Gero arte. (*Biak doaz*) (*Isiltasuna dago*)
- Pantxika** Jesus! Isilik zaudete, ba!

- Eva** Isilik ez... kezkatuta!! (*Sirak aurpegi txarrarekin begiratzeko dio*)
- Pantxika** (*Erosketak armairuan sartzen ari dela*) Kezkatuta, zergatik?
- Sira** (*Urduri*) Ez, kezkatuta ez, inola ere ez...; badakizu, azterketak direla eta ez direla jendea kalean dago mozorroturik, eta gu hemen ikasten... badakizu...

(*Momentu horretan Pantxikak pastilla kutxa bat aurkitzen du armairu barruan*)
- Pantxika** Eta, zer da hau? (*Sirari ematen dio*)
- Sira** Norena izango da, ba? (*Irakurtzen du*)
- Eva** A, bai! Ritxirenak dira, berak hartzen ditu, pipak deitzen die.
- Pantxika** Eta zer da, ba?
- Sira** Ez, ez du garrantzirik, ikasteko pastillak dira, besterik ez!!

(*Evari begiratzeko dio, guztiz harrিতuta*)
- Pantxika** Besterik ez?? Baina, beno, zer uste duzue, kolokatuta nagoela, ala? Adinekoa naiz, baina ez inozentea, atzo pelikula batean ikusi nuen mutil batek hartzen zituela ikasteko. Bai, ikasteko, nola deitzen zioten? A, bai...! Antefaminas!! (*Biek barre egiten dute*) Nik emango diot Ritxiri, nik!!
- Sira** Ez arduratu, Pantxika, bihar azken azterketa izango du eta hartzeari utziko dio, ziur asko.
- Eva** (*Altxatzen da eta ia oihukatuz*) Baina begira zenbat hartu dituen dagoeneko!
- Pantxika** Ume madarikatu hori! Disgusturik baino ez dute ematen, hitz egingo dut berarekin.

- Sira** Orain ulertzen dut zergatik duen umore hori, ulergarria da!
- Pantxika** Ulergarria? Hau lotsagarria da, *drogadictos en mi casa*, esaten nuen nik!
- Sira** Pantxika, ez da horrenbesterako, hitz egingo dugu berarekin, dena den ez pentsa, ez da gauza erraza azterketak gainditzea, jende pilo batek hartzen ditu, edo zuk zer uste duzu, politiko askok ez dutela hartzen ala? Gaur hitzaldi bat hemen, gero han?
- Pantxika** Zaude isilik!! Hori ezin daiteke izan. Gure lehendakaria txerrikeria horiek hartzen!! (*aitaren egiten du*) Ez da posible ez, ez!! Ai! nire semea balitz, akuilua eta idi pareta!!
- Sira** Ezetz, Pantxika! Hori ez dela irtenbidea. Gainera, ez dakizu drogadikto bat gaixo bat dela eta ez delinkuente bat?... eta zer demontre, nor ari da drogadiktoez hitz egiten? Jesus! gauzak bere onetik ateratzen ari gara, ezta?
- Eva** Nik bizitza osoanzigarro bat ere erre ez dudanez, esango didazue zer jakin dezakedan gai honetaz!!
- Pantxika** Beno, beno, nolakoak zareten gazteak! arazoak besterik ez duzue ematen. Mugi zaitezte, neskak, zerbait egin nahi baduzue gauzak prestatzen hasi beharko dugu, ezta?
- Sira** Bai, arrazoi duzu. (*Altxatzen da eta erdi zorabiatu egiten da*)
- Pantxika** Jesus! Zer gertatzen zaizu, aurpegia zuri daukazu!
- Eva** (*Urduri*) Makarroiak, Pantxika!
- Pantxika** (*Harrituta*) Makarroiak? Zein delikatua zaren, neska!
- Sira** Ez, ondo nago; komunera joango naiz. Urdaila... larri samar, besterik ez. Ez da ezer!
- Pantxika** Zuk ez duzu horrelako txerrikeriarik hartuko, ezta?

- Sira** Ezetz, Pantxika!
- Eva** Hurrengoan, Pantxika, badakizu, egin etxeko tomatearekin.
- Sira** Zaude isilik, Eva! Zerbait hartuko dut eta hobeto sentituko naiz.
- Eva** Zurekin noa. (*Momentu horretan txirrina entzuten da*)
- Pantxika** Butaneroa da, butanoa ekarriko du! Ea dirua non utzi dudan! Ai, (*armairura doa*) hemen dago! (*Kanpora doa, une horretan Maite sartzen da eskuetan jantzi bat duela, mozorroa-edo izan daiteke*)
- Maite** Kontxo, non ote da jendea? (*Dantzan hasten da, jantziari begira dago*) (*Ritxi sartzen da, armairura doa pastillen bila, baina mahai gainean daude*)
- Maite** Zer, gustatzen zaizu jantzia?
- Richi** Zer? (*Ez dio entzuten*) Non daude? (*Maitegana hurbiltzen da besotik oratuz*) Badakizu!!
- Maite** Baina zertan zabilta? Zoratuta zaude! Utz nazazu bakean!!
- Richi** Hasieratik okerreko begitik begiratu izan didazu, ezta?
- Maite** Ba, bai! Eta zer, zer gertatzen da? Utzi bakean!
(*Pantxika sartzen da eszenan eta dio*)
- Pantxika** Beno, zer gertatzen ari da etxe honetan? E, Ritxi, zer gertatzen da?
- Maite** Zoratuta dago! Esan dit nik badakidala non dagoen ez dakit zer!

- Richi** Beno, berdin dio. (*Eszenatik kanpo ateratzekotan dagoenean Pantxikak deitzen dio*)
- Pantxika** Ritxi!! (*Mahaira doa, pastilla kutxa hartuz*) honen bila ibili zara?
- Richi** Non zeuden?
- Pantxika** Non? Armairuan!!
- (*Une honetan Sira eta Eva sartzen dira, Maite eurengana hurbiltzen da eta badirudi egoeraz konturatzen dela*)
- Richi** Ba, neureak dira, neure pastillak!!
- Pantxika** Eta noiztik zabiltza hartzen?
- Richi** Azterketen sasoitik.
- Pantxika** Ba, gauza bat esango dizut zuri eta guztiei! (*Denei begira, besteei seinalatuz*) Ez dut nahi nire etxean horrelako txerrikeriarik inork hartzerik!! Ulertu didazue? (*Mundu guztiak buruarekin baietz eginez*)
- Richi** Tira, tira, Pantxika, bihar bukatuko ditut azterketak, eta utziko diot hartzeari.
- Pantxika** Ba, bihar bertan emango dizkidazu!!
- (*Ritxi baietz esanez eszenatik doa, neskak geratzen dira eszenan*)
- Maite** Beno, eta zer, gustatzen zaizue? (*Guztiek begiratzen dute jantzia*)
- Eva** Ostras! benetan ederra!
- Pantxika** Zer dela eta erosi duzu jantzi hori?

Maite Inauteriak direlako.

Eva Ba, jar ezazu, ea nola geratzen zaizun!

Maite Bai?

Guztiak Bai!! (*Ateratzen da eszenatik*)

Pantxika Beno, eta zu, (*Sirari*) hobeto zaude?

Sira Bai, hobeto nago, baina nekatuta nago, badakizu, azterketak...

Pantxika Ai gazteria! Nekatuta zaudete, ezer egin gabe! Ez nire denboretan, ai! Aitaitak meza ostean mendira eramaten gintuen... eta joan egin behar! Ez zegoen ezetz esaterik. Eta orain, jesarrita bazaudete ere, nekatuta! Eta, gainera, pastillak hartu behar, nekatuta ez egoteko! (*Gauzak prestatzen daude*)

Eva Ai! gauza bat ahaztu zait ekartzea! (*eszenatik alde egiten du*)

Pantxika (*Sirari*) Andrea, ez zaitez mugitu!!

Sira Ez, ez da horrenbesterako!! (*Evari, eszenan sartuz*) Zer da, posterra?

Eva (*Buruarekin baietz eginez zabaldu eta publikoari erakusten dio*)

Sira Horra! Julio Iglesias??

Eva Bai, niri gizon hau izugarri gustatzen zait.

Sira Tira, tira! (*Evak jartzen du*)

Pantxika Niri Los 5 bilbainos gustatzen zaizkit, eta Marujita Diaz ere ez dago txarto.

- Sira** Jesus!!!
- Pantxika** Beno, ez da ezer falta, ezta? Ea Maite etortzen den eta funtzioen bat egiten digun, hori berea da eta. (*Une horretan Maite sartzen da jantzi batekin*)
- Maite** Zer, gustatzen zaizue?
- Eva eta Sira** Zein polita den!!
- Pantxika** Begira, nik uste nuen mihi zakarra eta musika rebeldea besterik ez zenutela. Tira!! Ai zelako gazteria! Gure Evak ere, begira nolako posterra ekarri digun! (*Maiteri*) ikusten duzu?
- Maite** (*Guztiz harrituta*) *Mecaguenlaleche!* Zer da hau? Nork, esan duzu, ekarri duela?
- Eva** (*Oso, oso pozik*) Nik!!
- Maite** Ez zenuen beste posterrrik? Zein lotsa!! Ez dut tipo hau ikusi nahi, ez posterrean ezta pinturan ere. Utziko didazu bibote bat jartzen eta betaurreko batzuk? (*Barre egiten dute Sirak eta Maitek*)
- Pantxika** Gaiztoak zarete, benetan, ei?
- Eva** Beno, beno, irabazi duzue, kenduko dut.
- Maite** (*Eszenatik kanpora doala*) Eva, zuk gustua galduta daukazu!! (*Barrezka doa, Eva posterra kentzen hasten da*)
- Eva** Beno, moderna izan nahi nuen, baina argi dago Julio Iglesias eta Juan Pardorekin ez noala inora, eta zuri, Sira, zein musika gustatzen zaizu?
- Sira** Ba, ez dakit, betidanik gustatu izan zait Pink Floyd, Genesis...
- Eva** Beno, ba, postmodernizatu egin beharko dut.

- Pantxika** Ea jendea noiz etortzen den, dena prest dago eta; Ritxi! Maite! tira! jaten hasiko gara!
- Richi** Oraintxe noa!
- Maite** Neu ere bai! (*Kanpotik*)
- Pantxika** Eta Mikel?
- Maite** Laster etorriko da. (*Une horretan atea da*) Ni joango naiz zabaltzera!!
- (*Eszenan Sirak musika jarri du, giroa aproposa da festa bat egiteko, eta, Ritxi sartzen da eszenan*)
- Richi** Zer? Dena dago prest? (*Jaten eta edaten hasten da*)
- Pantxika** Jesus, gizona! Itxaron besteei! Maite laster da eta!
- (*Maite eta Mikel eszenan sartzen dira, Mikel lur jota dago, ia ezin da ibili, ia ez da zutik egoteko gai*)
- Pantxika** Mikel, zer gertatu zaizu? *Ay por Dios!* Zer egin dizute? Beno, jaia amaitu da! Sentitzen dut, baina beste egun baterako utziko dugu festa!
- Richi** *Mecaguen...! Jo, tio*, benetan itxura txarra duzu!
- Pantxika** Ez badut ikusten ez dut sinesten! Errietan ibiltzea ere!
- Mikel** Errietan ez, Pantxika!
- Pantxika** Orduan? Ikusi duzu zeure burua ispiluan, zein itxura txarra duzun?
- Richi** Geldirik ez egotearren gertatzen zaizu hori! Begira gu zein garbi eta txukun gauden!!

- Eva** (Posterra hartuz eta zarata eginez) Beno nik... nik, sentitzen dut... bihar ikusiko dugu elkar. (Eszenatik alde egiten du)
- Pantxika** Beno, esango al duzu zer gertatu zaizun?
- Mikel** Beno, ba, (denak isilik daude) ba... etxetik irten naizenean, hemen behean atari aurrean tipo bat zegoen eta ea zer ordu den galdetu dit. Nik esan diot eta, euri zaparrada egiten ari denez, ba, elkarrekin hitz egiten hasi gara eta..., (min egiten dio sorbaldak) ez dakit zelan, baina esan diot Kasillarako bidea hartu behar nuela manifara joateko.
- Pantxika** Nora? Nik emango dizkizut ematekoak, ipurterre hori!!
- Mikel** Eta bera nirekin etorri da, eta Kasillara heldu garenerako tipoa desagertu egin da, han Urko eta Josebarekin topo egin ondoren, bat-batean txakurrak etorri dira eta...
- Pantxika** Katuak eta jirafak, ezta?
- Richi** Beraz, tximinoak bakarrik falta izan dira zoologiko bat osatzeko. (Barre egiten du)
- Maite** Beno, *katxondeo* gutxiago eta segi, Mikel.
- Mikel** Momentu horretan norbaitek atzetik jo nau eta konortea galdu dut. Begiak zabaldu ditudanean, komisarian nengoen eta, badakizu nor ikusi dudan? Ba, nirekin hitz egiten egon den tipoa.
- Sira** *Sekreta* bat! Pelikula bat dirudi!
- Pantxika** Ai ama birjina!! Ama birjina!! (Aitaren eginez) Kaferik nahi duzu? (Mikelek ezetz buruaz)
- Maite** Eta zure lagunei zer gertatu zaie?

- Mikel** Ez dakit, begiak ireki ditudanean komisarian nengoen, eta ez naiz ezertaz gogoratzen.
- Maite** Eta galderarik egin dizute?
- Mikel** Jakina, nitaz den-dena dakite eta gainera mehatxatu egin naute... Putasemeak!
- Pantxika** Beno, beno, orain berandu da eta ohera joateko ordua ere bai... Tira! altxa zaitetze eta lotara denok!
- (Guztiak altxatu eta oherantz doaz, eszenan Pantxika eta MikeI besterik ez dira geratzen)*
- Pantxika** Ai, mutilok! Kontuz ibili behar duzue! eta bakean utzi behar dituzue gauzak! *(Laguntzen dio Mikeli altxatzen)*
- Mikel** Guk gauzak bakean uzten ditugu; baina guregana datoz guda bila!! Eta zer egingo dugu?
- Pantxika** Ai Mikel! Oraindik gaztea zara eta kontuz ibili behar duzu! Bestela sartu ondoren ez dago erremediorik! Tira! joan zaitetz ohera!
- Mikel** Bai, uste dut baietz! *(Pantxikak laguntzen dio eta ateraino eramaten du, hau esanez)*
- Pantxika** Ai, gazteok, arazoak besterik ez duzue ematen!

3. EKITALDIA

Oihala zabaltzen denean, maleta batzuk ikusten dira, butaka alboan. Ikasleak joateko prest daude. Butaka gainean Mikel etzanda dago lotan eta egunkaria aurpegiaren gainean dauka. Pantxika sartzen da etxeko bata batekin, ohetik altxa berria da, aharrausika dago eta ileak saretxo batekin bil-

duak ditu, hasten da gauzak ordenatzen... eta bat-batean Mikel ikusten du.

Pantxika *(Bere buruari esanez)* Jesus, gure Mikel! Zer egiten ote du hemen? Gazteok burutik jota daude, ohe bat eduki eta, begira non dagoen! Butaka gainean lo! Gainera berari bost axola maletak hemen izateak! Berdin da! Mikel! Mikel! Itzar zaitez, ba, gizon! *(Mikelek buelta ematen du)* Ene, kasurik ez! Ondo dago! Ondo dago! *(Armairura doa, baso bete ur hartzen du eta ur pixka bat botatzen dio aurpegira)* Eta orain esnatuko zara? Zer demontre! *(Bat-batean Mikel esnatzen da)*

Pantxika Zer, morrozko, zer gertatzen da? Zer egiten duzu hemen?

Mikel Non nago? Zer da hau? Zer egiten duzu edalontzi horrekin?

Pantxika Zer egiten dudan? Ez zinen esnatzen eta! Azkenean ura bota behar.

Mikel Baina zer egiten dut nik hemen lo?

Pantxika Niri diostazu? Zuk jakingo duzu, bart berandu etorri zinen; erratzen ez banaiz goizaldeko bostetan! Zer izan da, ba, ordu horretan? Inor ez zen, ezta? Mozkortiak besterik ez, Maite ere orain ordubete sartu da etxean!

Mikel *(Harrituta)* Orain dela ordubete!

Pantxika A, bai, bai, bera eta bestea!

Mikel Nor?

Pantxika Ba, bestea... Ritxi! Biak etorri dira elkarrekin! Ordu horretan etortzea ere!

Mikel Baina, Pantxika, badakizu azken eguna dela, eta aprobe txatu egin behar dugula. Gainera ekaineko azterketak amaitu oste-

an, normala da. (*Eskuak burura eramanez*) Ai, zelako buruko mina dudan!

Pantxika Hori edateagatik da! Tira espabila zaitez! Hobeto zerbait hartuko bazenu!

Mikel Ez, ez. (*burua mugituz*) Gainera, oraindik ez dut prestatu neure maleta, ene! (*egongelara begiratzuz*) jendea espabilatu da hemen.

Pantxika Jakina! Zer uste duzu, ba? Gero, azkeneko minutuan, dena arin eta txarto! baina ez pentsa! Tristezia sartzen zait gorpuztean pentsatzean bihar ez zaituztedala hemen ikusiko, hitz egiten, jolasten, errietan...

Mikel Bai, baina irailean berriro hemen izango gaituzu.

Pantxika Beno, mugi zaitez! Umorea izan behar da hemen lo egiteko eta. Tira! Dutzatu eta ordenatu zure gauza guztiak.

Mikel Beno, beno. (*altxatzen da*) (*Ritxi sartzen da momentu horretan baso bat ur eskuan duela*)

Pantxika Hasi da jendea itzartzen! (*Ritxiri begira*) Honek ere buruko mina duela ematen du! (*Mikelek ikusten duenean, berriz, esertzea erabakitzen du*)

Richi Guztiak ez! Maite oraindik lo dago!

Pantxika Ba, badirudi zu eta Maite konpontzen hasi zaretela.

Richi Ez! zer diozu? Atzo gauean garagardo bat bota zidan goitik behera!

Mikel Burutik behera? Zer egin zenion, ba?

Richi Egin, ezer ere ez! Esan, olerki bat errezitatu nion.

- Mikel** Olerki bat! (*barre egiten du*) eta zertaz zihoan? Zer zioen, ba?
- Richi** Ez dakit, nirea zen... badakizu, batzuetan modernoa eta orijinala izan nahi duzu eta...
- Pantxika** Ba, heldu zareten orduan... ez dakit nik, ba, nork esango zuen errietan ibili zaretela!
- Richi** Baina hori ez da dena, zuk badakizu, Mikel, Maitek ez duela punteria ona, eta garagardo erdia baino gehiago tabernako nagusiaren andreaki erori zitzaion. Beraz, goizeko zazpi eta erdiak arte edalontziak eta platerak garbitzen aritu gara.
- Maite** Edalontziak eta platerak garbitzen! *Pelota, mas que pelota!!*
- Pantxika** Beno, ekaitza etorri aurretik kafe apur bat prestatuko dut. Oraintxe nator. Beste bieki esan, altxatzen badira, gosaria prest dagoela.
- Maite** Ritxiri soilik bururatzen zaio, nire... nire..., (*titiak ukituz*) ba, beisbol pilotekin konparatzea.
- Mikel** Beisbol pilotekin? (*barre egiten du*) Zu, Ritxi, katxondo bat zara.
- Maite** Katxondo bat? Nire bizitzan ezagutu dudan gauzarik tristee-na da.
- Richi** Beno, barkamena eskatu nizun, ezta?
- Maite** Bai, barkamena eskatu... fintasun pixka bat eskatuko nizuke nik.
- Mikel** Beno, zuek nahi baduzue jarraitu eztabaidatzen, ni dutxara noa.
- Maite** Ito zaitez!!!

- Mikel** Ez dut uste. (*Bihoa*)
- Richi** (*Maiterekin ligatu nahian*) Maite, e... zenbat neba-arreba zarete?
- Maite** Bi, neba nagusiago bat eta neu.
- Richi** Eta nola moldatzen zarete?
- Maite** Primeran. Baina zu bezalako pertsonekin ezinezkoa egiten zait ez eztabaidatzea, munduko gauzarik mugatuena zara, aldatzen zaren egunerako ez dakit...
- Richi** Badakizu zer diotsudan? Ez dizudala kasurik egingo; beti gogor itxura saldu nahian zabiltzala uste dut; eta bizitza ez da hori.
- Maite** Eta zer da bizitza, ba? Parrandaz parranda ibiltzea? Aste osoan ikasten jardun eta aste buruaren zain egotea, mozkortzeko? Ez dut uste hori denik; horregatik deitzen dizut beti burumotz; besterik ez duzulako buruan.
- Richi** Ritxi burumotz! Ez da txarto geratzen. (*Barre egiten du*)
- Maite** Bai, zu bezalako jendearekin bizitzak zentzua galtzen du, ligatu eta mozkortzearekin nahikoa duzue... Oraindik garagardo asko bota behar dizute burutik behera.
- Richi** Oldarkorregia!
- Maite** Bai, baina batzuetan ez daukazu beste erremediorik. (*Sira sartzen da*)
- Sira** Benetan, zuekin ez dago lo egiterik, zelako dialektika dauka-zuen!!
- Richi** Zelako dialektika! Ez holako gaua!

- Sira** Beno, zorte daukazuenok, zeren ni nagoen egoeran ezin dut holakorik egin!!
- Maite** Ba, ni hobe etxean geratu izan banintz; gutxienez fardela egina nukeen. (*Eszenatik doa*)
- Mikel** (*Kanpotik*) Maite! Maite! Ekarri xaboia! Uste dut sukaldean dagoela.
- Maite** Bai, ondo dago! (*Une horretan Pantxika sartzen da gosaria ekartzeko*)
- Pantxika** Baina nora zoaz? Eta gosaria?
- Maite** Ai, Pantxika, ez naiz gose.
- Richi** Ba, neu ere ez.
- Sira** Ba, neu bai.
- Pantxika** Hori da, horrela egin behar da; gainera azken aldi honetan potola-potola jarri zara, horrelakoak gustatzen zaizkit niri, eder-ederrak. Ikus ezazue Sira, zein eder jartzen ari den. (*Hau besteei esaten die*)
- Richi** Baina bere egoeran normala da, ezta?
- Sira** Beno, (*Ritxiri isilarazteko keinu bat eginez*) ni esertzera noa, jaten hasteko.
- Pantxika** Beno, banoa lotia esnatzera, Eva!, hori da zurrungaka aritzea! txikia bera, baina den guztia zurrunga da Eva. (*Badoa*)
- Richi** (*Sirari*) Baina ez diozu ezertxo ere esan, ala?
- Sira** Ez, ez daki ezer.
- Richi** Eta zergatik?

- Sira** Ez diodalako esan nahi.
- Richi** Baina lehenago edo geroago jakingo du edo enteratuko da.
- Sira** Bai, baina ni ez naiz hemen egongo. Eta, gainera, ez diot disgusturik eman nahi.
- (Maite sartuz)*
- Maite** Disgusturik? Nori?
- Sira** Pantxikari.
- Maite** Ez dakit nola jarraitu ahal duzun horrela! Niri hori gertatuz gero, abortatu egingo nuen.
- Sira** Bai, baina, barruan eramanez gero, desberdin ikusten duzu dena.
- Maite** Eta jaiotzen denean? Lehenengo, ikasteari utzi behar diozu; bigarrenik, lanean hasi behar duzu; hirugarren, ez dago lanik.
- Sira** Bai, pentsatu dut, Jon eta biok bere etxera joango gara bizitzera. Ikasteari utzi egingo diot hurrengo ikasturtean, eta gero jarraituko dut nire filosofiarekin.
- Maite** Ba, nitaz oroitzeko, nire narruzko eskuturrekoa emango dizut. *(Bilatzen hasten da)* Non utzi ote nuen? Uste dut hemen utzi nuela.
- Richi** Ba, nik eman ahal dizut nire galtzerdi gorri zuloduna. *(Barre egiten du)*
- Maite** Zein fina zaren!!
- Richi** Eta zuri, *(Maiteri)* bestea! *(Barre eginez berriz)*
- Maite** Ba, ez dut aurkitzen. *(Bilatzen jarraitzen du)* *(Badoa)*

- Sira** Bukatu dut. Zein goxoa egon den gosaria! (*Bat-batean Mikel sartzen da, egunkari zati bat duela*)
- Mikel** Irakurri duzue?
- Richi** Zer?
- Mikel** *Agresiones en una calle de Bilbao a una chica de 20 años por ser simpatizante de la izquierda abertzale. Los agresores le han grabado la cruz gamada y además han amenazado con matar a su padre, si continua igual.*
- Richi** Seguru horrela izan dela?
- Mikel** Egunkarian jartzen du, ez dut nik asmatu. txarrena da ez dela lehen kasua, bizitzeko gogoia ere kentzen dizute putaseme horiek!! (*Kanpotik entzuten zaie Eva eta Pantxikari*)
- Pantxika** Tira, gosaria jan gabe zaude eta... (*Ager bitez*)
- Eva** Ez..., goizeko zazpi eta erdietan jan dut, Maite eta Ritxi etorri direnean.
- Pantxika** Ai, zelako barreak egin ditugun gaur goizean, Eva dela eta ez dela, lo egitean zelako zarata... Bendito sea Dios. (*Kanpora doa gauzekin*)
- Sira** Zurrungaka, ala?
- Eva** Hala dirudi, gauez sudur-zuloa itxi egiten zait eta orduan eztarriko zulotik arnasa hartu behar izaten dut.
- Richi** Beno, prest daude gauza guztiak, alde egiteko?
- Mikel** Bai, neureak logelan daude.
- Sira** Eta neureak eta Maiterenak ere hortxe daude.

- Eva** Ba, nik uste dut denbora gehiago geratuko naizela hemen.
- Mikel** Gehiago, zergatik?
- Eva** *(Burua makurtuz)* Beno!! Ez dakit.
(Maite sartzen da eszenan)
- Maite** Inork ikusi du nire narruzko eskuturrekoa?
- Mikel** Niri ez galdetu.
- Maite** Ritxi!!!
- Richi** *(Ez entzunarena eginez)* Zer, zer gertatzen da?
- Maite** Nire narruzko eskuturrekoa?
- Ritxi** Nire erlojua? *(Erakusten dio)*
- Maite** Non dago nire narruzko eskuturrekoa?
- Ritxi** Ai, hori da? Ez dut ikusi, gainera zergatik diostazu niri?
- Sira** Beno, berdin da, emango didazu. Zer gertatzen zaizu, Eva, ez diozu ezer!
- Eva** Lur jota nago, besterik ez.
- Sira eta Maite** Lur jota?
- Mikel** Zergatik?
- Eva** Pantxikarekin pisuan geratuko naiz, irailerako hiru *penko* ditut eta.
- Richi** Hiru? Ikasi duzun guztiarekin eta eman diguzun txapa latin izenak direla eta ez direla, eta gero...

- Eva** Bai, baina irailean elkar ikusiko dugu, ezta, Ritxi?
- Ritxi** Bai, bost utzi ditut nik ere.
- Maite** Bost? Motorrak, autoak, neskak noizik, behin garagardo bat, neskak erasoz... (*Barre eginez*)
- Sira** Ez bazenitu hartu pastilla horiek... (*Pantxika eszenan sartuz*) Zer, prest zaudete?
- Maite** Baietz uste dut; ni behintzat banago. (*Gitarra hartzen du*)
- Richi** Nik gauzak *new betleean* sartu ditut. (*Barre eginez*)
- Mikel** Ba, nik ez ditut zure *new betlee* horretan sartuko.
- Pantxika** A, zuokin ez dago zer eginik!
- Richi** Beno, nirekin etorri nahi duena etor dadila, behean daukat automobila. (*Pantxikarengana hurbildu eta musu bat emanetz*) Irailean ikusiko zaitut, ezta?
- Eva** Elkar ikusiko dugu, *kapullo*. (*Barre egiten du*)
- Richi** *Kapullotxo...* (*Badoa*)
- Maite** Beno, neu ere banoa.
- Mikel** Norekin, berarekin?
- Maite** Bai, eramaten nauen bitartean, zeuek ere bazatozte, ezta?
- Mikel** Beno, behingoagatik.
- Sira** Bai, neu ere bai.
- (*Denek Pantxikari musu bana emanetz, Maite eta Mikel aurreratzen dira*)

Pantxika (*Sirari*) Eta ez loditu gehiago, Sira, ez zaizu falta eta.

Eva Badakizu, hurrengoan, Pantxika, ez jarri horrenbeste makarroi jateko. (*Sirari keinua botatzen dio*)

KALE GORRIAN

Ikasleak eta Javier Lozano irakaslea
Elexalde institutua
Galdakao
98/99

GAIA

Gazte bi kale gorrian bizi dira, diru barik, musika jotzen, bizitza aurrera ateratzeko.

1. EKITALDIA

(Oihala zabaltzen da. Edozein hiritako kale batean, gazte bi ari dira musika jotzen diru eske. Gazte bien ondoan loro bat dago.)

1. agerraldia

-1. gaztea, 2. gaztea eta loroa-

- 1. gaztea** *(Kanta bat jotzen duten bitartean)* Emaguzue txanponen bat! Ogerleko xume bat baino ez! Lagundu, mesedez! Kaleko musikariok ere egunero jan behar dugu! txanpontxu bat, emaguzu soberan duzun hori!
- 2. gaztea** *(Jotzeari uzten dio)* Badakizu zer?
- 1. gaztea** Zer?
- 2. gaztea** Lekuz aldatu beharko genukeela, nire ustez, kale honetatik inor gutxi pasatzen da.
- 1. gaztea** Orduaren kontua da. Dendak zabaltzen dituztenean jendez gainezka egoten da.
- 2. gaztea** Egon, bai; baina ez digute dirurik ematen. Ulergaitza da jotzen dugun musika ederrarekin. Beraien belarriak musikaz beterik, baina gure sabelak hutsik.

- 1. gaztea** Egia da! Azken hilabetean ogia baino ez dugu jan. Ogia gosaltzeko, ogia bazkaltzeko, ogia afaltzeko... Talo aurpegia ari zaigu jartzen!
- Loroa** Ogia, ogia, ogia...
gaurkorako
eta berdina bihar...
- 2. gaztea** Isil hadi, bele zikina!
- Loroa** Isil hadi, isil hadi...
Egizak hik eta gero nik!
- 2. gaztea** Isildu oraintxe bertan edo gaur ez duzu alpisterik izango!
- Loroa** Graaakkk!
- 1. gaztea** Ondo pentsatuta... loroaren alpistea afalduko bagenu?
- 2. gaztea** Alpistea? Egunero entzuten dugu telebistaren *alpistegia*, eta horrek ez du betetzen. Nahiago nituzke indabak eta txuleta.
- 1. gaztea** (*Datorren norbaiti buruz*) Begira, begira, horrek gure nagusiaren antza dauka!
- 2. gaztea** Tonto hura, halako tonto hura! Oraindik ez dut ulertzen zergatik kaleratu gintuen! Zergatik egin ote zuen?
- 1. gaztea** Batek daki! Umeak oso pozik zeuden gurekin. Musika jotzen hasten ginen bakoitzean, barrez lehertzen ziren.
- Loroa** Musika zela, musika zela?
puzker hotsa eta nahiko ustela.
- 2. gaztea** Loro honek buruko mina ematen dit.
- 1. gaztea** Zergatik ez dugu saltzen? Abesten duenean desafinatu egingen du. Zenbat emango ote ligukete loroaren truke?

- Loroa** Ez saldu, ez saldu
lagunik onena ez galdu!
- 2. gaztea** Ez du merezi loroa saltzea, ezer gutxi irabaziko genuke. (*Loroari*) Baina, behingoz isiltzen ez bazara, lepoa bihurrituko dizut; eta arrozarekin prestatuko zaitut, gaurko afarirako.
- Loroa** Ulertu, lorito isilik,
segitzeko bizirik.
- 1. gaztea** Oso gogorra da kalean bizi behar izatea. Musika talde bat osatu, milaka disko saldu eta famatua izatea gustatuko litzaidake. (*Gitarra bat joko balu bezala hasten da*). Fans guztiak oihuka niri begira eta...
- 2. gaztea** Ez dakit nondik aterako duzun dirua gitarra elektriko moderno horietariko bat erosteko. Loteria tokatzen ez bazaizu...
- 1. gaztea** Badatoz, badatoz... Utz ditzagun ametsak geroko. (*Hasten dira berrito jotzen*) Emaguzue txanponen bat! Ogerleko xume bat baino ez! Lagundu, mesedez! Kaleko musikariok ere egunero jan behar dugu! txanpotsu bat, emaguzu soberan duzun hori!
- (*Neska bi hurbiltzen dira, aurpegiak oso margotuta eta minigona daramatzatela*)

2. agerraldia

-1. emagaldia, 2. emagaldia eta managerra-

- 1. emagaldia** Arratsalde osoa lanean eta bezero bat ere ez.
- 2. emagaldia** Ea kale honetan zorte hobea dugun! Hemendik diru asko mugitzen dela uste dut. Gaur gure eguna izan daitekeela susmatzen hasia naiz.

- 1. emagaldua** Ametsak, beti amets berdinak. Eta bitartean urteak aurrera doaz eta guk lanbide honetan jarraitu behar.
- 2. emagaldua** Begira, gizon bat dator. Niretzat.
(Managerra albo batetik sartzen da)
- 1. emagaldua** Ezta pentsatu ere, hau nirea da eta ez didazu kenduko.
- 2. emagaldua** Nirea dela esan dizut!
- 1. emagaldua** Hori ikusteko dago!
- 2. emagaldua** Aizu, gazte eder hori, arratsalde on bat pasatu nahi duzu?
- Managerra** Ondo pasatzea? Zer zarete, txiste kontalariak? Horrela bada, zuen zorte eguna da gaurkoa. *(Karteratik bere txartela ateratzen du eta erakusten die)* Agapito Burdinaurpegi deitzen naiz, artisten managerra. Nire laguntzarekin artista ona aberastu egiten da, txarra ere aberastu egiten da, eta ni naiz, batez ere, kasu guztietan gehien aberasten dena. Harria urre bihurtzen dut, ura koka-kola eta...
- 1. emagaldua** Humm ...! *(Aldakak astinduz)* txisteak entzutea ez da ondo pasatzeko era bakarra.
- Managerra** Ondo, oso ondo. Ulertzen dut. Dantzariak zarete. Ederto. Nire laguntzarekin arbolen enborrak balet-dantzari bihurtzen dira, hipopotamoak gazela, haizea musika...
- 2. emagaldua** Humm...! *(Aldakak astinduz)* Dantza egitea ez da gorputza erabiltzeko era bakarra.
- Managerra** A, bai! Emakume-toreroak zarete, aukera baten bila zabilzatenak. Ederto. Nire laguntzarekin oiloak ausart bihurtzen dira, ahuntzak zezen, iluntasuna kolore. Ni, zuek, haiek... mundu guztia aberastuko da eta...

- 1. emagaldua** Ondo da, ondo da. Ea behin batez ulertzen duzun! Oheratu nahi duzu gurekin?
- Managerra** Oheratu? Oheratu? Oso goiz da horretarako. Emazteak horrelakoetan harrapatuko banindu gorriak ikusiko nituzke. Baina hilabete batzuk barru, Holliwood-eko managerrik famatuena izango naizenean, etorri berriro niregana, zeruko izarrik dirdiratsuenak egingo zaituztet, zuek aberastu egingo zarete eta ni...
- 2. emagaldua** Nahikoa da, txo, nahikoa! Argi dago zurekin ez garela aberastuko. Berba asko, baina gero... ezer ez. Goazen hemendik, badirudi kale honetan ere ez dugula zorterik izango. Goazen!
- 1. emagaldua** Ba, hurrengo kalean diru asko darabiltela esan didate eta...
(Besotik helduta, agertokitik ateratzen dira)
- Managerra** Egia esan, nire emaztea askoz gehiago gustatzen zait babaloren horiek baino.
(Musikariengana hurbiltzen da)
- 1. gaztea** txanpon bat, ogerleko bat gure musikaren truke!
- Managerra** Asko sentitzen dut, baina ez daukat txanponik, hamar milako billeteak baino ez daramatzat. *(Karteratik bere txartela atereaz)* Agapito Burdinaurpegi nauzue, mundu osoko managerrik ausartena, kale gorria jauregi bilakatzen duena, musika diru bihurtzen duena, artistak aberasten dituen eta artistei esker bere faktura guztiak ordaintzen dituen.
- Loroa** Agapito, Agapito, berak igeri eta besteak ito.
- Managerra** Azkarra, loroa... Hummm... Ideia bat bururatzen ari zait... Esan loroari nirekin ez sartzeko eta azalduko dizuet.

- Loroa** Burdinaurpegi, Burdinaurpegi,
berba asko, gezur gehiegi.
- Managerra** Hau jasanezina da! Errespetu falta izugarria! Ni bezalako
gizon inportante bati begirunea zor zaio. Zuentzat okerrago!
Zuek galtzen duzue! Banoa.
- Loroa** Agapito jauna, berarentzat ehun, besteentzako bana.
- Managerra** Loro madarikatua! Aberasten naizenean, erosi egingo dut,
eta lumak banan-banan kenduko dizkiot. (*Agertokitik atera-
tzen da*)
- (*Mozkorti bat agertzen da esku batean botila bat duela eta
bestean maleta bat*)

3. agerraldia

-1. gaztea, 2. gaztea, loroa eta mozkortia-

- Mozkortia** (*Abestuz*) Boga-boga marinela... Zelako eguna! Ze ondo
bizi naizen! Ez dut horrenbeste edan, baina ospatzeko beha-
rra zegoen eta ardo hau gozo-gozoa da. Boga-boga marine-
la... Baina... zer da hau? Amonatxoak kalean kantari! Diru
eske! Hau ez da bizimodua!
- 1. gaztea** Gu, amonak? Hau ez dago sano burutik.
- Mozkortia** Amonatxoak kale gorrian. Ziur ez dutela ezer jateko,
neguan hotza pasatzen dutela, lo kartoen gainean egiten
dutela!
- 2. gaztea** Baina, zer dio honek?
- Mozkortia** (*Balantza-aldi batean erori egiten da*) Aiii! jausi naiz. Ez
dut ulertzen zergatik hiri moderno hauetan kaleak mugitu

behar diren. (*Altxatzen da*) Tira, egia esan, mugitzen ez den gauza bakarra ni naizela uste dut. Baina zenbat amama dira? (*Musikariengana hurbiltzen da*) Bat, bi, hiru, lau... Baserritar itxura daukate. Baserritarrek izango dira, amama baserritarren korua hirian galduta!

1. gaztea Ez garela amamak, astapotro hori!

Mozkortia Eta zer daukate? Zer da hori? Lumak dira! Indioak, indioak dira! Amama baserritar indioen korua. Badago gauza bixirik hiri honetan!

Loroa Horrenbeste edanez gero oinak hotz ta burua bero!

Mozkortia Eta bertsolaria da. Amama baserritar indio bertsolarien korua. Asko da, gehiegitxo edan dudala uste dut. Hobeto lotara joatea. Maleta hau eta gainera ardo botila. Eskua libratu behar dut. Lurrean utziko dut. Enbarazu egiten dit. Oso handia da. Bai, hartu maleta, zuentzat.

1. gaztea Guretzat?

Mozkortia Bai, zuentzat. Orain lotara noa beste taberna batera. Bogaboga, marinela.

(Mozkortia badoa eta hiru gazte agertzen dira makarra itxura dutenak)

4. agerraldia

-Bi gazteak, loroa eta hiru makarra-

1. makarra Begira, musikariak kalean! Diru erraza guretzat.

2. makarra Erraza izango da, baina ez du ematen aberatsak direnik.

- 3. makarra** Gutxi edo asko, dirua da. Egun osoan ez dugu pezeta bat ere eskuratu. Goazen beraiengana!
- 1. makarra** Atera labanak!
(Labana eskuan dutela, musikariengana doaz korrika)
- 2. makarra** Poltsa edo bizia!
- 1. gaztea** Poltsa? Ez daukagu poltsarik, maleta zahar hau baino ez daukagu.
- 2. gaztea** *(PoItzikotik sagar bat ateratzen du eta makarra bati labana hartu eta sagarra zuritzeari ekiten dio)* Eskerrik asko. Dagoeneko gose nintzen eta ezin nuen sagarra zuritu. Oso atseginak zarete.
- 2. makarra** Baina-baina, hau lapurreta da! Eman diru guztia!
- 1. gaztea** Dirua? Zer diru? Dirua zer den ere ahaztu zaigu.
- 2. gaztea** Sagar zati bat nahi duzue?
- 1. makarra** Zer sagar eta zer sagarrondo! Diru guztia emateko!
(Musikariek ez dute egiten. Makarrak elkarri begira gertzen dira eta gero...)
- 2. makarra** *(Erdi negarrez)* Eman dirua, mesedez.
- 3. makarra** *(Negarrez)* Ez daukagu ezer jateko. Bizitza honetan asko sufritu behar izan dut. Bost urte nituela, amak zarama-kontainer batera bota ninduen. Urteak eman nituen besteen hondakinak jaten. 15 urterekin poliziak harrapatu ninduen fruta denda batean lapurtzen. Bost urte eman nituen kartzelan. Libre atera bezain pronto, kotxe batek jo ninduen: hamazazpi hezur apurtuta eta hiru hilabete ospitalean. Mesedez, eman zerbait.

- 1. makarra** Nire gurasoak meategi batean istripuz hil ziren zortzi urte nituenean. Nire anaiak drogazalea da, eta esku bat falta zaio. Ez dut ezer jan azken bi asteetan.
- 2. makarra** Gazte-gaztetatik hasi nintzen lanean Argentinan. Jabeak jo egiten gintuen. Ihes egitea erabaki nuen eta patera batean etorri behar izan nuen. Ozeanoaren erdian ura sartzen hasi zen... eskerrak igerilari ona naizela! Kanean nago, lan barik, diru barik, jan barik...
- 1. gaztea** Bai, bai, oso latza da zuen bizitza, baina guk ere ez daukagu dirua soberan.
- 3. makarra** Baina pixka bat lortzen duzue.
- 2. gaztea** Daukagun apurrarekin aste osoa pasa behar dugu.
- 2. makarra** Ez zaitezte horrelakoak izan! Banatu gurekin. Kale gorrian bizi garenok elkarri lagundu behar diogu.
- 2. gaztea** (*Hasperen eginez*) Ondo da. Hartu gure diruaren erdia.
- 1. makarra** Eskerrik asko.
- 2. makarra** Kaleko musikari onenak zarete.
(Makarrak badoaz)
- 1. gaztea** Zelako eguna! Ezer barik geldituko gara, baina pena ematen zidaten.
- 2. gaztea** Horrela jarraituz gero, ez dakit zer afalduko dugun. Eta gainera mozkorti horren maleta zaharra zaindu behar. (*Maleta altxatzen du*) Hummm... pisutsua da. Batek daki zer gorde dezakeen barruan!
- 1. gaztea** Ardo botilaren bat, seguru asko. Ez legoke txarto zurrutada bat ematea. Zergatik ez dugu zabaltzen?

2. gaztea Itxaron, itxaron, jendea dator. Ziur hauek patrika diruz bete-rik dakartela. Jo dezagun musika apur bat. (*Jotzen hasten dira*)

(Amama gorra eta bere laguntzailea agertzen dira)

5. agerraldia

-Bi gazteak, loroa, amama eta laguntzailea-

Amama gorra Bitxia da, musika tresnak eskuan eta ez dute ezer jotzen. Isiltasunaren musika izango da.

Laguntzailea Jotzen ari dira, gertatzen dena da zuk ez duzula ezer entzuten.

Amama gorra Zer diozu?

Laguntzailea (*Oihuka*) Musika jotzen ari dira!

Amama gorra Zer?

Laguntzailea (*Belarrira oihuka*) Musika, musika!!!

Amama gorra Puxika? Zer puxika? Ez esan txorakeriarik, ez dira puxikak saltzen ari eta, gainera, ez didazu oihurik egin behar, ondo entzuten dut eta.

Laguntzailea (*Hasperen eginez*) Emakume honek zoratu egingo nau.

Amama gorra (*Gazteengana hurbiltzen da*) Zelako loro ederra!

Loroa Gorra, amona,
baina ikusmena lar ona.

Amama gorra Ramona? Zer Ramona? Ni ez naiz Ramona deitzen. Ah, bai, badakit nor den Ramona hori, modako telenobelaren protagonista. Oso istorio interesgarria. Azken atala kontatzea nahi duzue?

1. gaztea Guk ez dugu ezer kontatzerik nahi. Musika jotzen hasi behar dugu.

Amama gorra Bai, bai, den-dena kontatuko dizuet. (*Kontatzen duen neurrian, gazteak lokartuz doaz. Laguntzaileak, bitartean, dirua lapurtzen die*). Dakizuenez, Ramona bere gurasoak bilatzen ari da. Jose Rodolfo izeneko gazte eder bat ezagutzen du eta ezkondu egiten dira. Ramona haurdun dagoenean, Jose Rodolfo bidaia luze batera doa eta ez da bueltatzen. Orduan, Ramonak Alvaro ezagutzen du. Alvaro ez da Jose Rodolfo bezain polita, baina ez dago batere txarto: beltzarana, biboteduna... Ramona hasten da Alvarorekin harremanetan eta gutxien espero duenean... Jose Rodolfo agertzen da berriro. Jose Rodolfok esaten du bitartean jaio den Ramonaren semea ez dela berea eta... besterik ez. Dena horren nahastuta dagoenean, atala amaitzen da. Ea gaurkorian zer gertatzen den! Ez baduzue ikusten, bihar kontatzera etor naiteke, horren ondo entzuten dakiten gazteak gustukoak ditut.

Laguntzailea Presa pixka bat daukagu, joan beharra dugu. (*Abiatu bitez*)

2. gaztea (*Esnatzen da*) Agur, agur!

Amama gorra (*Itzuliz*) Agur, bihar arte. (*Bihoa*)

1. gaztea Eskerrak joan diren. Emakume astunagorik!

(*Lotan geratzen dira gazteak eta loroak*)

2. EKITALDIA

1. agerraldia

-Bi gazteak eta loroa-

- 2. gaztea** *(Gitarraren zorroan begiratzan du eta zegoen dirua ostu dietela konturatzen da)* Lapurrak! Dirua ostu digute! Ez digute txanpon bat ere utzi!
- 1. gaztea** Atzokoa ez zen gure eguna. Zabaldu maleta eta zurrutada bat ardo edan dezagun, ea gure penak ahazten zaizkigun!
- 2. gaztea** Bale, ba, jan, ez dugu ezer jango, baina edan...
- 1. gaztea** Itxaron, itxaron apur batean, baserritar bi datoz. Hirira etortzen direnean galduta daude. Tontolapiko galantak dira. Gure aukera da. Zer edo zer pentsatu behar dugu beraien kontura gosaltzeko.
- 2. gaztea** Badakit! Maleta zahar hau salduko diegu eta garesti gainera. Badakit zelan egin!
- (Baserritar bi sartzen dira)*

2. agerraldia

-Lehenagoak eta bi baserritarrak-

- 1. baserritarra** *Neka-neka eginda nago! Zelako eguna! Traje berria erosi behar eta bost mila duro pagatu: Pantxikaren gonak, bost mila duro; behiari kalentura kentzeko pastillak, bost mila duro; semearen larruzko zapatak, bost mila duro; ez naiz ausartzen ezta kafetxo bat hartzen ere, ziur bost mila duro kobratzen digutela.*
- 2. baserritarra** Hirian... badakizu, dena garesti.

- 2. gaztea** Aizue, negozio ona egin nahi duzue?
- 1. baserritarra** Guri esaten diguzu?
- 2. gaztea** Bai, zuei. Azkarrak izateko aurpegia daukazue eta negozio honetarako egokiak zaretela irudituz zaigu. Begira, maleta hau magikoa da. Desio bat eskatuz gero berehala betetzen du.
- 2. baserritarra** Bai zera!
- 2. gaztea** Ez zarete fidatzen? Ikusi nahi duzue? Ondo da. Maleta miresgarria, loro honek hitz egitea nahi dut.
- Loroa** Agindu ederra zurea
berba egitean
deitzen didazu belea.
- 1. gaztea** Ikusten duzue? Magikoa da.
- 1. baserritarra** Loroak dioena buruz ikasia izango da.
- Loroa** Aizu, memelo,
nire hitz egiteko era
ez dela kamelo.
- 2. baserritarra** Berba egiten du! Egia da maleta horrena!
- 1. baserritarra** Hummm, ez naiz fidatzen. Magikoa bada, zergatik saldu nahi duzue?
- 2. gaztea** Pertsona bakoitzak hiru desio baino ezin dizkio eskatu maletari eta gero azkar aurpegia duen beste bati pasa behar dio, emandako guztia ez galtzeko. Horrexegatik esan dizuegu egokiak zaretela.
- 2. baserritarra** Erosi, ba, erosi. Egia balitz...
- 1. baserritarra** Hummm... Beno, ba, zenbat eskatzen duzue?

2. gaztea Ba... ez aldatzarren... bost mila duro.

1. baserritarra Ondo da. Hartu dirua, baina ziria sartzen badiguzue...

(Baserritarrak badoaz maletarekin. Zabaltzen dute eta diruz beterik dago)

1. baserritarra Begira zenbat diru! Egia zen! Maleta magikoa da!

2. baserritarra Aberatsak gara!

(Mozkortia agertzen da)

3. agerraldia

-Lehenagoak eta mozkortia-

Mozkortia Aizue, itxaron! Barkatu, baina maleta hori nirea da!

1. baserritarra Zelan zurea? Oraintxe bertan erosi dugu-eta.

Mozkortia Dagoenaren erdia emango dizuet.

2. baserritarra Ez, gurea da.

Mozkortia Entzun, mesedez. Loteria tokatu zait. Dirua kobratu eta maletan gorde nuen. Ospatzeko beharra zegoen eta gehiegi edan nuen. Mozkorra pasa zaidanean, maletaren bila ibili naiz leku guztietatik.

1. baserritarra Zelan jakin dezakegu hori egia dela?

Mozkortia Begira maleta barruan, nire seme-alaben argazkiak daude.

2. baserritarra *(Begiratzen du eta...)* Egia da!

Mozkortia Jakina, egia dela. Ados jarriko gara. Maleta ez badidazue bueltatzen arazoetan sartuko zarete, bueltatu iezadazue eta diruaren erdia emango dizuet; horrela denok pozik, eta...

(Mozkortia eta baserritarrak hizketan ateratzen dira agertokitik. Managerra agertzen da berriro)

4. agerraldia

-Bi gazteak, loroa eta managerra-

Managerra Hummm, hummmm... Zelan gaude? Hemendik pasa nintzenetik pentsatzen ibili naiz eta... Beno, barkatzen ikasi behar dugula uste dut. Ez nauzue hartu nire pertsonak eskatzen duen begirunez, baina gertatutakoa ahazteko prest nago. Azken batean diruaren aurrean...

1. gaztea Dirua? Zer diru?

Managerra Kontratu batek eman dezakeena, gazte. Etorkizuna ikusten ari naiz: telebistako izar berria, milioika ikusle pantailari begira, dirua mara-mara jausten gure buruen gainetik. Jakina, ehuneko laurogeita hamarra niretzat: errepresentazio gastuak, desplazamendu gastuak, kontratu gastuak, gestio gastuak, aurpegi gogorraren gastuak... Baina lasai egon, artista ez da gosez hilko, bere artearen lilurak gizenduko du.

Loroa Agapito, beti bezala,
intxaurra jan
eta besteei azala.

Managerra Berriro horrelakoetan? Lasai, Agapito, lasai, zure burua kontrolatu behar duzu, ez duzu alferrik galdu behar dirua irabazteko aukera eder hau. Onena ez entzunarena egitea. *(Poltsikotik paper mordo bat ateratzen du)* Kontratuaren paperak prestatu ditut. Guztion betebeharrak ondo zehaztu behar dira, argi geratu behar da nork egin behar duen lan eta

nork kobratzen duen diru gehiena. Sinatu ondoren, etorki-zuna gurea da, imajinatzen hasia naiz: txaletak, kabiarrak gosaltzeko, jakuzia xanpainez beterik, hamar metroko auto-tzarrak...

- 1. gaztea** (*Bere lagunari zuzenduz*) Sekulako aukera da, baina pena ematen dit atzerrira joan behar izateak, lagunak uzteak.
- 2. gaztea** Eta leroa? Zer egin dezakegu leroarekin?
- 1. gaztea** Ondo pentsatu behar da proposamena onartzen dugun ala ez.
- 2. gaztea** Egia esan, ez nuen espero horrelako aukera bat izatea, ez nuen uste horren musikari onak ginenik.
- Managerra** Zuek? Zuek musikari onak? Zuek musika ondo jotzen duzuela? Katu bat miauka ederragoa da zuen musika baino.
- 1. gaztea** Baina, baina, baina orduan, kontratuarena? Zergatik egin nahi diguzu kontratu hori? Autoak., kabiarrak, jakuzia... ahaztu zaizu esandakoa?
- Managerra** (*Barrez*) Zuei? Zuei kontratua egin? Ez daukat inolako asmorik.
- 2. gaztea** Ez dut ezer ulertzen. Tipo honek zoroetxe batetik ihes egin duela susmatzen dut.
- Managerra** Oker zabiltzate. Kontratu hori sinatzea inoiz izan dudan aukerarik onena dela uste dut.
- 2. gaztea** Konturatzen zara? berriro hasi da kontratuaren kontuarekin.
- Managerra** Hasi eta amaitu egin nahi dut. Oraintxe bertan sinatzea nahi nuke. (*Loroari zuzenduz*) Aizu, loro jauna, kontratu hau sinatu nahi duzu?
- 1.-2. gazteak** (*Biak batera*) Loroari? Kontratua loroari egin nahi diozula?

- Managerra** Jakina! Telebistako izar berria bihurtu daiteke, oso umore txarra izan arren.
- Loroa** Hauxe loro azkarra! Irabazteko prest, dirua barra-barra.
- 1. gaztea** Hummm... Arazo bat daukazu, loroak ez daki sinatzen eta bere atzaparraren markak ez dizu balio izango.
- 2. gaztea** Gainera, loroa gurea da; aspaldi erosi genuen eta.
- 1. gaztea** Loroaren kontratua nahi baduzu, akordio batera heldu behar duzu gurekin.
- Loroa** Parasitoak! Parasito gehiago!
nik behar egin eta zuek kobratuko!
- 2. gaztea** Zein da zure erabakia?
- Managerra** Arrazoia duzuela uste dut (*Poltsikotik zapi bat atera eta loroari mokoa lotzen dio*) Horrela lasaiago egingo dugu berba.
- Loroa** *Grakkk...!*
- Managerra** Hemen duzue kontratua. Sinatu eta etorkizunaren bideak zabalduko dira guztiontzat.
- 1. gaztea** (*Sinatzen duen bitartean*) Ez gara berriro gose izango, etxe dotorea, arropa berriak, ohe eroso... denetarik izango dugu. Agian, musika ikasten eta guzti hasiko naiz.
- 2. gaztea** (*Sinatzen duen bitartean, loroari zuzenduz*) Hemendik aurrera, zure hitzak telebistarako gordeko dituzu. Etxean mokoa lotuta izango duzu beti. Bake santua!
- Managerra** Musika! Jarri musika! Garaipenaren musika! Agapito Burdinaurpegik dena konpontzen du! Diru ugari egongo, da, hamar milako billeteak niretzat eta pezetako txanponak zuentzat! Gora loroa, gu eta gutarrak!

KASTILLOPRANKO

Marilis Telletxea irakaslea
Txotxongiloa
San Jose gurutzearen alabak
Hondarribia
01

GAIA

GAIA: Antzezlan honetan, mutil jokalaria batek jokoan galdutako ondasunak berreskuratzeko egiten dituen ahaleginak aurkezten dira. Kastilloprankok aukera ematen dio mutilari galdu duen guztia, hiru proba gaindituz, berriz eskuratzeko.

LABURPENA: Herri txiki bateko mutil batek, azkar aberastu nahian, duen guztia galtzen du jokoan. Kastillopranko gizon aberats eta gaiztoak dirua berreskuratzeko aukera ematen dio, proba batzuk gainditzearen truke. Azkenean, probak gainditurik, dirua berreskuratzen du eta Kastilloprankoren alabarekin ezkonzen da.

PERTSONAIAK

Narratzailea
Mutila
Kastillopranko
Amona
Belea
Lehoia
Neska
Sua
Lurra
Haizea
Ura
Zuhaitz zaharra
1. zaldia
2. zaldia
Zaldia
Bi alaba gaiztoak

AGERTOKIA: txotxongiloak erabiliko dira, horretarako behar den materiala erabiliz. Atzeko aldea zuria izango da eta bertan paisaiak aldatuko dira, ekitaldiaren arabera, ikasleek marraztutako diapositiben bidez. Testuan zehar zehazten da kasu bakoitzean azalduko den paisaia.

MATERIALA: txotxongiloen agertokia, musika aparatua eta musika, ikasleek egindako diapositibak eta horiek ikusteko aparatua.

1. EKITALDIA

(Oihala altxa eta gaua da. Herri bat azaltzen da: etxeak, eliza, dendak... eta joko etxea)

Narratzailea Behin batean, munduan beste askotan bezala, herri batean mutil bat bizi zen. *(Mutila agertzen da)*. Mutil ona zen, beltzarana, galant eta prestua. Baina arazo txiki bat zuen: apunteak eginez dirua lortu, hura jokatu, eta denbora gutxian, diru asko irabaztea oso gogoko zuen. Eta badakizue zein arriskutsua den hori, ezta? *(Ikusleen erantzuna itxoin eta gero jarraitu)*

Gau batean, etxetik atera eta joko etxera joan zen, diru pixka bat jokatu eta irabazteko asmoz. Hasieran, txanpon batzuk bakarrik izan ziren; baina, gauak aurrera egin ahala, zeukan guztia galdu zuen... Une hartan, burua makur-makur eta lur jota, joko etxeko eskailerak jaisten hasi zen. Bat-batean, eskaileretan gora zihoan gizon handi batekin egin zuen topo: erraldoi bat ematen zuen, burusoila, aurpegia bizarrak estaltzen zion, lerdena eta indartsua; oso begirada gaiztoa zuen. Parean egokitu zirenean, honela esan zion mutilari ahots lodi eta sakonez...

Kastillopranko

(Ahots sakon eta indartsuz): Lasai egon hadi, mutil!... Begira..., ni Kastillopranko nauk eta lagundu egingo diat. Entzun ondo... *(poliki-poliki ahots interesgarria jarritz)* Bihar goizean nire etxera joan behar duk; baina, hori bai, nik bigarren bota jantzi baino lehen iritsi behar duk. Lortzen baduk, nik agindutako hiru proba pasa beharko dituk, eta haiek gaindituz gero, berriro hire gauza guztiak berreskuratuko dituk. Ondo iruditzen al zaik?

Mutila

(Beldurturik, ahotsa dardarka duelarik): Ba..., ba..., bai! Kastillopranko jauna. Hantxe izango naiz bihar.

(Kastillopranko ez non eta ez han, begien aurretik ezkututzen zaiou. Une hartan mutilaren bihotzean itxaropen txiki bat piztu da eta bere begirada alaitu)

Mutila *(Ahots alaiz)* Behar bada ez dago dena galduta, saiatu egin behar dut berriz dirua lortzen. Gogor egingo dut lan eta..., *(etsipena)* baina..., baina... nola joango naiz bere etxera?... Ez dit esan non bizi den!

Mutila *(Pentsakor)* Uuummm..., badakit! Herriko jendeari galdetuko diot, norbaitek jakingo du!

Narratzailea Halaxe, herrian jira eta bira, gora eta behera, ibili zen, luza-roan han eta hemen galdezka. Baina inork ez zuen erantzunik. Azkenean herriko amona zahar batekin egin zuen topo.

Mutila *(Goxo-goxo)* Aizu, amonatxo! Zuk ba al dakizu non bizi den Kastillopranko?

Amona *(Ez du ondo entzuten)* *(pertsona helduaren ahotsez)* Franko? Ez, ez, gazte, nik ez dut frankorik! Eskatu beste bati.

Mutila *(Gogorrago)* Ez, ez, ez didazu ulertu. Ea Kastillopranko non bizi den badakizun?

Amona Oiartzun? Ez, ez, ni ez naiz Oiartzungoa, ni hemen jaioa naiz.

Mutila *(Haserre)* Hau lana! *(ikusleei)* Zuek lagundu beharko didazue! Hiru zenbatu ondoren hauxe galdetuko diogu denok batera: Non bizi da Kastillopranko? ados? *(ikusleen erantzuna)*. Bat..., bi... eta hiru. Non bizi da Kastillopranko?

Amona *(Beldurturik)*: Jesus, Maria eta Jose! Beldurtu nauzu! Ez duzu buila egin beharrik. Zer uste duzu, gorra naizela ala? *(lasaiago)* Ez, ez dakit non bizi den Kastillopranko, baina

han goian dagoen mendian abere-etxe bat dago eta behar bada hango piztiaren batek jakingo du.

(Paisaia aldatzen da: mendia eta abere-etxea ikusten dira)

Narratzailea Mutila ez zen gehiegi fidatzen amonarekin baina beste auke-
rarik ez zuenez, bertara joatea erabaki zuen. Behin, han zego-
ela atea jo zuen (*ate kolpeak*) eta atea ireki zen (*ate hotsa*).
Bele beltz bat atera zitzaion...

Belea *(Belearen hotsa)* Zer nahi duk? (*gogor*)

Mutila *(konfiantzarik gabe)* Kastillopranko non bizi den jakin behar
dut eta zuek badakizuen galdetu nahi dizuet.

Belea *(Belearen hotsa)* Nik ez zekiat, baina nire anaia lehoiak
jakingo dik.

Narratzailea Beleak hala eskaturik, lehoia azaldu zen orduan. Mutila, bel-
durturik, zuri-zuri gelditu zen, halako animalia handiaren
aurrean.

Lehoia *(Lehoiaren orroa eginez)* Zer nahi duk?

Mutila ... uuuummm... bar, bar, barkatu, lehoi jauna, ba al dakizu non
bizi den Kastillopranko?

Lehoia *(Lehoi orroa)* Bai, bazakiat Kastillopranko non bizi den;
baina bide luzea zagok, eta nik hara eramatea nahi baduk, idi
bat ekarri behar didak bidean jateko.

Narratzailea Mutilak bi aldiz pentsatu gabe, isil-isilik eta zintzo-zintzo
lehoiaren agindua bete zuen. Mendira joan eta idi bat ekarri
zion. Lehoiak, ezpainak miazkatuz, honela esan zion orduan...

Lehoia Zati ezak idi hori lau puskatan, jar itzak bi nire eskuineko
hegoan eta beste biak ezkerrekoan eta eser hadi hi denen
erdian.

(Paisaia aldatzen da: zerua argiturik azaltzen da)

Narratzailea Esan eta egin. Eta guztiak gainean zituela lehoiak hegoak zabaldu zituen eta bidaiari ekin zion. Joan eta joan, joan eta joan... Halako batean lehoiak mutilari esan zion...

Lehoia Ekar ezak idi puska horietako bat.

Narratzailea Eman zion eta dena batera ahoan sartu eta irentsi zuen. Ondoren aurrera jarraitu zuten. Baina aurrerago berriz ere...

Lehoia Ekar ezak bigarren idi puska.

Narratzailea Eta hura ere, aurrekoa bezalaxe, kolpetik irentsi zuen. Modu berean gertatu zen beste bi zatiekin ere eta mutila kezkatzen hasia zen...

Mutila *(Ahopeka eta beldurrez)* Ene, ene... honek duen gosea! eta oraindik ez gara heldu! Horrela jarraitzen badu laster neu jango nau...

(Paisaia aldatzen da: urrutira Kastilloprankoren etxea ikusten da)

Narratzailea Baina bat-batean, goizalde inguruan, lehoiak esan zion...

Lehoia *(Lehoi orroa)* Ikusten al duk hango etxe hura?

Mutila *(Beldurturik)* Ba..., ba..., bai.

Lehoia Ikusten al dituk hango ate gorri haiek?

Mutila Ba..., ba..., bai.

Lehoia Ba, hantxe bizi duk Kastillopranko.

Narratzailea Mutila izugarri poztu zen, hura lasaitasuna! Lehoiak e-txeraino hurbildu zuen eta ondoren mendira itzuli zen, muti-la bertan utzita.

(Paisaia aldatzenda: Kastilloprankoren etxea gertutik ikus-ten dugu)

Mutila poliki-poliki etxeko atera gerturatu zen. Atea jo zuen *(kolpeak eta atearen hotsa)*.

**Kastillo
-pranko**

(Ahots gogorrez) Ongi etorri, mutil! Lortu duk! Oraintxe ari nauk bigarren bota janzten. Garaiz heldu haiz! Ederki, ederki... Denborarik galdu gabe hasi behar duk lanean. Entzun ezak ondo. Hauxe duk lehenengo proba: *(Poliki eta suspen-tse intonazioz)* Ikusten al duk belar zikinez beterik dagoen mendi hura?

Mutila Bai.

**Kastillo
-pranko**

Mendia garbitu behar duk, lehenik, eta gero garia erein. Garia handitzen denean ebaki eta jo ezak. Azkenik, lortutako irinarekin opila egin eta goizeko hamaiketarako nire mahaian jarrita nahi diat. Ulertu al duk?

Mutila *(Harrituta eta beldurturik)* Nola? Ulertu, bai, ulertu dut; baina hori ezinezkoa da. Nola egingo dut ordu batzuetan hilabeteetan egiten den lana?

Narratzailea Kastilloprankok barrez alde egin zuen, barre gaizto eta maltzurrez; eta mutila etsiturik gelditu zen, lur jota.

Mutila *(Ia negarrez)* Ezinezkoa da. Ezin dut ezer egin. Bukatu da dena...

Narratzailea Lurrean eseri eta eskuekin begiak estaliz negarrez hasi zen.

Bitartean pixkanaka neska eder bat gerturatu zen. Oso polita zen, ilehoria, irribarre goxoa, begirada zintzoa... Mutilaren egoera ikusiz honela galdetu zion...

Neska Zer duzu, mutil? Zergatik hainbeste negar?

Mutila (*Burua altxatu eta harriturik*) Nor zara zu?

Neska Ni Kastilloprankoren alaba naiz.

Mutila Zer? Ederki gaude! Lehen aita eta orain alaba! Ezin dut gehiago!

Neska Zer gertatu zaizu, ba, nire aitarekin?

Mutila Jokoan galdutako dirua berreskuratzeko aukera eman zidan, baina nire esperantzak suntsitu ditu hasieratik, ezinezkoa den proba bat agindu baitit.

Neska Ez da, ba, garia eta opilaren proba izango, ezta?

Mutila Horixe bera!

Neska Zaude lasai, nik lagunduko dizut.

Mutila Zuk? Baina orduan zure aitaren aurka jokatuko duzu?

Neska Begira, etxean aitarekin haren hiru alabak bizi gara. Aita eta bi ahizpak oso gaiztoak dira eta jendeari min ematea dute gustuko. Niri, ordea, ez zait ondo iruditzen, eta zuri laguntzeko prest nago, zuk nahi baduzu.

Narratzailea Une hartan mutila erabat txunditurik eta liluraturik gelditu zen. Nola esango zion ezetz halako neska ederrari?

Neska Entzun ondo. Ni naturaren laguna naiz. Horregatik sua, lurra, airea eta ura laguntzaile ditut. Haiekin edozein proba gaindituko dugu. Goazen aitak esan dizun mendi horretara.

(Paisaia aldatzen da: mendia azaltzen da)

Narratzailea Poliki-poliki igo ziren eta bertan zeudela...

Neska Naturaren osagaia zaren sua, ager zaitez, mesedez, zure laguntza behar dugu eta. *(ikusleei)* Dei ezazue nirekin... suaaa!, suaaa!...

Sua Bai?... Nor dabil hor?... Zer nahi duzu?

Neska Aitaren agindu bat betetzeko, mendia garbitu behar dugu eta bertan dauden belar zikinak erretzea nahi nuke. Lagunduko al diguzu?

Sua Zure nahia berehala beteko dut.

(Paisaia aldatzen da: mendia sutan agertzen da)

Narratzailea Eta suak, han eta hemen zabalduz, mendia garbitu zuen.

(Paisaia aldatzen da: mendia garbiturik azaltzen da)

Neska Orain mendingo haziak ereingo ditugu; eta lurrari garia azkar hazteko esango diogu. *(ikusleei)* Dei diezaiozun denok batera lurrari: lurraaa!..., lurraaa!...

Lurra Nor ari zait deika? Kaixo, neska eder hori! Zer nahi duzu?

Neska Zure barruan haziak sartu ditugu eta normalean baino azkarago garia jaio eta heltzea nahi genuke. Lagunduko al diguzu?

Lurra Bai, noski! Indar egingo dut eta, haziei ura eta behar dutena emanez, gari ederra izatea lortuko dut.

(Paisaia aldatu da: mendia gariz beteta azaltzen da)

Narratzailea Esan eta egin! Gari ederra jaio zen minutu gutxiren ondoren.

- Mutila** Baina orain gari guztia ebaki behar dugu, eta ikusi al duzu zenbat dagoen?
- Neska** Lasai egon zaitez. Haizearen laguntzaz ebakiko dugu garia. Ea haizeak laguntzea lortzen dugun! (*ikusleei*) Dei diezaio-gun denok: haizeaaa!..., haizeaaa!...
- Haizea** (*Haize hotsa entzuten da*) Nork deitzen nau? Hara, zu al zinen? Zer dela eta dei horiek?
- Neska** Begira, mendian jaiotako gari hori dena ebakitzeko zure laguntza behar dugu. Saiatuko al zara, mesedez?
- Haizea** Zure esanetara. Oraintxe bertan.

(*Paisaia aldatzen da: mendian garia ebakita agertzen da*)
- Narratzailea** Haizeak putz eta putz egin zuen eta garia ebakitzea lortu zuen (*haize hotsa entzunez*).
- Mutila** Zure lagunei esker orain garia hartu, irin pixka bat prestatu eta labean goxo-goxo zure aitak eskatutako opila egingo dugu.

(*Paisaia aldatzen da: Kastilloprankoren etxeko sukaldea azaltzen da*)
- Narratzailea** Une hartan neska desagertu egin zen; eta mutilak, Kastilloprankoren etxeko sukaldera joan eta, garitik ateratako irinarekin opil goxo-goxoa egin zuen labean. Kastillopranko sukaldera gosaltzera heldu zenerako, mahai gainean jarrita zegoen.
- Kastillo-pranko** Harriturik utzi nauk. Ederki, ederki, lehen lana egin duk. Hala ere, orain bigarrena egin behar duk. Entzun ondo: etxean hiru zaldi zaudek, hirurak hezi gabe; eta oso arrisku-tsuak dituk; gaur arratsaldean hezi behar dituk hirurak.

Narratzailea Mutila oso triste gelditu zen berriz ere. Nola lortuko zuen animalia basati haiek heztea? Guztia bukatu zela uste zuen unean neska ederra agertu zen berriz ere.

Neska Lasaitu zaitez. Entzun dut aitak zer agindu dizun. Begira, hiru zaldi horiek nire aita maltzurra eta bi ahizpa gaiztoak dira. Zaldi bihurtzeko boterea dute eta oso arriskutsuak dira. Mendian dagoen zuhaitz zahar eta jakintsuari eskatuko diogu laguntza. Goazen azkar!

(Paisaia aldatzen da: mendia azaltzen da)

Narratzailea Biak, berriro ere, mendira igo eta zuhaitz zaharrarengana hurbildu ziren.

Zuhaitza Kaixo, bikote! Zer dela eta zatozte zuhaitz zahar hau ikustera?

Neska Hiru zaldi arriskutsu hezi behar ditugu eta zure laguntza behar dugu horretarako. Zu hain jakintsua izanik..., ba...

Zuhaitza Hori erraza da. Ikusten al duzu nire adar luze eta lodi hori? Har ezazu. Adar horrekin makila eder bat egingo du zurekin dagoen mutilak. Ondoren makila hori erabil ezazu zaldi gaizto horiei egurra emateko. Ikusiko duzue nola mantsotuko dituzuen!

Narratzailea Halaxe egin zuten. Adar sendoa hartu, makila itxura eman eta hiru zaldiak zeuden esparrura joan ziren. Hantxe zeuden hiru zaldiak, handiak eta arriskutsuak.

(Paisaia aldatzen da: esparrua azaltzen da zelaian)

1. zaldia *(Irrintzia)* Hemen ditugu... prest al zaudete ostikoak banatzeko?

2. zaldia *(Irrintzia)* Ostikoak bakarrik? Nik koska egingo diet!

3. zaldia *(Irrintzia)* Ba..., ba..., nik oinak zapalduko dizkiet.

Narratzailea Hura izan zen hura iskanbila eta borroka! Irrintziak, ostikoak, builak, makilakadak... Baina azkenean makila indartsuak emandako kolpeen ondorioz, zaldiak lehertuta geratu ziren.

1. zaldia (*Irrintzia*) Hau mina, ezin dut gehiago!

2. zaldia Ba, ni ezin naiz zutik egon.

3. zaldia Hau kolpe pila, ez dut hezur bat ere bere tokian!

Narratzailea Neka-neka eginda, neska ezkutatu egin zen, eta mutila etxeko sukaldera joan zen berriz ere. Hantxe zuen zain Kastillopranko.

(Paisaia aldatzen da: etxeko sukaldea agertzen da berriz)

**Kastillo
-pranko**

Hire lana ikusi diat eta ongi hezi dituk zaldiak. Baina orain probarik zailena gelditzen duk. Hara bada, nire alaba gazteenari eraztun bat erori zitzaion itsasoaren erdira orain dela denbora asko. Eraztun hura bilatu eta ekarri egin behar duk. *(Eta hori esan ondoren desagertu zen)*

Mutila Hori ezinezkoa da. Galduta nago! Nola aurkituko dut itsasoaren erdian galdutako eraztuna?

Narratzailea Azken proba hartarako ere, aurrekoetan bezala, neskaren laguntza izango zuen.

Neska Hemen nauzu berriz ere. Proba gogorra jarri dizu oraingoan aitak, baina bion artean gaindituko dugu. Ikusiko duzu.

Mutila Zer egin behar dut?

Neska Modu bakarra dago proba hori gainditzeko. Baina ongi entzun, bestela gaizki aterako zaigu eta. Ikusten al duzu hor dagoen aizkora hori? Aizkora horrekin zati txiki-txikitan zatituko nauzu; eta nire odol gutzia, tantarik utzi gabe, boti-

la batean sartu eta kortxo batekin estaliko duzu. Ondo itxita, ahoz behera itsasora botako duzu. Jarraian botila pil-pil agertuko da itsasoaren gainean eta bertan kortxoari lotuta aurkituko duzu nire aspaldiko eraztuna. Azkenik, botilako odola nire haragi zatien gainera isuri ezazu eta berriz lehen-go itxura hartuko dut.

Narratzailea Mutila, hura entzutean, negarrez hasi zen. Neskaren bihotz zabala ikusirik, maiteminduta zegoela konturatu zen. Nola egingo zuen halako astakeriarik?

Mutila Ezin dut zuk eskatutakoa egin, gehiegi maite zaitut horretarako.

Neska Zaude lasai! Pausu guztiak ondo egiten badituzu, ez zait ezer gertatuko.

Mutila Eta itsasoak botila eramaten badu?

Neska Begira, lehenik, urarekin hitz egingo dugu eta itsasoa bare-bare mantentzeko eskatuko diogu. (*ikusleei*) Dei diezaiogun denon artean: uraaa!..., uraaa!...

(*Paisaia aldatzen da: hondartzan daude, itsaso aurrean*)

Ura (*Itsasoaren soinua*) Zer gertatzen da? Zer dira buila horiek?

Neska Itsasoan gordeta dagoen eraztun bat aurkitu behar dugu eta urak bare-bare mantenduko al dituzu, mesedez?

Ura Bai horixe! Zure esanetara nago.

Narratzailea Honela esan zion ondoren mutilari.

Neska Orain poliki-poliki bete itzazu pausu guztiak kontu handiz.

Narratzailea (*Itsasoaren hotsa etengabe*) Mutila neskaren esana betetzen hasi zen. Aizkoraz zati txiki-txikiak egin (*kolpeak*) eta odola

botilan sartu ondoren itsaso barera bota zuen. (*itsasoaren soinu*) Bat-batean ur gainean agertu zen botila eraztun eta guzti, neskak esan bezala. Mutilak ezin zuen sinetsi.

Mutila Ene! Hantxe dago. Hartuko dut, ba. (*Har beza*) Ea ba! orain botila hustu behar dut, haragi zatien gainean (*kortxoa ireki eta isurtzearen soinua*)

Narratzailea Mutilak odola haragi zatien gainean bota zuen eta berriz ere neska ederra bere aurrean agertu zen, baina... mutilari odol tanta bat botilan geratu zitzaion eta neska ezker eskuko atzamar txikirik gabe gelditu zen. Jarraian Kastilloprankori eraman zion eraztuna.

(*Paisaia aldatzen da: Kastilloprankoren etxeko sukaldea dugu*)

Mutila Tori, hemen duzu eskatutakoa.

Kastillo-pranko Ederki bete duk hire lana eta agindu bezala galdutako diru guztiak hemen dituk. Gainera, beste gauza bat ere proposatzen diat: nire hiru alabetako bat aukeratu eta harekin ezkontzea, zer iruditzen zaik?

Mutila Bikain! (*isil-isilik ikusleei*) Horrela, maite dudan neskarekin ezkonduko naiz. Oraintxe bertan aukeratuko dut (*ahots ozenez*).

Kastillo-pranko Lasai, txikito! Aukeratu bai, baina aukeratzeko begiak estaliko dizkiat.

Narratzailea Modu hartara, Kastilloprankok bere alaba gaizto eta itsusi haietako bat aukeratuko zuela uste zuen, baina...

Mutila Ondo da. Datorrela lehendabizikoa. (*alaba zaharrena gerturatz*) Eman eskuak..., uuummm..., hau behintzat ez.

Hurrengoa, mesedez... (*bigarren alaba gerturatzeko da*) Ea, ba, esku horiek... uuummm... ez, hau ere ez.

Narratzailea Azkenean gazteena eta ederrena gerturatu zen. Honi ere eskuak hartu zizkion eta, jakina, ezkerreko atzamar txikia falta zuela ikustean...

Mutila Hauxe, hauxe aukeratzen dut!

Narratzailea Kastillopranko sutan jarri zen orduan eta alabak haserre. Baina bi gazteek elkarri heldu zioten eta handik aurrera zoriontsu bizi izan ziren elkarrekin.

LAPURRAK EZ DU ORDU JAKINIK

Ikasleak

Leire-3

Leire-2

Amaia

Mentxu

Drama

Azkoitiko Ikastola-Xabier Munibe

Azkoitia

2001

GAIA

Mutiko elbarri batek arazo batetik ateratzen ditu beste bi mutiko, nahiz eta bi horiek berarekin sartu ohi diren. Mutikoak susmagarriak ziren lapurreta batean eta elbarriak, hartatik libratuta, ezusteko lezio bat ematen die.

PERTSONAIAK

Pedro (burlaria)
Patxi (burlaria)
Koldo (elbarria)
Jon (baserritarra)
Maria (dendaria)
Ertzaina-1
Ertzaina-2
Ertzaina-3
Bi lapur
Josu Arabaolaza

1. EKITALDIA

(Agertokia: Plaza bat. Eskuinean, parkea, atzeko aldean portura joateko bidea duela. Atezko ezker ertzean, dendamahai luzea, diagonalean ipinia. Ezker aurre aldetik herri bururako bidea)

1. agerraldia

-Koldo, Pedro eta Patxi-

(Koldo, elbarria, parkean dabil puzzleak egiten. Pedro eta Patxi, mutikoak, agertzen dira ezkerretik eta, pasatzerakoan, burlaz, barre egiten diote Koldori)

- Pedro** *(Patxirekin agertu, Koldori begira geratu eta burla-algaraz)*
Mutil horrek jaioberria ematen du! Hain handia eta oraindik ez du bere gorputza kontrolatzen.
- Koldo** *(Suminduta)* Aizu!, zer ari zara esaten? Zuk, berriz, zeure burua ezin duzu kontrolatu. Ez dakit nola jardun zaitezkeen inori burlaka!
- Pedro** Goazen hemendik, Patxi, *(Ironiaz)* hemen ez dago jolasterik eta.*(Patxi eta Pedro eskuinetik doaz)* *(Geroxeago Jon base-rritarra agertzen da, ezker aldetik)*

2. agerraldia

-Koldo, Jon eta Arrantzalea-

(Koldo Anari-ren abestiren bat kantatzen)

- Jon** *(Ezkerraldetik agertu eta Koldorengana hurbildurik)* Aizu!
- Koldo** Zer nahi duzu, jauna?
- Jon** Hemen inguruan ba al dago janari dendarik?
- Koldo** Janari denda... Ez dakit, ba... *(Eskuinetik agertu den arrantzalea ikustean)* Hara! Arrantzaleak jakingo du.
- Arrantzalea** *(Bere izena entzutean)* Arratsalde on!
- Jon** Hala ekarri!
- Koldo** Baita zuri ere!
- Arrantzalea** *(Joni)* Zer jakin nahi zenuen?
- Jon** Ba al dakizu non dagoen...

Koldo *(Tarteratuz)* Janari denda baten bila dabil.

Arrantzalea Ez zabilta urruti.

Jon Ez, e?

Arrantzalea Begira! *(Erakutsiz)* Plaza ertzeko denda hori ikusten al duzu?

Jon Bai!

Arrantzalea Ba, ez da denda handia, baina denetik saltzen dizute hor.

Jon *(Buruari eraginez)* Garesti samar, igual...

Arrantzalea Ez, ez! Modu onean daukate dena.

Jon Eskerrik asko!

Arrantzalea Agur!

Koldo Gero arte!

(Arrantzaleak ezkerretik alde egiten du, Jon dendara doan bitartean)

3. agerraldia

-Koldo, Jon eta Maria (dendaria)-

Jon *(Denda-mahaira hurbildu eta dendariari hoska)* Eup! Ba al da inor hemen?

Maria *(Barrutik)* Baaai! Oraintxe noa. *(Agertuz)* Zer nahi duzu?

Jon Urdaiazpikoa, 100 gramo.

Maria Zein klasetakoa?

- Jon** Kampofrio; baldin badaukazu, behintzat.
- Maria** (*Atzeko apaletik hartu eta emanaz*) Besterik?
- Jon** Fideo pakete bat eta hiru bat pakete saltxitxa.
- Maria** (*Barrura doa bila*) Oraintxe!
- Jon** Onak izan daitezela, e?
- Maria** (*Barrutik*) Hemen ez dugu ezer txarrik saltzen. (*Agertu eta emanaz*) Besterik?
- Jon** Ez. Baina galderatxo bat egin nahi nizuke.
- Maria** (*Zorroa emanaz*) Egin, ba.
- Jon** (*Irribarretsu*) Ba al dakizu oso polita zarela?
- Maria** (*Haserre*) Aizu, adiskide! Adarra jotzera kalera, e!
- Jon** Ez da horrela jartzekoa, emakumea. Baina banoa, banoa!
(Abiatu egiten da, bere zorroarekin)
- Maria** (*Istiluka*) Ederki eman ere!
- Jon** (*Aztoraturik itzultzen da*) Zeeer?
(Koldo ere hurbiltzen doakie, trikili-trakala, zer ikusi eta entzungo)
- Maria** Hemen ez ditugula janariak opari ematen!
- Jon** (*Zorroa mahai gainean utzi eta kartera atereaz*) Zenbat zor dizut?
- Maria** Bi mila eta bostehun pezeta.

- Jon** Horrenbeste, huskeria honengatik?
- Maria** Ez da huskeria! Zuk eskatutako guztia da.
- Jon** *(Zorroa erakutsiz)* Bi mila eta bostehun, honengatik?
- Maria** Zuen babarrunak garestiago jan behar izaten ditugu. Beraz, ordaindu zor duzuna eta alde egizu hemendik!
- Jon** *(Ordainduz)* Barka iezadazu. *(Damuz)* Broma astunegia egin dizut, agian.
- Maria** Barkatua zaude, baina zoaz ordu onean!

(Aztoratua, zalapartan abiatu denean, Koldorekin estropezu egiten du. Askoz asalatuago, noraezean geratzen da)
- Koldo** Ai, ai, ai! Ez al dakizu kontuz ibiltzen? Min eman didazu.
- Jon** Barkatu, mutikoa. Gaur ez dut ezer onik egiten!
- Koldo** *(Buruaz zalantza-keinua eginez)* Esango nuke!
- Jon** Bai, egun txarra daukat gaur eta banoa lehenbailehen etxera.
(Bihoa ezker aldetik)

(Koldo eskuinerantz abiatzen da, Pedro eta Patxi burlariekin egiten du topo) (Patxik eta Pedrok bidea ixten diote)

4. agerraldia

-Koldo, Patxi eta Pedro-

- Patxi** *(Harroxko, burlaka)* Arraxt!, arraxt! Noiz alde egin behar diguk begien aurretik?
- Koldo** Utz nazak bakean, gizajo horrek!

- Pedro** Bai, ikusi nahi duguna aurkitu ezin eta ikusi nahi ez duguna, berriz, aurretik ezin kendu!...
- Koldo** Nik ere ez zaituztet zuek ikusi nahi, baina hemen zaudete orain ere, beti bezain harro!
- Patxi** *(Ukabila jasoz)* Ez duala berriz esaten!
- Koldo** Zer?
- Pedro** *(Bultzatuz)* Esan ezak, orain, zein den harroa!
- Koldo** Zer, aurrena burla egin eta orain jo egin behar al nauzue? Hori duk hori balentria! Bi mutil indartsu elbarri bat jipoi-tzen!...
- Patxi** Goazemak, Pedro! *(Mespretxuz)* Addo, balddar! *(Bihoaz ezkerretik)*
- Koldo** *(Atzetik pixka bat jarraituz)* Nahiago diat naizen bezain bal-dar izan, zuen buruko aberia eduki baino. *(Eskuinerantz abiatzen da)* *(Berekiko)* txoro kaskarinak, ez besterenak! Eskarmentatuko dituk halakoren batean!
- (Berehalaxe, Jon agertzen da ezkerretik, dena urduri)*

5. agerraldia

-Koldo, Jon eta, geroxeago, Ertzaina-

- Jon** *(Hoska)* Hi, mutiko!
- Koldo** *(Itzuli eta larri)* Zer gertatzen zaizu, jauna!
- Jon** Inor ikusi al duk hemendik presaka pasatzen?
- Koldo** Zein aldetatik?

- Jon** Neu natorren aldetik.
- Koldo** *(Pentsatzen egon ondoren)* Ez! Oso urduri zaude!
- Jon** Lapurreta egin zidatek.
- Koldo** Asko?
(Ertzaina 1 ezkerretik agertu eta hurbiltzen zaie)
- Jon** Beno, nahikoa, lehentxeago erosi ditudan janariak eta... kartera.
- Ertzaina 1** *(hurbildu eta azken hitzak entzun dituelarik)* Zuri lapurtu dizute, orduan?
- Jon** *(Harriturik)* Bai. Baina, nola jakin duzu, nik ez diot inori esan eta?
- Ertzaina-1** Emakume bat etorri zaigu, leihotik lapurreta bat ikusi duela esanez.
- Jon** *(Jakin minez)* Ezagutu al ditu?
- Ertzaina-1** Ez. Gizon bat lurrean eta beste bi ihesi joaten ikusi omen ditu.
(Koldo puzzlea biltzen hasten da)
- Jon** Ondo ikusi du. Horrelaxe gertatu da.
- Ertzaina-1** Ez du, ordea, inor ezagutu eta pistaren bat ateratzen ote dudan edo, buelta bat ematera irten naizenean, zu ikusi zaitut urduri eta...
- Jon** Urduri ez dakit, baina amorrazio ederrarekin behintzat bai.
- Ertzaina-1** Kartera kendu dizutela entzun dizut. Zenbat diru zeneukan?

- Jon** Hoge milako!
- Ertzaina-1** Bada amorrarazteko haina!
- Koldo** *(Puzzle kaxa besapean duela, ezkerretik abiatuz)* Ni banoa e-txera.
- Jon** Ondo joan!
- Ertzaina-1** txintxo ibili!
- Koldo** Bai, bai! *(Desagertzen da)*
- Ertzaina-1** Goazen, orain, Ertzaintzara.
- Jon** Ertzaintzara?
- Ertzaina-1** Bai. Zeure argibideak eman eta salaketa jarri behar duzu. Hala nahi baduzu, behintzat.
- Jon** Bai, noski! *(Abiatuz)* Nola ez? Goazen.
(Ezkerretik doaz hauek ere) (Doazela, argiak itzaltzen doaz)

2. EKITALDIA

Agertokia: Ertzaintza. Bulego-mahaia bere aulki eta guzti, beste aulki batzuk ere inguruan dituela. Ezkerrean atarirako bidea. Eskuinean, berriz, kalabozorakoa.

1. agerraldia

*-Ertzaina-1 eta Jon-
(Oihala zabaltzean, Ertzaina-1 zerbait idazten ari da mahaian, buruari eragin eta ez tul batzuk ere eginez. Berehalaxe agertzen da Jon ezkerretik)*

- Jon** (*Kanpotik*) Egun on!
- Ertzaina-1** (*Ezkerrerantz begira, ozen*) Sar zaitetz aurrera, Jon. (*Idazten jarraitzen du*)
- Jon** (*Agertu eta pixka bat aurrera egin ondoren*) Nirekin egon nahi duzula esan dit beste ertzain batek.
- Ertzaina-1** Bai. Itxoidazu (*Idazkia seinalatuz*) hau bukatu arte. (*Jon hara eta hona hasten da ikusmiran*)
- (*Berehala bukatu du Ertzaina-1ek bere lana eta...*)
- Ertzaina-1** Eser zaitetz, Jon.
- Jon** (*Ezker aldeko aulkian eseriz*) Ba al dugu berriren bat?
- Ertzaina-1** Beno, gauza garbirik ez oraingoz baina... Atzoko emakume-ari galdera batzuk egitera joan naiz gaur goizean eta bi gazteren izenak eman dizkit, lapurreta izan eta geroxeago inguru haietan omen zebiltzala eta.
- Jon** Aurkitu al dituzue?
- Ertzaina-1** Bai. Hementxe dauzkagu (*seinalatuz*) kalabozoan. Zuk ikus-tea nahi nuke.
- Jon** (*Urduri samar*) Zertarako? Nik ezin ditzaket ezagutu. Muturrez aurrera bota ninduten, eta ni zer gertatu zen ohartu eta jaikitzerako, han ez zen inoren arrastorik. Beraz, ez nituen ikusi.
- Ertzaina-1** Ez, baina horiek ez dakite hori. Ukatu egiten dute, eta ordu horretan Koldorekin, badakizu, gurekin egon zen haur elbarriarekin, egon zirela esaten dute.
- Jon** Eta zuk ez diezu sinesten!

- Ertzaina-1** Hots egin diot Koldori ere eta laster da hemen. Baina ez dut uste haren testigantza beharrik izango dugunik.
- Jon** Ez, e?
- Ertzaina-1** *(Eskuinera abiatuz)* Ikusiko duzu, zu ikustean nola aitortuko duten! *(Desagertu egiten da)*
- Jon** *(Berekiko)* Ertzaina seguru dago, baina niri errazegi iruditzen zait.*(Bi mutikoekin, berehalaxe dator Ertzaina-1)*

2. agerraldia

-Lehengoak, Patxi eta Pedro-

(Jonen aurrez aurre jartzen ditu mutikoak)

- Ertzaina-1** Ea! Ezagutzen al duzue jaun hau?
- Patxi** Bai.
- Pedro** Jon baserritarra da.
- Ertzaina** Non gorde duzue gizon honi lapurtu zenioten dirua?
- Patxi** Guk ez dugula lapurretarik egin. Guk plaza aldera antxintxika joaten ikusi genuen Jon.
- Pedro** Jon, esaiozu ez ginela gu izan!
- Jon** Ez zekiat, ba!... Ni lurreen geratu ninduan eta...
(Koldo agertzen da ezkerretik)

3. agerraldia

-Lehengoak eta Koldo-

Koldo *(Kanpotik)* Egun on!

Ertzaina-1 Sartu aurrera, Koldo!

(Denak aterantz begira)

Koldo *(Ezkerretik agertuz, uste gabetua)* Zer pasatzen da?

Ertzaina-1 Badakik Jonena?

Koldo Lapurreta egin ziotela.

Ertzaina Eta...*(Patxi eta Pedrorengatik)* lapurrak...

Koldo *(Algaraz)* Merezi zenuten hau. *(Ertzainari)* Eta ni zertara ekarri nauzu?

Ertzaina-1 Ordu hartan hirekin omen zeudean.

Koldo *(Ironiaz)* Koño! Han zer gertatu zen kontatzea nahi al duzue?

(Patxi eta Pedro buru makur)

Ertzaina-1 *(Koldori)* Zer gertatu zen?

Koldo Ezer ez! Gure arteko kontuak dira.

Pedro *(Orain ausart Koldori)* Hik badakik guk ez genuela lapurretarik egin.

Koldo *(Ertzainari)* Egia dio. Ezin dut esan lagun onak direnik, baina ez dira lapurrak.

- Ertzaina** *(Bi mutikoei) Zoazte, orduan, libre zaudete.*
(Patxi eta Pedro Koldorengana hurbildu eta bizkarretik helduz)
- Pedro** Barkatu eta eskerrik asko!
- Patxi** Hemendik aurrera, lagunak izango gaituk.
- Koldo** *(Bizkarra astinduz, eskuak kenaraziz, zakar) Zoazte antzarrak ferratzera!*
(Patxi eta Pedro joatearekin batera, bi ertzain sartzen dira, lapur bana eskumuturretik lotuta dakartela)

4. agerraldia

-Ertzaina-1, Jon, Koldo, Ertzaina-2, Ertzaina-3 eta bi lapurrak-

- Jon** *(Koldori) Benetan poz hartu diat horiek ez direla jakitean.*
- Ertzaina-2** *(Harro) Harrapatu ditugu.*
- Ertzaina-3** *(Barrez) Goiko Kalen ari ziren, kotxe bat lapurtu nahian.*
- Ertzaina-1** Nongoak dira?
- Ertzaina-2** Donostiarrak.
- Ertzaina-3** Dena aitortu dute.
- Ertzaina-1** Sar itzazue kalabozoan.
- Ertzaina-2** *(Daramatzatela) Hauek ez diote kartzelari beldur handirik.*
(Ezkerretik desagertzen dira)
(Beste hirurak barrez, geratzen dira, argiak itzaltzen diren bitartean)

LAU ANAI ETA BASERRIA

Idazleak: 6. Maila
Iñaki Otaegi Etxeberria
Eneritz Lizarralde Aizpurua
Aritz Izagirre Alustiza
Drama
Aizarnako h.i.
Aizarna
99/00

GAIA

Baserrian lau anaia umezurtz bizi dira. Zaharrenak 19 urte besterik ez du, baina ez zaio buruhausterik falta: Mikel eta Joan alfer hutsak dira. Tomax langilea atera da, baina 12 urte besterik ez du. Nahiko lan etxea aurrera ateratzen...

PERTSONAIAK

Patxiku (zaharrena, 19 urte)
Joan (bigarrena, 17 urte)
Mikel (hirugarrena, 15 urte)
Tomax (gazteena, 12 urte)
Amaia (auzokidea)

EKITALDI BAKARRA

AGERTOKIA: Baserri baten ataria. Ikuslearen aurrez aurre: baserria bera, ezkerralde samarrean atea (benetakoa, gaina eta azpia bereiziki itxi eta ireki dakizkiokeena) eta eskuinean ur-aska (marraztua) dituela. Eskuin aldera: basoa. Erdi inguruan: harrizko mahaia. Ezker aldera: soroetarako eta auzorako bidea.

1. agerraldia

Patxiku bakarrik. Ataria garbitu eta mendiko lanetara irteteko tresneria prestatzen.

Patxiku

(Marmarrean) Bazekiat, zaharrena naizenez, nire senideen ardura neure gain hartu behar dudala. Eta hala egiten diat.

Baina, besteak ere geroz eta handiago ari dituk egiten eta... Jan eta gastatu, berriz, nik adina edo gehiago egiten ditek... Gainera, etxeko ardura nagusia niri dagokidan arren, bakoitzak berea, bere neurrikoa noski, hartzen ikasten ez badik, sekulan ez dituk taxuzko pertsona izatera helduko... Niretzat aspaldi jo zian iratzargailuak; baina beste horiek ez dituk oraindik jaiki! (*Anaiei, bero-bero eginda*) Zer? Gaur ez al duzue jaikitze asmorik, ala? Zer nahi duzue, baldekada bat urarekin joatea edo asun sorta batekin, e?

(*Tomax agertzen da aurrena eta gero, beste biak, lau anaiak gosaltzen jartzen dira*)

2. agerraldia

- Tomax** (*Etxeko atetik agertuz, lotsatuta bezala*) Zer ari haiz hor mar-marrean? Auzoko guztiak beldurtuko dituk. Ni ere hementxe ari nauk gosaria prestatzen, estimazio handirik ematen ez badidazue ere.
- Patxiku** Ez ninduan hiregatik ari. Hamabi urte besterik ez duk eta hala ere heu haiz denotan finena. (*Etxeko leihora begira*) Beste bi alferrontzi horiengatik ari nauk.
- Joan** (*Leihotik agertuz*) Oraintxe jaitsiko gaituk. (*Ezkatatu*)
- Mikel** (*Leihotik*) Gosaria prestatu al duk, Tomax?
- Patxiku** Lotsa pixka bat baldin bahu, isil-isilik behera jaitsi eta, sukaldean laguntzen hasi beharko huke.
- Tomax** Alferrik ari haiz, Patxiku. Utziek! Nagikeriak jota zeudek, gure maisuak esaten duen bezala.
- (*Joan eta Mikel agertzen dira, begiak igurtziz eta aho-zabal-ka, etxeko atetik Tomax hizketan ari dela*)

- Mikel** (Tomaxi) Noiz bukatzen zaizkik oporrak?
- Tomax** Geldi, hi! Urrian biltzen dituk gaztainak eta uztailaren erdian gaudek oraindik. Sukaldera noak. (*Bihoa*)
- Joan** Galdera inozoagorik...! Hiri ere garai berean bukatuko zaizkik oporrak, ez?
- Mikel** Igual ez nauk gehiago eskolara joango.
- Patxiku** (*Harrituta*) Zer esan duk?
- Mikel** (*Haserre*) Ez noala gehiago eskolara. Jode! gorreria al daukak?

(*Joan eta Patxiku txundituta uzten ditu*)
- Joan** (*Harridurazko txistua joaz, Patxikuri*) Gizondu zaigula mutikoa!
- Patxiku** (*Mikeli*) DBH bukatu egingo duk hik, kristo guztiak bezala.
- Mikel** (*Harro*) Zergatik? Hik agintzen dualako?
- Patxiku** (*Gutxietsiz*) Ez... Legeak agintzen duelako, mutiko, legeak agintzen duelako! Ba al dakik legea zer den? Ez, ezta? Ba jarraitu ezak eskolan gutxienez hori ikasi arte, bere garaian irakatsiko diate eta.

(*Mikelek ez dio erantzuten. Buru makur geratzen da*)
- Joan** (*Kantuz*)
Eskolara joanda
ezer ikasi ez.
Etxean oporretan
nekatzen naiz lanez.
Hauek utzi ezkerro
nora joan geinkez

harrapaturik gaude
nonahitikan legez.
Aginduz ase gaitu;
hustu eskubidez. (bitan)

Patxiku (*Harrituta*) Bertso dotorea bota duk! Nola ikasi duk bertsoan?

Joan Nola ikasiko nian, ba? Irratian entzun eta gero neure gisara jardunez.

Mikel (*Gustatu zaio bertsoa. Irribarrez*) Utz itzazue bertsoak eta jan dezagun.

Joan Bai, nire urdaila kantari zebilek oraintxe!

Mikel Goazen, ba, orduan.

Joan (*txantxetan bultzadatxoa emanaz*) Hi joan hadi aurretik, merezi duk eta.

(*Tomax atean agertu eta besteenak entzuten*)

Mikel Hi, adarrik ez, e!

Patxiku Ea, ba, goazen.

Tomax (*Deseroso aurpegiz*) Lotsarik ez al duzue? Mahaia ere nik jartzea nahi al duzue alferrontziok?

Mikel Lasai, motel, jarriko diagu eta!

(*Hirurak zalapartan etxera sartu eta ontziak ekarri eta mahaian jartzen dituzte. Tomaxek, besteak etxera sartu diren bitartean, zapi batez mahaia garbitzen du. Gero, besteek mahaian ontziak jartzen dituzten bitartean, sukaldera joan eta patata tortilla eder bat ekartzen du*)

- Patxiku** *(Tomax atean agertzen ikustean, Joani eta Mikeli)* Zuek mingaina astintzen nekatzen zarete, lanak guretzat utzita. *(Tomaxengatik)* Ikusten al duzue hori?
- (Tortilla ikustean, bakoitza bere tokian esertzen da)*
- Joan** Hi, Tomax, patata tortillari gatza bixi antzean botako hioen, ezta?
- Tomax** *(Mahaira inguratu)* Baaai, heure gustura.
- Mikel** Ekarki mahaira, laster probatuko diagu eta.
- Tomax** *(Zati bat eman)* On dagiala!
- Joan** Bota niri ere.
- Tomax** *(Berea eman)* Jan ezak lehertu arte.
- Mikel** Ederra zegok!
- Tomax** *(Patxikuri)* Hiri azkena; baina zatirik ederrena, lanik gehiena egiten dualako.
- Patxiku** *(Irribarretsu)* Eskerrik asko, Tomax.
- Joan** Mundiala!
- Tomax** Benetan?
- Patxiku** Bai, Tomax, benetan bikaina egin duk.
- Tomax** Eskerrik asko! Behin bada ere esan didazue zerbait ondo egin dudala.
- Joan** Gehiagotan ere esan izan diagu.

- Tomax** Ba, ez zaukaat gogoan. Jan eta isil-isilik alde egiten duzue beti.
- Mikel** Gehienetan txarra egoten duk-eta..., zer esango diagu, ba?
- Tomax** txarra dagoenean, txarra dagoela, hi, zurikerietan ibili gabe.
- Patxiku** Zerbait esan behar eta horixe esan dik. Ez iezaioke kasurik egin, gaur ganbaratik arin samar zebilek eta.
- Tomax** *(Haserre. Negarra ere ez du urruti)* Beti besteei errua bilatzen zebilek!
- Joan** Beno, nahikoa diagu.
- Patxiku** Bai, laga itzazue liskarrak gerorako, bestela mutur joka hasiko zarete eta.
- Tomax** Sukaldera noak.
- Patxiku** Ez al duk gosaldu behar?
- Tomax** Patxada hobean jango diat sukaldean *(Bihoa, bere tortillazatia platerean daramala.)*
- Patxiku** Banatu ditzagun lanak, lehenbailehen hasteko.
- Joan** Hik entresakan jarraitzeko asmoa izango duk pinudian?
- Patxi** Bai. Puska baterako lanak bazeuzkaagu han.
- Joan** Orduan, Mikelek eta nik egingo dizkiagu jatenak eta ukuiluko txukunketak.
- Mikel** Niregatik, konforme.
- Patxiku** Ederki! eta nik bakarrik jardun behar al diat pinutzarrak menderatu ezinik?

- Joan** Ez zekiat, ba, motel.
- Patxiku** Bi lagun izanda ere mina hartzeko arriskuan ibiltzen gaituk eta...
- Joan** Ea Tomaxek zer asmo daukan! (*Etixerantz hoska*) Tomax!
- Tomax** (*Atean agertuz*) Zer behar duzue orain?
- Mikel** Guri laguntzeko moduan ote haizen, esaten zian Joanek.
- Tomax** Laguntzeko moduan... Etxe honetan beti zegok zeregina. Ganbara alde hori pixka bat txukuntzeko asmoa nian, etxea pixka bat jasotakoan, atzo hala eskatu zenidaten eta.
- Patxiku** Etxegoeneko Amaiak ere gaur etorriko zela agindu zidaan.
- Tomax** Amaia ez duk gure etxean galduko, bakarrik uzten badiagu ere. Ondo asko zekik hark gure etxeko bazterren berri.
- Joan** (*Zutituz*) Nola konponduko gaituk, orduan?

(*Denak zutitzen dira*)
- Mikel** Ni joango nauk Patxikurekin pinudira.
- Tomax** Amaia etorri arte etxeko lanak aurreratzen saiatuko nauk, eta gero zelaira joango nauk, jatenetan Joani laguntzera.
(*Mahaia jasotzen hasten da*)
- Patxiku** Lagunduko diat sukaldeko lanetan, Joanek eta Mikelek oheak egiten dituzten bitartean.
- Tomax** Etxekoak utzi itzazue nire esku eta alde egizue hemendik oraintxe bertan; bestela, lanean hasi orduko, gaua helduko zaizue zuei eta.

(Bihoa bakoitza bere bidetik. Patxikuk aizkora, sokak eta abar daramatza; Joane, berriz, eskuarean)

- Patxiku** Gero arte!
- Mikel** Lapiko goxoa jarri!
- Joan** Zain egongo nauk.

3. agerraldia

Tomax bakarrik.

- Tomax** Kostatzen zaie, behintzat, etxetik aldegitia. *(Mahaia jaso, ontziak sukaldara eramane eta abar eginez)* Goizean jaiki ezin eta gauean gau-txori. “Oiloekin ohera eta txoriekin jaiki!” zio esatera zaharrak; baina gurean txori-kantuarekin oheratu eta oiloak kotaratzean jaiki, egingo liakete utziz gero. Eta okerrean, hemen dabiltean bitartean ez dutela bake onik ematen: beti zerbaiten eske, horien gutuziak asetzea beste eginkizunik etxean ez banu bezala. Oporretan omen nagok! Bai, bai... Hauek oporrak baldin badira zer ote dira lanegunak? *(Barrura doa, azpiko atea itxiz)*

4. agerraldia

-Tomax eta Amaia-

- Amaia** *(Agertu eta ingurumariak begiratzen ditu etxe inguruan inor ote dabilen edo... Azkenean, ate gainetik burua sartu eta hoska)* Egun on! Inor ba al da etxean? *(Atearen eskuin alde-
ra alboratzen da)*
- Tomax** *(Atetik irten eta, alai)* Egun on, Amaia! Zu etortzerako etxeko lanak egitekotan nintzen baina...

- Amaia** Ni zertara etorri nauk, orduan?
- Tomax** Beno, sukaldeko ontziak jaso eta oheak egin nahi nituen, Joani laguntzera joateko.
- Amaia** Bai. Bakarrik joaten ikusi diat Joan zelaira. Patxiku-eta etxean izango zirela uste nian.
- Tomax** Etxean denbora-pasa egon gabe ere, baditugu nahiko lanak etxaldeari zutik eusten.
- Amaia** Zuen etxeak ez zeukak besteren inbidiarik, motel.
- Tomax** Hala izango da, baina hori ez da etxean egonda lortzen. Ez al zaizu hala iruditzen, e?
- Amaia** Badituzue merituak, bai.
- Tomax** Zuk bai, badituzu merituak. Zu hemen bueltaka ez bazenbiltza, txukundade ederra egongo zen honezkero etxe-barru horretan.
- Amaia** Baduk zuek baino zikinagorik inguru hauetan. Nolanahi ere ez duzue niri eskerrak eman beharrik. Horretarakoxe ordaintzen didazue, ez?
- Tomax** (*Barrez*) Ez zara guk emandako ordainarekin berehala aberastuko.
- Amaia** Ume berritsua! Ateak adina maratila badituk hik beti.
- Tomax** Zeu ere ez zara berehala isiltzen, ez!
- Amaia** Beno, berriketak utzi eta has nadin lanean. (*Etxera abiatzen da*)
- Tomax** Bai, neuri ere berandutzen ari zait. Honezkero Joan zain edukiko dut eta oraindik ontziak harraskan dauzkat.

- Amaia** Utz itzak etxeko lanak nire esku eta, hoa anaiari laguntzera.
- Tomax** *(Eskuin aldetik datorren zarata entzuten)* Amaia!
- Amaia** *(Harriduraz, ateaz barrutik)* Zer?
- Tomax** Baso alde horretatik norbait dator.
- (Biak eskuinerantz abiatzen dira. Datozenak ikustean, tink geratzen dira)* *(Patxiku min hartuta dator, Mikeli bizkarretik helduta. Galtza jasota dakar eta sudur-zapi bat eskuineko zangoan lotua)*
- Amaia** *(Larri)* Ene! Patxiku!, zer egin duzu?
- (Mahaiaren ezkerreko aldean ikusleagoari begira dagon aulkian eserarazten dute, eskuin zangoa beste aulki baten gainean ezartzen diotela)*
- Mikel** *(Aulkian ezartzen duten bitartean)* Pinua ebaki eta, bultzaka ari zitzaioa, irristatu eta erori egin dun. Pinua gainera etorri zaion eta hanka harrapatu zion.
- Tomax** *(Haserre)* Alferrik baita honekin. Ez du inon arriskurik ikusten eta gero...
- Amaia** *(Mikeli)* Odol asko bota al dik?
- Mikel** Ez.
- Patxiku** Urratu bat besterik ez dinat.
- Amaia** Tomax? Oxigenatua eta merkromina ekar itzak.
- Tomax** *(Abiatuz)* Oraintxe bertan! *(Atetik)*
- Joan** *(Urrutitik)* Tomax!

- Tomax** (*Ezkerraldera*) Zer?
- Joan** (*Urrutitik*) Zer demonio! Noiz etorri behar duk?
- Tomax** Patxikuk min hartu dik.
- Joan** Zer?
- Tomax** Patxikuk min hartu duela.
- Amaia** (*Zapia askatu eta kenduz*) Joño! larru-azala ederki marrakatu daukak, bai!
- Mikel** Eskerrak han gertatu naizen.
- Patxiku** Bai. Arbola ez zuan handia, baina gaizki ibiliko ninduan haren azpitik hanka ateratzen.
- Tomax** (*Agertuz*) Benda-trapu batzuk ere ekarri egin ditut.
- Amaia** (*Hartuz*) Ondo egin duk.
- Joan** (*Agertuz*) Min handia al du?
- Patxiku** Ez diat ezer. Trapua ugari.
- Amaia** Hautsirik ez dik behintzat, eta oraingotik aterako duk.
- Joan** (*txantxetan*) Hik badakik, bai, mina noiz hartu.
- Mikel** (*txantxa jarraituz*) Sendatzeko esku goxoak etxean daudenean, zera!
- Tomax** Azkenean, ontziak eta oheak Tomaxentzat! (*Etixerantz doa*)
- Patxiku** Berriketak utzita zoazte zuek ere. Mikel, hoa Joanekin.

- Mikel** Pinudian bazeukaat nik nahiko lan ebakitakoak bidera ateratzen.
- Tomax** Berehalaxe joango natzaio ni Joani laguntzera.
(*Barruan ezkututzen da*)
- Joan** (*Ezkerretik abiatuz*) Gero arte.
- Amaia eta Patxiku** Bai, gero arte!
- Mikel** (*Eskuinetik abiatuz*) Aizkora txikia lehengo lekuan utzi al duk?
- Patxiku** Bai, bai.
- Mikel** Konponduko nauk, orduan. (*Bihoa*)
(*Amaiak zangoa lotzen dion bitartean, begirik kendu gabe dagokio Patxiku, irribarretsu*)
- Patxiku** (*Goxo*) Etxe honek badu zure beharra.
- Amaia** Ez dakit nire beharrik duen, baina pozik etortzen naiz. Gustatzen zait etxe hau.
- Patxiku** (*Inozo aurpegia jarritz*) Etxea bakarrik?
- Amaia** (*Irribarretsu, Patxikuri begietara luzaro begira*) Etxekoak gehiago. Batez ere, etxeoetan bat.
- Patxiku** (*Irrikaz, begietara*) Esan iezadazu nor den, (*bihotzari helduz*) bestela leher egingo dit eta.
- Amaia** Tontoa! Nor izango da, ba? Hauxe! (*Masailean musu luze xamarra ematen dio*)

(Tomax agertzen da etxeko atetik eta musu bete-betean harrapatzen ditu)

Tomax Hankako minarentzat lasaigarria hartzen, e, Patxiku?

Patxiku Hanka sendatzeagatik eskerrak emateko modua duk. *(Jaiki eta Amaiari bizkarretik heltzen dio)*

Tomax *(Barrez)* Bai, bai. Ez zegok modu aproposagorik eskerrak emateko.

Amaia *(Etxerantz abiatuz)* Oraintxe gindoazen etxera.

Tomax Lapikoa ipinita dago. Pixka bat begiratu, erre ez dadin. Gelak eta arropa, berriz, zure esku utzi ditut, Amaia.

Amaia *(Atetik)* Zoaz lasai, Tomax, gu konponduko gara eta. *(Etxera sartzen dira)*

Tomax Badakit, bai, konponduko zaretela! Baina, Patxiku! *(Barrez)* kontuz jolasean hanka horrekin.

Negu ilunak berekin dakar
ondoren udaberria.
Egun tristeak ahazten goaz,
hala nago igarria.
Hosto zaharrak orbeldu ziren,
jaio da kimu berria:
horra, Patxiku eta Amaia,
bikote zoragarria.
Hauei eskerrak aterako da
onik gure baserria.

MAMBRUREN ZAIN

Ikasleak/Irakasleak
Ipuin antzeztua
Sallabente ikastetxea
Ermua
01

GAIA

Mamburu, herriko zuhaitz bakarra, lapurtu egin dute. Herriko jendea, zuhaitzak beharrezkoak direla ulertuta, haren bila hasiko da.

1. EKITALDIA

HASIERAKO EGOERA: Oihala igotzean herri bateko plaza ikusten ari gara. Goiza da. Edozein tokitan zulo bat dago, eta bertan Mamburu zuhaitza landatuta. Txoripinto, txori baten itxura duen pertsonaia, oso goibel agertzen da antzez tokian.

1. agerraldia

-Txoripinto. Berehala: Udaltzainak, Amaia eta Jose Mari-

Txoripinto Ai ene! Zorte txarra nirea! Orain, nork kontsolatu ahal izango nau? Zuek zuen gelako borragomekin ezin izango duzue nire mina ezabatu. Ni oso zoriontsua nintzen zeren eta Mambururen goiko adarretatik Eguzkia, hodeiak, ilargia, hegazkinak... agurtzen nituen.

Herriko udaltzainak, Amaia eta Jose Mari, plazara ailegatzten dira.

Jose Mari Kaixo, Txoripinto! Ze demontre gertatzen zaizu? Negarrez zaudela ematen du.

Txoripinto Ai Jose Mari! Arrazoi duzu eta ez da gutxirako.

- Jose Mari** Baina, esan! Dakizunez, gu herrikoei laguntzeko gaude.
- Txoripinto** Begira ezazue zuen ingurutik eta berehala konturako zarete gertatukoaz.
- Amaia** Aiba! Non dago Mamburu? Ez dago bere betiko tokian.
- Txoripinto** Bai Amaia, Mamburu zuhaitza lapurtu digute. Bera zen herriko zuhaitz bakarra. Besteak, kutsaduraren ondorioz, desagertu egin ziren.
- Jose Mari** *(Ikusleei begiratzeko)* Ba al dakizue nork lapurtu duen? lapurra ikusi zenuten? Altua? Baxua? Lodia... ? Nolakoa zen?
- Txoripinto** Mamburu oso polita zen. Berde, berdea urtean zehar. Hitz egiten zuela ematen zuen. Mirenek amatxo bat bezala zaintzen zuen Mamburu. Egunero ureztatu eta garbitu egiten zuen. Gabonetan adar zaharrak kentzen zizkion eta kolore guztietako argiz. janzten zuen.
- Amaia** Miren, Mamburu lapurtu dutela jabetzen denean, penaz hilko da.
- Txoripinto** Ba, hortik dator Miren. Nik ezin diot ezer esan.
- Miren, eskuinetik, Txoripintori eta udaltzainei hurbiltzen zaie. Beti bezala oso pozik dago.*

2. agerraldia

-Lehengoak eta Miren-

- Miren** Egun on, lagunok! Zer arraroa hain goiz plazan ikustea?
- Txoripinto** Egun on, Miren! Hemen gaude hizketan.
- Miren** Baina, itxura tristea daukazue. Zer gertatzen zaizue?

- Amaia** Lasai, Miren. Ez da ezer gertatzen, benetan.
- Miren** Esango nuke baietz eta ez didazuela esan nahi. Amets txar bat eduki duzue ala?
- Txoripinto** Ez da hori, Miren.
- Miren** Ah! Badakit. Errekako hura edan duzue eta, kutsatuta dagoenez, tripako mina duzue eta medikuarengana joateko prest zaudete.
- Txoripinto** Hori normala izango litzateke, baina ez da hori. Okerragoa da.
- Miren** Urduri jartzen ari naiz. Esaidazue gertatu dena , mesedez.
- Jose Mari** Mambrurena da.
- Miren** Zer gertatzen zaio Mambruri?
- Jose Mari** Ez zara konturatu? Gaez lapurtu egin digute.
- Miren** Hara, egia da!
- Amaia** Zerbait egin behar da.
- Txoripinto** Aurkituko dugu lapurra, harrapatuko dugu eta merezi duen zigorra jasoko du.
- Amaia** Ez jarri triste, Miren. Tristurarekin ez dugu ezer lortuko.
- Jose Mari** Arrazoi duzu. Mambru errekueratzeke moduz pentsatzen hasiko gara.
- Miren** Ea, bale!
- Txoripinto** Ba, niri ez zait ezer bururatzen.

Miren Ezta niri ere. Ez digute pentsatzen irakatsi. Liburuetatik gauza asko ikasi ditugu, baina gure kabuz pentsatzeko ez gara gai.

Txoripinto Eta hori txarra da?

Miren Bai, Txoripinto, bai, hori penagarria da.

Txoripinto Begira, hortik alkate jauna dator. Berak esango digu Mamburu errekuperatzeko forma.

3. agerraldia

-Lehengoak eta Alkatea-

Alkatea (Agertuz) Egun on, zer gertatzen da?

Miren Mamburu zuhaitza, herriko zuhaitz bakarra, lapurtu digute eta ez dakigu zer egin.

Alkatea (Pentsatzen egon ondoren) Ziur aski beste herri batera eramane dute.

Txoripinto Beste herri batean balego errekuperatu ahal izango genuke; baina papera edo altzariak egiteko hartu badute, jai daukagu.

Alkatea Hasteko, herrikoen laguntza behar dugu. Beharbada norbaitek ikusiko zuen zer bait.

Miren Haiei berdin zaie. Ez digute lagunduko, zeren eta, gehien iritiz, zuhaitzak ez daude ondo ikusita; batez ere hostoak galdu eta haiek leihoen aurrean geratzen direnean. Gainera ohean egongo dira denak oraindik.

Jose Mari Dena dela abisatu egingo diegu. Goazen, Amaia.

Amaia eta Jose Mari badoaz eskuinetik eta Mikel, herriko taxilaria, antzez tokian agertzen da ezkerretik.

4. agerraldia

-Txoripinto, Miren, Alkatea eta Mikel-

- Mikel** Kaixo! Zer arraroa, hain goiz hemendik. Zertan zabiltzate?
- Txoripinto** Begira, Mikel, Mambru ez dago bere lekuan.
- Mikel** Hara, egia da! Non ote dago?
- Miren** Uste dugu lapurtu egin digutela.
- Mikel** Ba, lapurra bilatu behar dugu.
- Alkatea** Hori da. Zu taxilaria zarenez, autoa hartu eta herriz herri joan zaitezke, ea ikusten duzun.
- Mikel** Noski baietz! Banoa.
- Alkatea** Ni udaletxera joango naiz, beste herrietako alkateei telefonoz deitzera, ea Mambru herri horietakoren batean dagoen.
*Mikelek, taxilariak eta alkateak ezkerretik alde egin dute.
Auzoko batzuk plazan agertzen dira.*

5. agerraldia

-Txoripinto, Miren, Bi Auzokoak eta Tapia, Auzoko Andrea-

- 1. auzokoa** Zer gertatzen da hemen? Espero dut zerbait inportantea izango dela, hain goiz ni esnatzeko.
- 2. auzokoa** Ni ere ohean nengoen eta, lehenbailehen plazara etortzeko esan didate.
- Tapia auzokoa** *(Ezkerretik agertuz, hoska)* Sua, sua! sua dagoela esaten dute!

- Miren** Momentu bat, mesedez, Hemen ez du inork suaz hitz egin, hemen ez dago surik.
- Tapia auzokoa** Zer dio?
- Txoripinto** Ez dagoela surik.
- Tapia auzokoa** Suhiltzaileak etorriko direla esaten al du?
- Miren** Isilik, Tapia andrea!
- 1. auzokoa** Zer gertatu da orduan?
- Txoripinto** Mamburu lapurtu digutela, herriko zuhaitz bakarra.
- Tapia auzokoa** Zer dio? Sutea itzalita dagoela? Zer ondo! Gure herriko suhiltzaileak onenak dira.
- 2. auzokoa** Zuhaitza? Zuhaitz batek ez du ezertarako balio. Horretarako esnatu nauzue?
- 1. auzokoa** Ados nago. Oztopoa izateko bakarrik balio dute.
- Miren** Ez dakit nola hitz egin ahal duzuen horrela. Zuhaitzak beharrezkoak dira, izaki guztiok bizi ahal izateko.
- 2. auzokoa** Zer diozu? txantxetan ari zara ala?
- Txoripinto** Mirenek esaten duena egia da. Airean dagoen kutsadura gehiena zuhaitzei esker desagertzen da.
- Miren** Zuhaitzik gabe lehortasun eta kutsadura gehiago egongo litzateke.
- 1. auzokoa** Horrela bada, zerbait egin beharko dugu, ezta?

2. auzokoa Bale, bale. Etxera joango gara arropaz aldatzera eta Mambru bilatzen lagunduko dugu.

Tapia auzokoa Nik ere bai.

Auzokoak norbere etxera doaz.

Txoripinto Zorionez, auzokoek ulertu dute bizitzarako zuhaitzek duten inportantzia.

Nikolas, plazako garbitzailea, agertzen da plazan...

6. agerraldia

-Txoripinto, Miren eta Nikolas-

Nikolas Hara! Zer arraroa! Gaur ez dago historik zoruan. Oso lan gutxi edukiko dut gaur. Zer ondo!

Miren Kaixo, Nikolas!

Nikolas Kaixo! Zer egiten ari zarete hain goiz hemen?

Txoripinto Begira, Nikolas, Mambru lapurtu digute.

Nikolas Noski! Horregatik ez dago historik. Ba, plazan historik ez badago langabezian geratuko naiz.

Miren Txoripinto, hemen ez dugu ezer egiten. Bueltatxo bat eman-go dugu herrian, ea Mambru aurkitzen dugun.

Nikolas Eta ni zuekin joango naiz. *(Bihoaz ezkerretik)*

Antzez tokianmutiko bat agertzen da, eskuetan zuhaitz bat duela, eskuinetik.

7. agerraldia

-Mutikoa, Mikel, Txoripinto eta Miren-

Mutikoa Uf! Zenbateko pisua duen! Zorionez, zuloak hemen jarraitzen du, zuhaitza lagatzeko.

Mikel, herriko taxilaria, plazan agertzen da, berriro, ezkerretik.

Mikel *Inguruko herri guztietan ibili naiz eta, ezer ez. (Mutikoa ikustean) Hara! Zer ikusten ari naiz? (hoska) Miren!*

Txoripinto eta Miren plazan agertzen dira.

Mikel Begira!

Txoripinto Begira! Ematen du han mutiko bat dagoela zuhaitz batekin.

Miren Eta zuhaitza ez da Mambru?

Txoripinto Mambru da!

Miren Orduan hori lapurra izango da. Mikel, joan zaitez alkateari eta udaltzainei abisatzera.

Mikel badoa ezkerretik.

Mutikoa Barkatu! Bai, ni naiz lapurra. Sentitzen dut, damututa nago, benetan.

Txoripinto Baina zergatik egin zenuen?

Mutikoa Nire herrian zuhaitz guztiak bota zituztelako hipermerkatu bat egiteko. Eta niri asko gustatzen zaizkit zuhaitzak; zeren eta, haiei esker txoriak daude.

Miren Baina zuhaitz bat nahi baduzu, ez lapurtu. Negutegi batera joan eta han erosi ahal duzu.

Mutikoa Bai, egia da. Baina hau da ikusi dudana zuhaitzik politena.

Alkatea eta udaltzainak, Mikelekin batera, plazan agertzen dira.

8. agerraldia

-Lehengoak, Alkatea, Joxe Mari eta Amaia-

Alkatea Zer ondo! Mamburu hemen dago berriro. Zuk aurkitu duzu?

Txoripinto Ez, alkate jauna. Lapurra bera izan da.

Alkatea Zer? Ezin dut sinetsi.

Jose Mari Horrela bada, zigor handi bat jaso beharko du, ezta?

Amaia Kontuan eduki behar dugu Mamburu itzuli egin duela.

Miren Hori! zergatik ekarri duzu berriro?

Mutikoa Nire herrian oso triste zegoelako.

Alkatea Badakit zigorra zein izango den. Egunero etorriko zara zure herritik Mamburu zaintzera. Ados zaude?

Mutikoa Bai, nola ez. Niretzat hori da lanik politena.

Miren Gauza bat egin ahal dugu. Niri ere lan hori asko gustatzen zaidanez, beste zuhaitz bat erosiko dugu, eta mutikoarekin batera egingo dut lana.

Alkatea Bai, beste bat erosiko dugu.

Pertsonai guztiak antzez tokian agertzen dira.

Denok Zer ondo, beste zuhaitz bat edukiko dugu gure herrian.

MORROI ALFERRA?...

Ikasleak/Irakasleak:
Mikel Gonzalez Aierbe
Olatz Aldalur Goenaga
Saioa Otaegi Albeniz
Komedia
Aizarnako herri eskola
Zestoa
1998

GAIA

Astelehen goizean goiz jaiki da etxeko gizona, lantegira joateko. Morroia ukuiluko lanak egiten dabilelakoan dago. Gizajoa! Ez ukuiluan eta ez ohean. Morroirik ez dago etxean. Nork jertziko ote ditu behiak eta nork aterako esnezaleari esneak?

Iskanbila. Halako batean han agertzen da morroia balantzaka, dena mozkortuta. Hala ere, hartu ditu esneak bizkarrean eta badoa, dinbili-danbala. Iritsiko ote dira esneak?

PERTSONAIAK

Joxe (aita)
Iñaxi (etxeakoandrea)
Iñaki (semea)
Karmen (alaba)
Maria Jexux (izeba)
Karmelo (morroia)
Goietxe (esneduna)
Betetxe (esneduna)
Abeletxe (esneduna)
Joxemai (esnezalea)

1. EKITALDIA

AGERTOKIA: Sukaldea. Eskuinean, mahai bat, bere banku eta guzti. Ezkerrean, leiho bat, aurrean bere arraska duela. Fondoan, ekonomika. Ezkerreko atetik kanpora joaten da. Eskuinekotik, berriz, egongelara.

(Goizeko sei eta erdiak dira. Oilarraren kukurrukuak eta behi marruak entzuten ditugun bitartean, iratzargailuak jotzen du, nabarmen entzuteko eran)

(Hor agertzen zaigu Joxe, erdi jantzirik, lasai, alkandora sartu eta prakak lotuaz. Ondoren, nagiak atereaz, nolako eguraldia dagoen begiratzen du)

- Joxe** Bikaina eguraldia! (*Ukuilu aldera adi*) Gure morroi hori ohi duen baino isilago zebilek gaur, alajainkoa! (*hots eginez*) Karmelo! Etor hadi gosaltzera, Karmelo!
- (*Ama agertzen da*)
- Joxepa** Zer gertatzen da hemen? Zuk, lanera joateko, goiz jaiki beharra daukazula eta ez al diezu besteei lo egiten utzi behar? (*Joxek damu aurpegia jartzen du*) Zeu amorrarazita zaudelako, beste denak amorrarazi nahi al dituzu, eee?
- Joxe** (*Erdi isilka*) Arrazoi duzu, Joxepa. Morroiari hoska ari nintzaion, gosaltzera etortzeko; baina ez dit entzuten eta banoa ukuilura.
- (*Bihoa eskuinetik.*) (*Joxe irteten den unean, Maria Jexux agertzen da aho-zabalka*)
- Maria Jexux** Zer zabilta horren goiz jaikita, Joxepa?
- Joxepa** Hementxe, neska; gure gizon horrek etxe guztia aztoratu din; eta orain, gainera, gosaria prestatu behar berari. Jo hion adarra!
- Maria Jexux** Ze ordu den?
- Joxepa** Zazpiak eta hogeia.
- Maria Jexux** Ene Maria eta Jose! neuk uste baino ere goizago dun. Ohera noan berriro.
- Joxepa** Ohera? Ez dun, ba, gure etxean lanik egiteko egongo!
- Maria Jexux** Zer nahi dun, ba, nik egitea?
- Joxepa** Ohera joaten bahaiz behintzat ezer ez.
- Maria Jexux** Hara!, umeak esnatu besterik ez dinat egingo.

- Joxepa** Umeak esnatu? Aitzakia ederra asmatu dun. Gure umeak trumoirik handienak ere ez dizkin esnatzen, neska.
- Maria Jexux** Konforme! Hasiko naun lanean. Baina umeak esnatzen badizkinat, gero ez hasi mi-mi-mi-mi!
- Joxepa** Ixo! Eta joan hadi behingoz lanera, txolinkeriarik esan gabe.
- Maria Jexux** Jaiki naizenez gero, goiko lanak egiten hasiko naun. (*Bihoa*)
(*Une berean Joxe agertzen da, haserre*)
- Joxe** Errejudas! Hau ez da etxeko martxa.
- Maria Jexux** (*Berriro presaka agertuz*) Zer gertatzen zaizu, Joxe?
- Joxe** Utz nazazu bakean eta zoaz zeure lanetara.
- Maria Jexux** Jesus! Mando-euliren batek heldu al dizu ala? (*Bihoa*)
- Joxe** Joxepa!
- Joxepa** (*Harrituta*) Zer behar duzu?
- Joxe** Atera ezazu morroi hori ohetik bizkor!
- Joxepa** (*Prestatu dion kafesnea ateratzen dio mahaira*) Gosaldu ezazu bitartean. (*Bihoa*)
- Joxe** (*Eseri, katilua eskuetan hartu eta hari begira*) Kafesnea! Morroi alu horri emango nioke nik kafesnea, berak eman didan letxe-arekin nahastuta. (*Edan beza*)
- Joxepa** (*Urduri sartuz*) Ez dakit non dabilen gure morroi hori! Ohea zabaldu ere egin gabe dago.
- Joxe** (*Kolpean zutituz*) Ee? Zer esan nahi du horrek? Ez dagoela etxean?

- Joxepa** Nik ez dakit ezertxo ere. Niri ez galdetu. Atzo, jaia zela eta, zeuk eman zenion eguna libre.
- Joxe** Eguna bai, baina ez gaua. Eta gutxiago gaurko goiza.
- Joxepa** Eta zer uste duzu, nik eman niola ala?
- Joxe** Ea orain zeinek jezten dituen behiak!
- Joxepa** Zeuk jetzi beharko dituzu. Zeinek bestela?
- Joxe** Nik? Aa, ez, ez, ez. Nik lanera joateko ordua dut.
- Joxepa** Deitu ezazu telefonoz lantegira, ondoez samar zaudela edo horrelako aitzakiaren bat jarritz.
- Joxe** Ederki eman ere! Etxeko andrea lasai gera dadin, bota gezurra, Joxe! Ez al dizu lotsarik ematen?
- Joxepa** Neuk jetzi beharko ditut, orduan, lehen ere ez naiz egin gabea eta. Ahaztu egin al zaizkizu zeure parrandak?
- Joxe** Parrandak nik? Urtean bat, kintoen bazkaria!
- Joxepa** Eta zenbat egin ditu, ba, zure morroiak, e?
- Joxe** Jar zaitetz orain morroiaren alde. Ez genuen besterik behar.
- Joxepa** Honezkero esnezalea laster da hemen, eta ez dakit nondik atera behar dugun esnea, hari emateko.
- Joxe** Atzo iluntzean bildutakoarekin beharko du. Bihar aterako dizkiogu besteak.
- Joxepa** Eta nork atera behar ditu!
- Joxe** Zertarako dauzkagu, ba, bi ume eder hor? Jan, lo eta jolas bakarrik egiteko?

- Joxepa** Eskolan bikain saiatzen dira behintzat!
- Joxe** A zer lana!
- Joxepa** Zurea baino latzagoa, akaso. Zer uste duzu, (*Enfasi zehatzaz*) zure tailerreko lana besterik ez dagoela ala?
- Joxe** (*Haserre*) Hots egiteko umeei azkar. (*Goxoago*) Aterako dizkiet nik marmitak honaino. (*Bihoa*)
- Joxepa** (*Ateraino jarraituz*) Zazpi eta erdietan jaikita, zer egin behar dute? Bederatzietan sartzen dira eskolan eta? (*Beste ateraino doa, buruari urduri eraginez*) (*Handik hoska*) Iñaki!... Karmen!... Jaiki azkar, esneak atera behar dituzue eta.
- Joxe** (*Agertu eta marmitak utziz*) Orain banoa, ea nola konpontzen zareten!
- Joxepa** Buka ezazu gosaria, behintzat.
- Joxe** Ez daukat astirik. (*Hala ere, katilutik zurrut pare bat egiten ditu eta, gero, presaka alde egiten du*) Agur!
- Joxepa** Agur esatea da errazena! Eta lan guztiak guretzat utzi!
- Iñaki** (*Aho-zabalka azalduz*) Zer zabiltza, ama? Zortziak laurden gutxi besterik ez dira eta!
- Joxepa** Non da Karmen?
- Iñaki** Han geratu da janzten.
- Joxepa** Ea! Hik ere segiok janztera, eta berehala etorri!
- Iñaki** Eguna argitu baino lehen...
- Joxepa** (*Moztuz*) Tira, azkar, zaplazteko bat hartu nahi ez baduk!

- Iñaki** (*Doala*) Ez dakit zer pasatzen zaizun, baina ez zaude behintzat goxoa.
- Joxepa** (*Bere gisara*) Ez, ez nago batere goxoa. Ez dakit zer egingo niokeen oraintxe morroi horri. Gaiztoa balitz sikiera, antzarrak ferratzera bidaliko nuke eta kito. Baina, ogi puska baino hobea da eta..., zer egin behar diozu?
- (*Neska-mutikoak sartzen dira eta amaren azken hitzak entzuten dituzte*)
- Karmen** Zer du morroiak, ama?
- Joxepa** Morroiak zer duen? Auskalo! Hor ibiliko dun nonbait parrandan. Atzo alde egin eta oraindik ez dun itzuli. Ea! esneak ateratzera joan behar duzue, esnezaleak alde egin baino lehen.
- Karmen** (*Harriturik*) Guk?
- Joxepa** Bai! (*Ontziak erakutsiz*) hor dituzue marmitak.
- Karmen** Ez dakit hori jasotzeko gauza izango naizen.
- Iñaki** Gauza izango ez haiz, ba? Hamar litro besterik ez dun eta.
- Joxepa** Zoazte lehenbailehen, jainkoaren izenean. Itzultzerako pronto edukiko duzue gosari eder askoa. (*Marmitak hartzen dituzte*) (*Une berean morroia agertzen da zalapartabizian*)
- Karmelo** (*Balantzaka eta totel*) E-e-eunon, gu-guztiori!
- Joxepa** Hara, hemen gure alferra!
- Karmen** (*Iñakiri*) Orain eramango dizkik esneak, etorri duk eta.
- Karmelo** (*Su gainera begiraturaz*) Gora esne-zopak!

- Iñaki** Horrek? Ez al haiz konturatzen zeharo mozkortuta dagoela?
- Joxepa** *(Denbora guztian Karmeloren ibilerari begira, haserre)*
Esne zopak ez baina, ardo-zopak gustatzen zaizkik hiri gehiegi!
- Iñaki** *(Karmeni)* Hori ez dun gauza, neska. *(Bere marmitari helduz)* Helduion marmita horri! *(Heltzen dio Karmenek ere)*
- Karmelo** *(Neska-mutikoei)* Zer ari zarete niregatik esaten? Nik marmitak errax eramango ditut, eee!
- Joxepa** Errax eraman hik? Bidean bai galdu esne dena!
- Karmelo** Eramango ez ditut, ba? *(Bazterretik bizkar-makila hartzen du)* *(Neska-mutikoei)* Iup! Ken hortik!
- Karmen** Ken zaitetz aurretik, Karmelo, esnezaleak alde egingo digu bestela eta.
- Karmelo** Esnezalea? Oraindik goiz da, neska. Ea! *(Ikusleen alderantz urrutira begiratu)* Ez da ageri... Beno, urrutiegi dago eta, gainera, dena lainotan ikusten dut. *(Neska-mutikoei, bultzaka)* Utzi marmita horiek eta hanka hemendik! *(Bizkar-makilan jarri, bizkarrean hartu eta han doa balantzaka. Besteak erabat izututa begiratzen dioten bitartean)* *(Bere buruari, une batez geldituz)* Zuzen, Karmelo, bestela ate markoa joko duk-eta. Iup! *(Eta abiadan irteten da)*
- Karmen** Txilipurdika joaten ez bada!
- Joxepa** Zer egingo dinagu, ba? Minik ez al din hartuko behintzat eta! Zuek zoazte berriro ohera, oraindik ia beste ordubete daukazue. Bitartean behiak jetziko ditut.
- (Besterik gabe alde egiten dute, bakoitza bere aldetik)*

2. EKITALDIA

AGERTOKIA: Bengoetxe izeneko baserria, urruti samar, inguruan zelaiak dituela. Eskuinean, gaztainondoak, eta kaminoa ere hortik doala suposatzen da.

Ezkerrean, auzo baserrietarako bidea.

(Argiak pizten direnean, txorien kantuak eta baso giroko hotsak entzuten dira. Geroxeago, auto baten motor-hotsa entzuten da etortzen eta joaten)

(Berehala, ezkerretatik, Goietxeko esneduna agertzen da)

Goietxe

(Bizkarretik esne-ontziak, poliki-poliki, eraitsi eta sorbalda igurtziz) Marmita madarikatu hauek sorbalda ebakiko zidatek halakoren batean.

(Eskuineko atzealderantz urrutira begira pixka batean egon ondoren) Goiz samar etorria izango nauk gaurkoan. *(Marmitei tapak kentzen dizkie)*

(Une horretan, Betetxe agertzen da)

Betetxe

Egun on! *(Honek ere marmita lurrean utzi eta sorbalda igurtzi beza, eta, ondoren, marmitari tapa kendu)*

Goietxe

Berdin! Ondo al zarete?

Betetxe

Bazarabileagu eztula eta komeria ugari, baina..., jaikitzen gaituk behintzat eta.

Goietxe

Ez duk gutxi.

Betetxe

(Gerriari heldu eta min-imintzioak eginez) Gerri alde honek ematen zizkidak lanak.

- Goietxe** Izan ere, eguraldi xebreak dituk hauek.
- Betetxe** Bai, eta Andoni Aizpuruk mila metrora elurra eman zian atzo.
- Goietxe** Eta, deskuidatzen bahaiz, bihar hego-haize epel-epela igual aterako dik.
- Betetxe** Antzarrik pasatzen ikusi al duk?
- Goietxe** Eguraldi klase honekin agertu ohi dituk, baina ez diat aurten oraindik ikusi.
- Betetxe** Hi, gainera, ez al haiz ehiztaria?
- Goietxe** Izango ez nauk, ba! Galdetzea ere...! Iaz 25 oilagor bota nizkian.
- Betetxe** Eta aurten?
- Goietxe** Aurten? Alerik ere ez orain arte.
- Betetxe** Hegabera garaia ere orain izango duk, ba!
- Goietxe** Gabonak aldera agertu ohi dituk. Hotzak ekartzen dizkik.
(Abeletxe sartzen da bitartean)
- Abeletxe** *(Esne-ontzia bizkarretik eraitsi eta beste biek egin dutena eginaz)* Egun on!
- Goietxe** Baita hiri ere!
- Betetxe** Hala ekarri!
- Abeletxe** Zer ari zineten esaten?
- Betetxe** Hementxe, motel, ehiza gora eta ehiza behera.

- Abeletxe** Niri alferrik esango dizkidazue ehiz kontuak. Ez duk nire gustuko afizioa.
- Goietxe** *(Eskuin atze alderantz, urrutira begira)* Han! Bazetorrek esnezalea. Etxegaraiko Pelixenak jaso dizkik.
- Abeletxe** Hi, Pelix horrek esne asko ateratzen ziok!
- Betetxe** Baaa! Horrek behi asko zeuzkak, zera! Berrogeita hamar buru bai hurre.
- Goietxe** Herenegun lau behi zahar kendu zizkian eta zortzi biga eka-
rri.
- Betetxe** Hik ba al dakik zenbat zelai dauzkan? Horren etxaldea baneuka...!
- (Auto-hotsa entzuten da, geroz eta hurbilago)*
- Abeletxe** Hemen diagu, eta Bengoetxekoak ez dituk ageri.
- Goietxe** Joxe lanera joaten ikusi diat. Eta morroi horrek nik ez zekiat zer fundamentu daukan!
- Betetxe** Karmelok? Oraintxe ikusi diat etxe aldera joaten, eta aurrera baino aldamenara gehiago egiten zian.
- (Autoaren motor-hotsa isildu. Ate-hotsa)*
- Goietxe** Zein Karmelo?
- Betetxe** Morroia, motel, morroia!
- (Esnezalea agertzen da)*
- Joxemai** *(Kanpotik)* Iep! Zer moduz zaudete?
- Abeletxe** Ondo esan beharko!

(Besteak Bengoetxera begira)

- Joxemai** *(Agertuz, Bengoetxera begira daudenei)* Non duzue Bengoetxe?
- Goietxe** Ez zekiat, motel, agertzen ote den begira geundean.
- Abeletxe** Garaiz etortzen zalea duk hura, baina...
- Betetxe** Ez zekiat gaur etorriko ote den. Morroiak eraman duen piura ikusita...!
- Joxemai** Gaixorik ez duk, ba, egongo?
- Abeletxe** *(Barrez)* Gaixorik, Karmelo? Bihar bai, egongo duk gaixorik, mozkorra pasatzen zaionean.
- Goietxe** Ea, Joxemai, zain egoten aspertu nauk eta...
- Joxemai** Ba, neu ere presaka samar nabilek.
- (Betetxeren esneak aztergailuz begiratzen ditu)*
- Betetxe** Bai. Gaur benetan berandu habil. Hiretzat ere ohea goxozeko freskuran, e?
- Joxemai** Hiii, Betetxe! hik esnari ura bota diok, eee!
- Betetxe** *(Haserre)* Gezurra! Nik ez zioat urik botatzen esnari.
- Joxemai** *(Aztergailua erakutsiz)* Hi, aztergailu honek ez dik gezurrik esaten.
- Betetxe** Ba, aberiatuta egongo duk.
- Joxemai** Berehalaxe ikusiko diagu. *(Goietxeri)* Hireak ba al du urik?
- Goietxe** Baita zera ere!

- Joxemai** *(Aztergailua marmitan sartuz)* Ea, ba. *(Pixkatxo batera, aztergailua atera eta, begiratzuz)* Ikusten! honek ura zeukak.
- Betetxe** Ba, nik ez zioat bota.
- Joxemai** Eta andreak?
- Betetxe** A! Hori ez zekiat nik. Akaso ontziari eragindako pittinen bat deskuiduan...
- (Abeletxe eta Goietxe, morroia datorren begiratzera doaz)*
- Joxemai** Deskuiduan, e? Behingoagatik barkatu egingo diat. Baina argi ibil hadi, e? *(Esne guztiak kamioira jasotzen ditu)* Eta esaiok andreari, ontzia garbitzen erabilitako ura ez dela esnea, eta, harraskatik behera botatzen dela.
- Abeletxe** *(Morroia datorren aldean erakutsiz)* Hara hor, hara hor Karmelo.
- Goietxe** Kontuz! Kontuz, Karmelo!
- (Denak, buruari helduz, Karmelori begira daude, harrituta.)*
(Handik apur batera, Karmelo sartzen da balantzaka. Estropezu egin eta agertokiarenbeste alderaino erortzen da, ontziak kanporaino joaten zaizkiola)
- Betetxe** *(Poliki-poliki hurbilduz)* Ondo al hago, Karmelo?
(Karmelok, nolabait esertzea lortzen duenean, zozo-aurpegi-z begiratzuz dio Betetxeri, baina ez dio hitzik erantzuten)
- Josemai** *(Karmeloren marmita hutsei begiratu ondoren)* Non dituk esneak, Karmelo?
- Karmelo** *(Harridura aurpegia jarritz)* “Un día es un día”. Gure etxeke esneak jun dia!

OTSOAK UAU, UAU, UAU, UAU...

Jon Aizpurua
Ipuin antzeztua
Joxemiel Barandiaran
Ataun
98/99

GAIA

Txori asko daukan zuhaitz baten inguruan gertatzen diren gauzak antzezten dira.

EKITALDI BAKARRA

Argiak piztu.

Megafonia: *”Otsoak, uau, uau, uau, uau...” Xabier Leteren kantua entzuten da.*

Lekua: *Mendian gaude. Zuhaitz bat, bakarra, erdi-erdian. (ZUHAITZ ikaslea jarri zuhaitz itxuran. Bi alde ditu zuhaitzak: alde bate-tik, paperezko txoriak dituena eta, bestetik, hostoak dituena, besterik gabe. Lehenbiziko agerraldi honetan, hostoak beste-rik ez zaizkio ikusten)*

OTSO izeneko ikaslea agertzen da, alde guztietara begira, inguruan inor ba ote den kirika... Tiragoma lepotik zintzilik, gezurrezko otso-buru bat dakar eskuan, buruhandi modura janzteko.

Kantua isiltzearekin batera, bere burua aurkezten die ikusleei.

Otso *Barkatu, barkatu aurkeztu ez naizelako... Ni Otso naiz. Ataundarra. Hemendik oso urruti ez dagoen etxe batean jaio nintzen eta, aita eta ama oso animalia zaleak direnez, Otso jarri zidaten izena... Badakizue ataundarroio otsoak esaten digutela... Egia esan, nire lagun guztiek ere animalia-izenak dauzkate... Berehalaxe ezagutuko dituzue... Oraintxe etorri-ko dira, tiragomak hartuta, txoriak harrapatzera... Baina susto*

handi bat eman nahi diet: arbola horren atzean ezkutatu eta etortzen direnean, dzast! azalduko naiz, eta ikusiko duzue: hankaz gora ereriko dira denak. Ezkutatu egingo naiz...

(Kantua berriro: Otsoak, uau, uau, uau, uau... Segundo batzuetara isildu. LEHOI, ARDI, ZAKUR eta KATU agertzen dira, tiragomak eskuan dituztela, zer ikusi hura bota)

Lehoi Begira, begira... iritsi garela uste dut. Arbola honen ondoan itxoiteko esan dit Otsok.

Ardi *(Beldurrez akabatzen)* Lehoi. Benetako otsorik izaten al da hemen?

Zakur *(Burlatuz)* Hara, Ardi, kaka dariola... Hemen ez dago otsorik. Nik jango zaitut, kontuz ibiltzen ez bazara!

Katu Zer ote dakizu zuk, Zakur? Garai batean, otso asko zen Ataunen eta, beharbada, bakarren bat geldituko da oraindik.

Zakur Hitz egin du dena dakienak, Katu polit-politak. Katua ez baino tigrea ematen duzu zuk... Uaaaaa !!!

Lehoi Ixo, ixo, mesedez... Zertara etorri gara, e? txoriak harrapatu behar ditugu. Tiragomak badauzkagu baina txoriak falta zaizkigu.

(Megafoniaz txori-hotsa entzutearekin batera, ZUHAITZ ikasleak zuhaitzaren beste aldean erakusten du. Paperezko txoriz beteta ageri da zuhaitza. Ile-lehorgailuarekin edo beste zerbaitekin eman behar zaie haize txoriei, mugitu daitezen)

Zakur Ikusten al duzue hori? Hori da txori pila!!!

Lehoi Ardi, zure txanda da... Hainbeste txoritatik bakarren bat botako duzu.

- Ardi** *(Beldurrez airean, tiragoma dar-dar)* Otsoa begira daukagula iruditzen zait.
- Lehoi** *Hemen ez dago otsorik, Ardi... Otsoak ez baino txori-pila galanta daukagu aurrean, guk noiz harrapatuko zain.*
- Katu** txori pila dagoen lekuan izango da kaka pila... Ja, ja, ja...
- Zakur** Kaka esan eta kaka izan... Norbaitek egin du hemen kaka... *(Ardirengana hurbildu eta ipurdian usainduz)*
- Ardi** *(Beldurrez akabatzen)* Ka-Ka-Ka-Katuk egingo zuen... Ka-Ka-Ka Katuk.
- Katu** Nik egin dudala kaka? *(Ardirengana zuzentzen du bere tiragoma)* Zerorri ematea nahi al duzu?
- Lehoi** Haserretu gabe... Tira, Ardi, botaiezu txori horiei.
- Ardi** *(Beldurrez akabatzen, tiragoma luzatu, baina harria ezin botaz)* Otsoa azalduko dela iruditzen zait.
- Zakur** Mekauen... Baina nola arraio esan behar zaizu otsorik ez dagoela hemen.
- Katu** Ea, ea... Otsoa!!! Otsoa!!!
- Lehoi** Nahiago nuke azalduko balitz.
- Zakur** txiki-txiki eginda utziko nuke.
- Katu** Otsoa!!! Otsoa!!!

(OTSO ikaslea agertzen da otso-burua jantzita, ZUHAI-TZAREN ATZETIK garrasi handi bat eginez. Hankaz gora erortzen dira, ikaraz eta sustoz, LEHOI, ARDI, ZAKUR eta KATU)

(Megafonian txori-hotsa zena Otsoak uau-uau kantu bihurtu du. Zuhaitzak beste aldean erakusten du berriro)

(OTSOk otso-burua kendu. Kantua isildu)

Otso Ja, ja, ja... Otsoa aipatu eta otsoa azaldu... Ardi beldurrez egotea normala da, baina lehoia, zakurra eta katua ere kaka dariela jartzea, ja, ja, ja!

(Poliki-poliki, lurretik jaikitzen dira Lehoi, Zakur, Katu eta Ardi)

Lehoi Gustura gelditu al zara, Otso? Ba, egunen batean, benetako otsoak jango zaitu...

Otso *(txantxetan)* Hau da beldurra hau!

Zakur Zure erruz, txoririk gabe gelditu gara.

Katu Lotsagabea!

Ardi txoriei bota behar nien harria zuri botako dizut.

Lehoi
-Zakur
-Katu

Guk ere bai!

(Korrika abiatzen da OTSO, besteak atzetik dituela, tirago-mekin harrikatu nahian. Harri batzuk gelditzen dira lurrean)

Megafonian OTSOAK UAU, UAU, UAU, UAU...

Kantua isilduz, bi ehiztari (1 eta 2) agertzen dira, eskopeta eta zakur banarekin... Zuhaitzaren aurrean gelditzen dira.

Ehiztari 1 Norbait ibili da hemen... *(Lurreko harriak hartuz)* Ataundar txoropito horiek ibiliko ziren orain ere...

- Ehiztari 2** Tiragoma ziztrin batzuk hartu eta mundua jango dutelakoan... Zer ote da, ezjakina izatea?
- Ehiztari 1** Eskopeta on bat dagoen lekuan, alferrik dira tiragomak, zepoak eta bestelako trasteak.
- Ehiztari 2** Otsoak omen dira ataundarrak..., otsoak... Antzarrak dauden lekuan alferrik dira otsoak.
- Ehiztari 1** Lazkaotarrak, bai, hegan egin beharbada, hegan. Igeri egin behar bada igeri, antzarrak bezalakorik ez dago munduan.
- Zuhaitz** A ze ganso pare!
- Ehiztari 2** *(Zuhaitzera begira, eskopetak eskuan)* Zeinek esan du hori?
- Zuhaitz** A ze ganso pare!
- Ehiztari 1** Baina, baina, arbolaren atzean norbait egongo da...
(Biak zuhaitz atzean begiratzera)
- Zuhaitz** Lazkaotarrak, antzarrak, kua, kua...
- Ehiztari 2** Hitz egiten duen arbola da.
- Ehiztari 1** Goazen hemendik...
- Zuhaitz** Zoazte antzarrak ferratzera!

Ehiztari 1ek eta 2k ospa, ihes, alde egiten dute.

(Megafoniaz txori-hotsa berriro. ZUHAITZEK paperezko txoriak dauden aldera jartzen du zuhaitza)

BASAJAUN agertzen da. Zuhaitza eta txoriak laztandu eta hizketan hasten da:

Basajaun Ezagutzen al nauzue? Basajaun naiz ni. Ni naiz mendi hone-
tan jaun eta jabe... txoriak harrapatu nahi dituzte, baina ez
dute lortuko... txorien musika behar du mendiak mendi iza-
teko... Egunen batean, jende guztia lo dagoenean, eskopeta
eta tiragoma guztiak puskatuko ditut. Eta txoriek kanta
berriak kantatuko dituzte!

*Berriro zuhaitzari musu eman eta joan egiten da BASA-
JAUN. Txori-hotsa berriro.*

*Beste lau lagun agertzen dira: OREIN, AZERI, USO eta
BELATZ. Tiragomak eskuan dituztela datoz, Txoriren bat
noiz ikusiko, azti-azti.*

Orein Begira, begira, zenbat txori!

Azeri Hogeita hamabost daude.

Belatz Nola arraio dakizu zuk hori, Azeri?

Azeri Azeri izanda, Belatz.

Orein Tira... Zure txanda da Uso... Botaiezu, alde egin baino lehen.

Uso Egon, egon. (*Tiragoma prest dauka*) Ez dira geldi egoten.

Azeri Ez dira geldi egoten, baina ez dute alde egiten. Hauxe da
gauza harrigarria!

Uso Min handia egingo al diet?

Orein (*Txantxetan mintzo zaio Usori*) Lasai, lasai... Buruan jo eta
tontotu egingo dituzu... Gero esnatu egingo dira berriz ere:
txio, txio...

Belatz Beldurrez baldin bazaude, zertarako etorri zara? Esan dizut,
balientea izan behar dela gauza hauetarako.

- Uso** Nik ez dut bota nahi... Bota zerorrek nahi baduzu...
(BELATZek hartzen du tiragoma. Botatzeko prest dago. USO, begiak itxita, beste aldera begira)
- Belatz** *(Apuntatuz)* Zein botako dut?
- Orein-Azeri** Moko-beltx horixe!
- Belatz** Bat, bi...
(AITONA agertzen da bat-batean. Makila eskuan)
- Aitona** Arratsalde on, umeak! Ehizarako asmotan?
(Tiragomak ezkutatu nahi dituzte, disimuluan, lau ehiztariek)
- Orein** Ez, ez... Arbola honi begira geunden, zenbat txori dauden kontatuz.
- Azeri** Hogeita hamabost daude.
- Aitona** Txori asko daude hor, gehiegi gauza onerako.
- Belatz** Gehiegi?
- Aitona** Gehiegi, bai... Ni zuek bezalako mutikoa nintzenean tiragoma hartuta ibiltzen nintzen. Baina arbola honetan...
- Uso** txori asko hiltzen al zenituen?
- Aitona** Hil? txoria bil? txoririk ez da hil behar sekula. txoria hiltzen duen umeak txoriak izaten ditu gero buruan.
- Orein** txoriak buruan?
- Azeri** Zer txori, aitona?

Aitona Txori eroak. Begira, arbola honetako txoriak nola dabiltzan... Umeren baten buruan ibiliko dira.

Belatz Zuk ere botako zenituen...?

Aitona Tiragomarekin harriak bota, bai, baina ez txoria jotzeko. txoria jo gabe.

Orein Txoria jo gabe???

Uso Minik egin gabe, orduan?

Aitona Batere minik egin gabe. Ba al dakizue zergatik dauden txoriak horrela?

Azeri Erotuta daudelako.

Aitona Erotuta daude, bai; baina ba al dakizu zergatik?

Belatz Zergatik, aitona?

Aitona Suge batek begiratzen dielako.

**Orein,
Azeri,
Uso, Belatz** Eeeeeeeeeeeee!!! Sugea!!! Goazen hemendik.

Laurak ikaraz urtzen. ZUHAITZ ere mugitu egiten da.

Aitona Lasai... Sugeak ez digu guri ezer egingo. Baina sugeari begietara begiratuz gero, tente geratuko zarete.

**Orein,
Azeri,
Uso, Belatz** Tente!!! Goazen hemendik, azkar!

(Ospa egiten dute, ziztu bizian)

(AITONA bakarrik. SUGE aurkitu nahian hasten da)

Aitona

Suge handia izango da gainera. Hainbeste txori lela-lela eginda edukitzeko, Lizarrustiko Suge-Gorria izango da. Non haiz?? *(txistua joz, makilarekin sasiak astindu eta miatuko balitu bezala)* A, hemen al hago?

(SUGE-GORRI luzea agertzen da. Luze-luzea, bi hiru ikaslek osatua)

Aitona

Utzi bakean txoriak...Gaiztoa haiz, horregatik!!!

(Zuhaitzeko txoriak baketu egiten dira erabat... AITONA SUGERen gainean esertzen da)

Aitona

Umeak!!! Umeak!!! txoriak libre daude!!!

(Alde banatatik, tiragomekin ibili diren haur guztiak azaltzen dira, harrituta eta beldurtuta. Ez dute sugea dagoen lekura hurbildu nahi)

Aitona

Ataundarrak izanda, ez al zarete behintzat suge koxkor honekin ikaratuko! txoriak ere geldi daude orain, bota nahi badie-zue...

Otso

Ez, ez... txoriak hobe daude horrela.

Lehoi

Eta zer egingo dugu harriekin?

Aitona

Bota jendeari, txori-buruak dira-eta!

(Haur guztiak gozokiak harrika hasten dira.

MEGAFONIAN, Otsoak uau, uau, uau, uau...)

OTSOKO ABENTURA

Tibalt Alberdi Osa
Maite Rodriguez Soreasu
Laura Sudupe Midivilla
Azkoitiko Ikastola Xabier Munibe
Azkoitia
2001

GAIA

Mirenek eta bere Otsoko izeneko txakurrak baserritar bati laguntzen diote, baserritarrari oiloak lapurtzen dizkiona harrapatzen; lapurrari eskarmentu ematen diote eta beste baterako gogoia kendu.

PERTSONAIAK

Gorka
Joanes
Miren
Piru

1. EKITALDIA

AGERTOKIA: Baserri baten aurrea. Ezkerraldean dago baserria bere oilategi eta guzti. Inguruan zuhaitzak han-hemenka. Eskuinaldean, hemendik oso hurbil, beste baserri bat dagoela suposatzen da.

1. agerraldia

-Gorka eta Joanes-

(Oihala jasotzerakoan oilo zaratak entzuten dira, eta, berehala, Gorkaren, baserriko nagusiaren, deiadarrak)

Gorka

(Deiadarka, oilategi aldetik) Arraioa, mila demonioren piztia! (Agertuz) Gutxiena uste dugunean, zapla! (Auzoko lagunari hoska) Joanes!!! (Tartea) Joanes!

- Joanes** *(Kanpotik)* Zer duk, Gorka?
- Gorka** Libre al hago? *(Oso urduri)*
- Joanes** *(Kanpotik)* Libre, libre...
- Gorka** Hator, unetxo bat.
- Joanes** *(Kanpotik)* Une baterako besterik ez bada...
- Gorka** *(Berekiko, oso haserre)* Ez omen direla akabatu behar! Naturaren oreka mantentzeko beharrezkoak omen dituk. Zer ote zekik kale-kume jende horrek?
- Joanes** *(Ezkerretik agertu)* Zer duk horren haserre, Gorka?
- Gorka** Lau oilo eta oilarra eraman zizkidak azeriak.
- Joanes** Noiz?
- Gorka** Bart.
- Joanes** *(Sinesgaitz)* Azeriak, e?
- Gorka** Zeinek eramango zizkian, ba, bestela?
- Joanes** Orduan, luma pila ederra utziko zian.
- Gorka** Hi, ba, ez.*(Bera ere harriturik)* Ez dik luma askorik utzi.
- Joanes** Oilategiko atea irekita uzten al duzue gauetan?
- Gorka** *(Arduragabetzat hartu duelako, petraldua)* Bai eta zera ere! Galdeidak orain oiloak atzo afaritan ez ote genituen jan!
- Joanes** Barkaidak, Gorka, baina ez nauk etorri neure lana utzi eta hiri adarra jotzera. Esaidak, nondik sartu da azeria?

- Gorka** *(Bere onera etorrira)* Azpiko atea itxita aurkitu diat. Nik ez zekiat nola demonio ireki duen gaineko atea!
- Joanes** Oilategiko atea ba al zeukak giltzarik?
- Gorka** Ez.
- Joanes** Gorka, Gorka! Ez zekiat ezer, baina, hor, lau hankakoa ez baina, bi hankako azeriren bat ibili ote den nagok ni.
- Gorka** Zer esan nahi duk? Ez zela azeria?
- Joanes** Bai, horixe bera!
- Gorka** Orduan, lapurren bat izango zuan.
- Joanes** Noski! Azeria baino seguruago! Azeria ez duk gauza lau oilo eta oilarra saialdi berean eramateko.
- Gorka** Horretan arrazoi duk.
- Joanes** Mendigain baserritik ere lapurtuak izan behar ditiztek aurreko egun horietako batean.
- Gorka** A, bai?
- Joanes** Gauean ez al duzue oilo zaratarik entzun?
- Gorka** Nik ez behintzat.
- Joanes** Mutilak! Lasai egiten duzue lo, horregatik!
- Gorka** Horretarakoxe duk gaua.
- Joanes** *(Ezkerraldera begiratzean norbait ikusirik)* Gurean baduk, ba, norbait, zuen oilategiko zaratak entzun dituen.
- Gorka** Bai ote?

Joanes Bai.

Gorka Nor da?

Joanes *(Eskuaz keinatuz)* Hortxe zetorrek.

2. agerraldia

-Lehenagoak eta Miren-

Miren *(Dozena bat urteko neskatoa. Agertuz)* Egun on!

Gorka *(Oso adeitsu)* Egun on, Miren!

Miren Ederki ari zarete kuxkuxean.

Joanes Bai, kuxkux ederra gertatu zaion Gorkari.

Miren *(Jakin minez)* Zer gertatu zaizu, Gorka?
(Gorkak buruari eragiten dio, zeresan asmatu ezinik edo)

Joanes Oiloak ostu zizkioten.

Miren Orduan, nik bart entzundako oilo zaratak...

Gorka *(Irrikaz)* Eta ikusi?...

Miren Ikusi, ikusi... Begira. Zaratak entzutean, xaguxaharren batek izutuko zituela pentsatu nuen aurrena.

Joanes Eta gero?

Miren Gero, zaratak ez ziren isiltzen eta, leihora irten nintzen.

Gorka Eta?

Miren Zer baiten errainua ikusi nuen mugitzen, eta, norbait ote zen iruditu zitzaidan; baina oiloak isildu egin ziren, eta haizeak astindutako zuhaitz-adarren baten itzala izan zitekeelakoan, ohera itzuli nintzen.

Joanes Erraz eraman dizkik nazkagarri horrek! Hemengo berri dakien norbait duk.

Gorka Hala irizten al diok?

Joanes Bai. Eta berriro ere saiatuko duk hori.

Gorka Gauero oilategia zaintzen ezin egongo nauk, ba!

Miren (*Jolasti*) Aski duzu ateari giltza on bat jartzearekin.

Joanes (*Zerbait gogoratu, edo*) Burutazio bat etorri zaidak.

Gorka Zer?

Joanes Kapaz dela tipo hori, berriro ere, gaur gauean etortzeko.

Miren (*Harriduraz*) Gaur bertan?

Gorka (*Amorrazioz*) Eskopeta bat baneuka!

Joanes Ez ezak astakeriarik esan, Gorka!

Gorka Astakeria? Gatzeko tiro bat behintzat ondo merezia zeukak.

Joanes Lasai, Gorka! Lapurra harrapatzeko bazeukaagu guk eskopeta baino lagun hobea. E, Miren?

Miren Guk? (*Harriduraz*) Zein?

Joanes Otso-txakur zintzo bat.

Miren A!..., nire Otsoko.

Joanes Gaur gauean zaindu egingo diagu. Ea zer gertatzen den.

Miren Ni Otsokorekin etorriko naiz.

Gorka (*Hunkitua*) Ez da beharrezkoa, Miren, baina, eskerrik asko!

Joanes Arriskutsua dun, maitea.

Miren Baita zuentzat eta Otsokorentzat ere!

Joanes Mesedez, Miren!

Miren (*Muturtuta*) Oso ondo. Otsoko nirea da eta ni ez baldin banoa, Otsoko ere nirekin geratuko da, ni zaintzen.

Gorka Hala erabakitzen baduzu, txakurrik gabe konpondu beharko dugu.

Joanes (*Gorkari*) Hago lasai! (*Mireni*) Oilategitik urruti ezkutatuko zarela agintzen badiguzu, utziko dizugu gurekin etortzen.

Miren Ondo da. Zein ordutan etorri behar dugu?

Gorka Gaueko ordu batean, hementxe, oilategiaren aurrean.

Joanes Ederki.

Miren Nik ekarriko dut Otsoko.

Gorka Gero arte, orduan!

Joanes Gero arte!

Miren Gero arte!

2. EKITALDIA

AGERTOKIA: Lehengoa bera. Gauaz, ilargiaren argitan.

1. agerraldia

-Joanes, Gorka eta Miren-

- Joanes** *(Zuhaitz baten atzetik, isilpe antzean)* Gorka! Gorka!
- Gorka** *(Beste zuhaitz baten atzetik, isilpean)* Hemen nagok. Zer behar duk?
- Joanes** Ikusi al duk Miren non ezkutatu den?
- Gorka** Ez! Hirekin ez al duk, ba, etorri?
- Joanes** Ez. Ni baino lehenxeago atera duk etxetik, bere txakurrarekin.
- Miren** *(Bere ezkutalekutik burua erakutsiz, haserre)* Zer ari zarete hor marmarrean.
- Joanes** Ez haugu ikusi eta, hi non ote hintzen galdezka.
- Miren** Zaudete isilik!
(Isilunea. Gau zaratak)
- Gorka** *(Isilpeka)* Joanes! Zer duk zarata hori?
- Miren** Ixo!!!
- Joanes** *(Isilpeka)* Oilategiaren atze aldean bazebilek zerbait.

- Miren** *(Isilpeka)* Zaudete isilik, hori Otsoko da eta.
- Gorka** Otsoko hor atzean?
- Miren** Bai, hortxe jarri dut, lapurra hortik saiatuko da ihes egiten eta.
- Gorka** Ondo da, ondo da!
- Miren** Lasaitu zaitezte! luzaroan egon beharko dugu hemen eta!
- Joanes** Ez dinat uste. Hor badun norbait. Ixo orain!
- (Gau zaratak besterik entzungo ez den isilune baten ostean, zakurra amorru bizian hasten da zaunka) (Arrisku unecari dagokion musika)*

2. agerraldia

-Lehengoak eta Piru (lapurra)-

Piru, lapurra, ezkerraldetik noraezean agertu da, zakurrak salatu duenean. Berehala ditu gainean Gorka eta Joanes, beso banatatik heltzen diotela. Miren urrutixeagotik begira geratzen da, ikusten duena sinetsi ezinik.

- Gorka** *(Piru mutil gazte izutuari goitik beheraino begiratu ondoren, harrituta, Joanesi)* Albitzondoko Paustinoren seme Piru duk hau!
- Joanes** *(Hunkituta)* Zer egiten duk hemen, Piru?
- Piru** *(Ikaraz)* Hemen? Ba, ba, zera... Oiloak lotan ikustea gustatzen zait eta...
- Gorka** Oiloak lotan, e? Piru! Piru!... Lapurra eta gainera gezurtia?...

- Joanes** Zuen aitak hau jakiten duenean, akabatu egingo hau, lehena-
go bihotzekoak jota bera akabatzen ez baldin bazaizue!
- Piru** (*Erdi negarrez*) Aitari ez esan, mesedez.
- Gorka** Hori ikusi egingo diagu. Aurrena egia esan behar duk.
- Piru** Esango dizut egia.
- Gorka** Zertara etorri haiz gure oilategira?
- Piru** Oilo lapurretara.
- Gorka** Zeinek eraman zituen atzo gure oiloak?
- Piru** Nik.
- Gorka** Zenbat?
- Piru** Lau oilo eta oilarra.
- Joanes** Hara! Horretan egia esan dik.
- Gorka** Mendigain baseritik zenbat eraman hituen?
- Piru** (*Erdi negarrez*) Nik ez dut beste inon lapurretarik egin.

(*Isilunea*)
- Joanes** Egiatan ari dela zirudik.

(*Isilunea*)
- Miren** (*Dagoen tokitik, errukiz*) Aita, Piru ez da inoiz gezurtia izan
eta gaiztoa ere ez.
- Joanes** Berarentzat hobe!

- Gorka** *(Piruri)* Zer egin duk oiloekin?
- Piru** Azpeitiko azokan saldu.
- Joanes** Zeini?
- Piru** Ez dakit. Ez nuen ezagutu eta harakinen bat izango zela pentsatu nuen.
- Gorka** Zenbatean saldu hizkion.
- Piru** Bost mila pezetan.
- Gorka** Tontoa halakoa! Oilarrak berak bakarrik balio zizkian bost mila.
- Joanes** Eta diruarekin zer egin duk?
- Piru** *(Praken atzeko sakelatik atereaz)* Hemen daukat. *(Gorkari emanaz)* Har ezazu! Gehiago eman behar badizut, esan zenbat den eta poliki-poliki ordainduko dizut.
- Gorka** Ez, ez daukak gehiago eman beharrik. Oiloak galtzeak baino min gehiago eman zidak lapurra hi izan haizela jakiteak.
- Joanes** Aitak ez al dik behar haina ematen?
- Piru** Bai. Baina datorren udan lagun koadrila bat Marokora joatekotan gabiltza, eta horretarako ere aitari eskatzea ez zitzaidan ondo iruditzen, eta dirua nondik aurreratuko pentsatzen hasi naizenean burua galdu dut. Horra!
- Gorka** Ondo zegok. Aitak ez dik jakingo, guk esanda behintzat. Hoa orain lotara lasai!
- Piru** Eskerrik asko. *(Bihoa korrika, ezkerraldeko atze aldetik)*

- Gorka** Zer egingo diok, ba? Guri ere ez zitzaiguan besteak baino gutxiago izaterik gustatzen eta...
- Joanes** (*Barre txikia eginez*) Eskarmentu ederra hartu dik gaur giza-joak.
- Miren** (*Bien erdira bilduz, irribarrez*) Ez dut uste gehiago lapurretarako gogorik izango duenik!

RAMONEN ROBOTA

Ikasleak
Poliziakoa
Aitxuri herri ikastetxea
Zegama
2001

GAIA

Ramon zientzialariari dena aldrebes egiten duen robota bidali zioten, herriko mutil baten izenean. Baina mutilak ez dio bidali. Zein izan da, ba?

1. EKITALDIA

*(Herriko Plaza: atzean Udaletxea. Ezker-eskuin, etxe sarre-
rak. Bi aldeetara, kale-bideak. Agertokiaren ertz batean
Iñaki bere bi lagunekin hizketan ari da. Hirurak patinetea
daramate eskuetan, gero Ramon eta Klaudio agertzen dira)*

Iñaki Uff! *(erlojuari begiratu eta ordua esan)* Etxera joan beharra diat!

Mikel Tira, motel! Gera hadi pixka bat gehiago, meriendak ez dik alde egingo eta!

Leire Bai, bai, joan hadi, gurpila zulatuta daukak eta!

Mikel *(Iñaki eskuinetik etxera abiatzen denean)* Gurpila ez zekinat, baina, oraingoan, burua ederki zulatu zaion. *(Bi lagunak joan egiten dira)*

(Zarata hots handia entzuten da ezker aldetik)

Ramon *(Kanpotik barrura eroriz)* Ai, ai, ai, ai!!! Mutiko deabru hori! Gorputz guztiko hezurak hautsi dizkidazu. Arrano-pola! Harrapatzen bazaitut!!

(Robota deseginda geratu da lurrean, atze-erdi aldean)

- Klaudio** *(Barrez agertzen da Ramonen atzetik)* Zer habil, gizona? Patinetean kaskorik gabe? Zer, Ramon, kaskotik arintzen hasita ala?
- Ramon** Isildu hadi, ez nagok brometarako eta lagundu egidak altxatzen. *(Klaudiok bi galtzarbeetatik heltzen dio Ramoni altxatzeko)*. Ai, ai, ai! Kontuz, Klaudio, kontuz!
- Klaudio** *Baina benetan ari al haiz?*
- Ramon** Ez, antzerkia egiten, iruditzen bazaik!
- Klaudio** Lasai, lasai, horrenbesterako baduk, lagunduko diat ospitale-raino. *(Klaudio eta Ramon barrura sartzen dira)*

2. EKITALDIA

(Lehengo tokian. Iñaki agertu eta eskuineko etxeko atea jotzen hasten da; baina ondoko egunkari-saltzaileak hitz egiten dio)

- Periko** Zer gertatu zaizu, Iñaki? Izebaren bila al zabilta? Oraintxe ogitara irtetea egin du, eta zerbait nahi baduzu, ni laguntzeko prest nago.
- Iñaki** Ez, ez, eskerrik asko. Agur!! *(Ezkerrerantz abiatzen da)*
- (Iñakik izeba aurkitzen du kalean)*
- Katalina** *(Ezkerretik agertuz)* Jesus, Maria eta Jose! Non demontretik zatoz, piura horrekin?
- Iñaki** Izeba, *(dardarka etxerantz)* Errotaberriko aitona-rekin topo egin *(negarrez)* eta airean bota dut, bere robot eta guzti. Eta beldurrez *(negar zotinka)* alde egin dut.

- Katalina** Ez ezazu negarrrik egin. Barkamena eskatuko diozu eta dena konponduko da. Goazen bere etxera. (*Ramonen etxera, eskuineko aurre aldera abiatzen dira eta han, atari aurrean, Ronaldina dabil bere hamsterrarekin jolasean*)
- Ronaldina** (*Ahopean hamsterrari*) Ikusten al dituzu bi horiek? Seguru Ramonen etxera datozela. Deabrukeriaren bat egin beharko diegu! Ja, ja, ja!!!
- Katalina** Arratsalde on, andrea, Ramon zientzialariaren etxea ba al dakizu non dagoen?
- Ronaldina** Ramon? Uff! Ez dakit zein den bere etxea; baina badakit ospitalera eraman dutela, istripuren bat izanda. Zer nahi duzue, bada?
- Katalina** (*Larriturik*) Istripua! Honekin, baldar honekin, izan du! Ditzosozko patinetean abiadan beti?
- Ronaldina** Jesus, emakumea! Ez da horrenbestera izango!
- Katalina** Ez dela horrenbestera, hura ospitalean izanda? (*Iñakiri begiratuz*) Goazen, Iñaki, Ramon bisitatzera, ea nola dagoen. (*Ezkerretik alde egiten dute*)
- Ronaldina** (*Hamsterrari esanez*) Ziri ederra sartu diet bi horiei. (*Harrokeriaz*) Ni bai naizela zientzialaria! (*Eskuekin bular aldean joz*) Oraintxe probatuko du aitona zahar horrek nire robot berria! (*Publikoari begiratuz*) (*Mobila eskuetan hartuta*) 943-800042 Dolores!!
- Dolores** (*Ez da agertokira irteten, barrualdetik ari da*) Ronaldina zientzialariaren laguntzailea, esan?
- Ronaldina** Parrafadak utzi itzan alde batera eta ekar ezan oraintxe bertan Errotaberrira robot berezia!

- Dolores** Zure hitzak niretzat aginduak dira! Ziztu bizian noa! (*Dolores eta Robota agertzen dira. Robotak ibilera eta ahots bereziak egiten ditu*)
- Robota** Aaa- RRA rra-TSAL tsal- De de- On on!!
- Ronaldina** Azkar, Dolores, bestela in fraganti harrapatuko gaituzte. Hik badakik, (*Robotari aginduz hatzarekin*) Ramonek esaten duenaren kontrakoa egin behar duk.
- Robota** Bai bai, bai bai!!
- Dolores** Ez al zain iruditzen gehiegizkoa joko hau? Petrala haiz gero, e!
- Ronaldina** (*Kaskarrekoa ematen dio Doloresi*) Isilik egon hadi, tentel halakoa! (*Ronaldina eta laguntzailea irten egiten dira eskuintetik*)

3. EKITALDIA

(Toki berean. Ramon eta Klaudio agertzen dira ospitaletik. Ramonek besoa igeltsuarekin darama, aurpegian partxea eta herrenka dabil. Ramon Klaudioarengan finkatzen da)

- Klaudio** Eskerrak patinetea zuen, autoa izan balitz!
- Ramon** Bai, motel, baina azkenean ez duk hain txarra ere izan.
- Klaudio** Zergatik diok hori? Aaaa, alproja halakoa, bistak behintzat ez dik huts egiten! Sendagilea begiz jo duk, e!!
- Ramon** (*Isilka*) Ez ezak horrelako egiarik horren altu esan! Lagun nazak barrura, basoerdia hartzera gonbidatuko haut eta! (*Ramon ardo botila hartzera sartzen da eta Klaudio atariko aulkian agertzen da, oparia aurkitzen du*) Aibalarrusia!!

- Klaudio** Zer demonio pasatu ote zaio? (*Klaudio aulkitik jaiki eta badoala bila, Ramon agertzen da Robota atzetik duela*)
- Ramon** Begira ezak ze opari utzi didaten! (*txartela irakurriz*)
- Barkatu hautsitakoa, ea ROKER gustatzen zaizun!**
- Iñaki**
- Klaudio** Zer detaile polita izan duen Iñakik! Ba ote dabil?
- Ramon** Oraintxe jakingo diagu. (*Robotari zuzenduz*) E, Roker, ekarri barrutik ardo botila eta bi edalontzi.
- Roker** Bai bai, o o- rain rain- txe txe. (*Roker barrura sartu eta ardo botilarekin dator*)
- Klaudio** Hau duk bikoka! Agindu eta ekarri, ja!! Nik ere hartuko niake horrelako bat!
- (*Rokerrek bi lagunen parera ailegatu eta botila lurrera erortzen uzten du*)
- Roker** Ja, ja, ja!! (*Barre gaiztoz*)
- Ramon** Baina, zer ari haiz? Jaso ezak segituan hori! Ekarri fregona eta garbitu, mesedez!! (*Barrura sartu eta irten ondoren, fregonarekin Ramoni eta Klaudiori aurpegia garbitzen hasten zaie*)
- Klaudio** Hau ez duk parte onekoa! Deitu egiok Iñakiri segituan. (*Ramon Iñakiren etxean atea jotzera doa. Klaudio bien bitartean Roker lotzen hasten da*)
- Ramon** (*Ate ondoan, irakurriz*) Pérez, Pérez, Pérez... Pérez da Iñakiren familia, ezta?

- Klaudio** Bai, nire aitonaren lehengusuaren semearen iloba.... Bai, bai, Pérez duk.
- Ramon** Hau izan behar du! (*Jo beza atea*)
- Katalina** (*Barrutik ari da hizketan*) Bai? Nor da?
- Iñaki** Iñaki hor al dago? Ramon naiz, berarekin hitz egin nahi dut.
- Katalina** Bai, oraintxe irtengo da. (*Hoska*) Iñaki!!! Atean zain dauz-kak!!!
- Iñaki** (*Agertuz*) Bai! (*Nor den ikustean*) Barkatu, Ramon!
- Ramon** Baina, zer robot klase da hau? Broma hau gehiegizkoa da!! Etxe guztia hondatu behar dit!!! (*Deiadarka, jenio bizian*)
- Iñaki** Baina, baina... Zertan ari zara? Ez dut ezer ulertzen!! Zer etxe? Zer robot eta zer kristo?
- Ramon** Zuk bidalitako oparia! Ondotxo dakizu zertaz ari naizen.
- Iñaki** Nik ez dizut bidali oparirik!!
- Ramon** Nola ezetz? Zure sinadura dator txartelean, bada?
- Iñaki** Ba, bakarren batek majo jo dizu adarra! Bihar joango naiz nire koadrilakoekin kontu hau argitzera. (*Argiak itzaltzen dira, gaua dela adierazteko*)

4. EKITALDIA

(*Toki berean. Musika pixka bat entzun ondoren argiak pizten dira eta Maki eta bere lagunak irteten dira, Ramonen etxe aurrean*)

- Leire** Zure izenean, gainera? Zein malapartatu izan ote da? *(Ramonen atea jotzen dute)* Tok, tok, tok!!! *(Ramon eta Roker ateratzen dira. Rokerrek eskuak lotuta ditu)*
- Ramon** *(Agertuz)* Bazen garaia etortzeko!!!
- Mikel** Ene!! Dotorea da benetan! Ramon, ez baduzu nahi, nik gus-tura hartuko dut!
- Ramon** Mila deabru eta iratxo!! Bazenekite zer gau madarikatua pasatu dudan! Tori, Iñaki. *(txartela eskura emanez)* Ea nork idatzi duen hau?
- Iñaki** Barkatu, Ramon, baina, nire lagunak lekuko, hau ez da nire letra. *(txartela bere lagunei pasatuz)*
- Leire** Hau Iñakiren letra? Ezta ametsetan ere hain txukun honek!
- Iñaki** *Beno, ez zaitezte pasatu!*
- Mikel** Jesus! Letra dotorea, eta robota ez nolanhikoa! Zein ote da? Nola jakin dezakegu?
- Leire** Aizue, badira ba... pelikuletan agertzen dira ba... Nola esaten da? A, bai, grafologoa! Zergatik ez dugu grafologo batengana jotzen?
- Ramon** Nahi duzuenarengana joan, baina niri dena argitu!! *(Ramon etxera sartzen da)*
- Leire** Neu arduratuko naiz, nik ezagutzen dut bat, Kuni deitzen da, eta nire aitaren laguna da. Zer ordu da? A, ba, ordu honetan badakit non egoten den. Oraintxe etorriko naiz berarekin. *(Iñaki eta Mikel robota aztertzen hasten dira. Ondoren, hasiera-hasierako robota, puskatuta lurrean gelditu dena, konpontzen hasten dira)*

5. EKITALDIA

(Toki berean. Kuni agertzen da Leirerekin)

Kuni *(Agertuz)* Arratsalde on!

Iñaki Baita zeuri ere! Leirek kontatuko zizun gertatutakoa?

Kuni Jakinaren gainean nago. Hau al da dena hondatzen duen Roker famatu hori? Ea, non da txartela? *(Iñakik txartela ematen dio)* Maki, idatzi paper honetan:

***Barkatu hautsitakoa.
Ea Roker gustatzen zaizun!***

IÑAKI

(Kuni, bi paperak hartu eta, konparatzen hasten da) Bai, argi dago bi pertsona diferenteren letrak direla. Gainera esango nuke Rokerrena emakume batek idatzitakoa izan dela. Gutxi gora behera 50 bat urtekoa... Aizue zuen robot honek hitz egiten al du?

Mikel Bai, primeran ulertzen zaio esaten duena.

Kuni Bai? orduan zergatik ez diozue galdetzen nork sortu duen?

Iñaki Egia!

Leire Gu gara melokotoi koadrila!

Mikel Bai, neska!

(Ramon irteten da, iskanbilaren ondorioz)

Ramon *(Agertuz)* Zer gertatzen da hemen?

Iñaki Ixo, ixo.

(Mikelek eta Leirek beso banatatik heltzen diote eta Iñaki galdetzen hasten da) (Roker ostikadaka hasten da)

- Iñaki** Roker, nork bidali zaitu?
- Roker** I-i-i ña-ña-ña-kik-kik-kik.
- Iñaki** Nik? (*Harrituta, buila eginez*) Hik gezurra besterik ez duk esaten!
- Ramon** Dena aldrebes egiten du honek!
- Kuni** Ba, alderantziz galde egiozue!
- Iñaki** Hori da, nork ez zaitu bidali, esan, nork ez zaitu egin?
- Roker** Ron- Ronal- Ronald- Ronaldi- Ronaldinak.
- Mikel** Zeinek?
- Ramon** Ronaldina esan du. Nor izango zen, ba! Beti izan dit inbidia! (*Lagun koadrila ahozabalik dago Ramoni begira*) Garai batean nire laguntzailea izan zen, zuek oso txikiak zinetela, baina orduko nire asmakuntza onenaren planoak lapurtu eta saldu egin zituen atzerrian diru pila baten truke. Benetan haserretu nintzen eta bidali egin nuen. Harrezkero dakidan bakarra sasi zientzialaria dela, laguntzaile barregarri bat duela eta jendea izorratzen dabilela.
- Roker** La- la- gun- gun- du- du. Ronal didi (*Iñakik eskuarekin ahoa tapatzen dio*)
- Iñaki** Mike1, zela pasaidazu! (*Rokerri ahoa zela ez estaltzen dio*)
- Leire** Eta orain zer egingo dugu?
- Mikel** (*Denak isilik, pentsakor jartzen dira*) Badakit zer egin!

- Leire** Txxxx!! Ez ezazu zure ideia xeblebre horietakorik bota!
- Kuni** Utzizu gizajoari pentsatzen duena esaten.
- Mikel** Eskerrik asko, jauna, Zer iruditzen zaizue eskutitz bat bidaltzen badiogu Ronaldinari sari bat irabazi duela esanez?
- Leire** Saria, zergatik?
- Mikel** Zergatik izango da, ba? Hain robot ona sortzeagatik... (*Robota deskribatzen hasten da*) eta gainera hitz egin dezake! Jarriko diogu udalak saritu egin duela eta 500.000 pezetakoa dela saria, aurkezteko udaletxean apirilaren 14an, eguerdiko 12:00etan egingo den sari banaketara. Bai?
- Leire** Behingoz zerbait zentzuzkoa asmatu duzu!
- Mikel** Ja, ja, ja!! Zer uste duzu, ba? Tentela naizela?
- Ramon** Bale! Neuk idatziko diot eskutitza. (*Denak joan egiten dira*)

6. EKITALDIA

(Dolores eta Ronaldina dotore-dotore jantzita daude udaletxe-aurrean. Biak eztabaidan ari dira sariaren diruaren banaketaz)

- Dolores** Ronaldina, niri 100.000 pezeta tokatuko zait, Karibe aldera joateko, ezta?
- Ronaldina** (*Publikoari begira*) Neuk herriko txoroflauta handienari 100.000pta. eman? Ezta txoratuta ere! 25.000 pta. ere gehitxo duzu!
- Dolores** Ni, txoroflauta? Zu, berriz, sorgin zeken galanta! Lan zikin guztia neuk egin eta orain sos ziztrin gutxi hori?

Ronaldina *(Isilka eta eskutitza tiratuz).* Ixxxxo! Ramon zientzialari famatua dator hor!!

(Ramonen atzetik gazteak datoz eta Ronaldina eta Dolores harrapatzen dituzte)

Ronaldina Lagundu, Roker, lagundu, akabatu egingo naute!!

Roker Ba ba, no no, a a.

Dolores Ez, Roker, ez, ez kasurik egin, sorgin zital honi!

(Ronaldinak Doloresi begiratzeko dio aho zabalik) (Dolores korrika Rokerrengana hurbiltzen da eta txipa aldatzen dio)

Dolores Hemendik aurrera zintzoa izango haiz. *(Rokerri)*

Roker A-a-rra-tsa-tsal-de-de-o-on. Zu-zu-en-en-zer-zer-bi-tzu-tzu-ra-ra-na-na-gggo.

(Ronaldinari)

I-zo-zo-rra-rra-ha-ha-dddi!

(Ronaldinak ihes egiten du, beste guztiak barrez direla)

SUSANITA ETA BURBUILAK

Jose Felix Tomas
Txotxongiloa
Madre De Dios ikastetxea
Bilbo
2001

GAIA

Larrosa eta bitxilorea lagun minak, landareen festara joan dira.
Festan Kamuñas Konde diruduna agertzen da, lore baten bila.

1. EKITALDIA

1. agerraldia

Dekoraturua paisaia naturala da: Haize hotsa entzuten da.

Haizea

Kaixo, arratsalde on, denoi, zer? Ez dakizue nor naizen? Ezetz ni ikusi?

Norbaitek badaki nor naizen? (*erantzuten dute*) Ja, ja, ja... Ba, ikusi ez arren, hemen nago zuekin. Noski! Ni haizea naiz, ezagutzen nauzue, ezta? Normala da, beti zuekin bainago mendian edo hondartzan zaudetenean. Oso tipo jatorra naiz. Beno, noizik behin pixka bat haserretzen naiz, eta orduan urakan deitzen naute; baina, hori ez da sarritan gertatzen. Oso alaia naiz! Ni izatera jolastu nahi duzue? Bai? (*erantzuten dute*) Gauza bat egingo dugu, hiruraino kontatu eta alde guztietara putz egingo dugu, alboan dagoenaren aurpegira, zerura. Tira! Bat, bi eta hiru. (*putz egiten dute*)

Bai dibertigarria! Aizue! Ni hona etorri naiz esan didatelako orain dela gutxi gertatu zen zerbait kontatzeko. Nire bi lagun-en istorioa da, badakizue nortzuk diren? Ba, bi lore dira: Susanita bitxilorea eta Gorri Eder larrosa, baina Gorri deituko diogu. Susanita eta Gorri lagun minak ziren, munduko lagunik onenak. Ezin ziren elkarrengandik banaturik bizi. Ia leku guztietara elkarrekin joaten ziren eta...

Baina, badakizue zer pentsatzen dudan? onena gertatu zena zeuek ikustea dela. Adi egon, ni ere agertzen naiz istorioan eta. Ea adi zaudeten agertzen naizenean eta agurtzen nauzuen, esanez: kaixo, Haize!

Bai? Gero arte.

(Haizea desagertzen da eta bi loreak agertzen dira)

Larrosa Zer egun ederra, ezta, Susanita?

Bitxilorea Bai horixe, txo... zelako gogoia dudan udaletxeko mangeretara joateko, egun guztian bustita egoteko.

Larrosa Ikusi duzu zenbat jende dagoen hemen? Eta guk agurtu ere ez.

Bitxilorea Kaixo, lagunok! zer gertatzen da zuen gorputzekin?

Larrosa Kaixo, neska-mutilok! ezagutzen gaituzue, ezta? Ba, gu munduko lagunik onenak gara. Tira, Susanita! musu bat!

(Musu ematen diote elkarri eta lekuz aldatzen dira)

Bitxilorea Alde hemendik! Euli bat baino astunagoa zara! Ia-ia nire petalo ederrak apurtu dituzu. Aizu! Festara etorriko zara gaur arratsaldean?

Larrosa Jakina! Ez dut landareen festa galduko! Hara joan behar dugu, gure tipoa erakustera.

Bitxilorea A zer tipoa! Zuk asun lehor bat dirudizu!

Larrosa Nik, nik? Asun bat *(joaten dira)* Astala hori! sasi nazkagarri hori!

(Alde banatara desagertzen dira)

2. agerraldia

(Dekoratu berbera eta rock musika entzuten da, gero eta oze-nago) (Landareak dantzan ateratzen dira)

Larrosa Aizu, Susanita, ondo nago? Esan, esan! Ondo nago?

Bitxilorea Baietz, ba, astun hori! Oso ondo zaude. Tira, goazen dantza egitera, yeaaaaa!!!!!!

(Biak dantzatzen mugitzen dira eta handik gutxira diruduna sartzen da eta bitxilorea badoa. Kamuñasek ikusleei hitz egiten die)

Kamuñas Hum! Hara zenbat jende. Zer, ez dakizue nor naizen ni? Je, je, je. Ni Kamuñas Konde diruduna naiz, eta jaira etorri naiz lore baten bila nabilelako. Bai, lore kokolo horietako bat hartu nahi dut, oraindik dirudunagoa egiteko. Niri gustatzen zaidana dirua da, dolarrak.... Beste guztia berdin zait. Ez zait mendira joatea gustatzen; ezta gozokiak jatea edo pilotan jolastea ere... Ba! ze aspergarria den hori guztia, ezta? *(EZZZ)* Bost axola zuek pentsatzen duzuenak. Inozo baten bila noa. Ikusiko duzue gero zelan irabaziko dudan diru pila bat!

(Alde guztietara begiratzen du eta larrosarengana doa)

Kamuñas Horra hor bat. Aurrera, kaixo, larrosa polit hori, zer moduz? Pakete Risetesa baino ederrago zaude. Zer, dantzatuko dugu?

Larrosa Zergatik ez! Goazen hara...

Kamuñas Aizu! Badakizu oso polita zarela? Zuk nahi baduzu nik oso ospetsua eta aberatsa egingo zaitut, Ricky Martin bera ere etorriko litzateke zurekin ligatzera.

Larrosa Mickey Martillo? Eta nor da Mickey Martillo?

- Kamuñas** *(Ikusleei hitz egiten)* Neska hau tontoa da... Beno, zer diozu nire eskaintzari buruz?
- Larrosa** Begira, ni ondo nago horrela; ez dut famarik behar ezertarako.
- Kamuñas** Tira, Gorri...
- Larrosa** *(Oihukatzen)* Ezetz!!!
- Kamuñas** Beno, beno, ez duzu horrela jarri beharrik... Zuk galtzen duzu. *(Jendeari)* Zer desatsegina!! Ikusi duzue inoiz larrosa harroputz hori baino tontoagorik? **(BAIII, ZUUU)**
- (Loreak begiratzten ditu, bitxilorea sartzen da eta larrosa badoa)*
- Kamuñas** Begiratu nor dagoen hemen. Zelako lore ederra! Hartz bat baino ederragoa eta paella bat baino politagoa. Nirekin dantzatu nahi duzu, polit horrek?
- Bitxilorea** Noski, laguna! Tira, mugi ezazu gorputz hori. *(Dantzatzten dute)*
- Kamuñas** Aizu, badakizu ez dudala inoiz ikusi zu baino neska politagorik? Nahi baduzu, nire laguntzaz, diru asko irabaziko duzu; eta, gainera, munduko lorerik politena izango zara. *(Gelditzen dira, ez dute dantzatzten)*
- Bitxilorea** Eta nola egingo duzu hori?
- Kamuñas** Begira..., nire eskuetan jartzen baldin bazara..., nik agintzen dizut munduko Miss Petunia lehiaketa irabaziko duzula, lorerik ederrena izango zara, zinean ere egingo duzu lan.
- Bitxilorea** Eta zuk lor dezakezu nik irabaztea?
- Kamuñas** Jakina! Beno, pixka bat konpondu beharko zaitut, nire “KUTRELUX” laborategian; baina zuk esan eta bihar bertan has gaitezke, zer diozu?

- Bitxilorea** Baaaa! Ez dakit (*Ikusleei*) zuek zer egingo zenukete?
- (*BAIL, EZZZ, esaten dute umeek, Kamuñasek eskuak mugituz baietz esaten duen bitartean*)
- Bitxilorea** Beno, dena dela, ez dut uste kalterik egingo didanik eta, agian, azkenean, ospetsua izango naiz. Bai, onartu egingo dut.
- Kamuñas** Je, je, je, sinetsi du inozoak... Eh! dantzan ibiliko nintzateke egun osoan! No te vayas de Navarra...
- (*Biak joaten dira*) (*Beste dekoratu bat sartzen da*)
- Kamuñas** Zein berandu datorren Susanita, bitxilore madarikatu hori! Eta orain agertzen ez bada? (*Bitxilorea korrika sartzen da*)
- Bitxilorea** *Buf, buf, barkatu, Kamuñas Kondea, baina galdu egin naiz horrenbeste kale artean.*
- Kamuñas** (*Urduri*) Beno, beno, lasai; ez du axola. Goazen, hasi egingo gara. Lorerik politena eta ospetsuena izango zara. Miresleak zuregana hurbilduko dira, erleak bezala. Lorezainik famatuenak edukiko dituzu. Eta zure petaloak nork apaindu lehian ariko dira.
- Miss Susanita izango zara, “Bridney Spead” baino ospetsuagoa; eta guztiok abestuko dizute:
- «**SUSANITA, SUSANITA**
EDERRENA ZARA» (*errepikatzen da*)
- (*Ur potea Kamuñas Kondeari ematen zaio*)
- Bitxilorea** Aizue, neska-mutilok, zer ondo eta zer polita gelditu den abestia! Beno, zu, antzinako hori, inoiz hasiko gara? e! eta nola egingo duzu?

Kamuñas Zu, lasai, ez urduritu. Nire laborategian formula berri bat asmatu dut eta gero eta ederragoa izango zara. (*Ikusleei hitz egiten*) Ja, ja, orain pozo! hau emango diot, hasieran ederra baino ederragoa izango da, eta emango dioten diruarekin geldituko naiz... Baina, egun batzuen buruan, petalo guztiak jausiko zaizkio; eta nik ez dut ezertarako nahi izango; eta, seguru aski, hil egingo dut, azkarra naiz, ezta, neska-mutilok? (*EZZZ*) Etorri, Susanita.

(Ura botatzen dio eta burbuilak ateratzen dira)

(Makila ematen zaio Kamuñas Kondeari)

Bitxilorea Ui, ui, ui, zer hotz dagoen hau eta zelako kiratsa darion, ederrago bihurtuko nau? ziur zaude?

Kamuñas Noski, noski, ja, ja, ja... Ederra bihurtzen ari zara, orain masaje bat emango dizut “*PORRAFINA*” honekin, eta dantzari filipinar bat bezala egongo zara gero (*Makilakadak ematen hasten zaio*) Tori, tori, tori eta tori hau ere. Ja, ja, ja.

Bitxilorea Aurpegi ederragoa? Baina lur jota utzi nauzu.

Kamuñas Ezetz, emakumea! Jarraitu dezagun (*Badoaz jotzen duen bitartean, eta laborategiko ontzi guztiak botatzen doa*) Tori, tori, jo, jo! a zelako jipoia ematen ari naizen!

2. EKITALDIA

(Izadiaren dekoratua) (Gorri irteten da)

1. agerraldia

Larrosa Non ote dago Susanita? Jai egunetik ez dut berriro ikusi, gai-xorik edo balego hark esango lidake. Arraro samarra da, e?

Itxaron, mutilak, uste dut hor datorrela. (*Bitxilorea sartzen da, burbuilak botatzen*)

Bitxilorea Kaixo, laguna, ezetz asmatu zer gertatu zaidan?

Larrosa Ba, hainbeste burbuila botatzen duzula, ziur xaboia irentsi duzula.

Bitxilorea Zaude isilik! Ez badakizu ere, hona hemen munduko hurrengo “MISS PETUNIA.”

Larrosa Ez esan lelokeriarik, Susanita. Nondik atera duzu tontakeria hori? Baratxuri txirikorda bat baino itsusiago zaude...

Bitxilorea Ba, zu... tximino baten galtzarbea baino itsusiago.

(*Borrokan ari balira bezala*)

Biak Zu, zu...

Bitxilorea Ba, esaten ari nintzena... jaia ospatu zenean Kamuñas Kondea ezagutu nuen, eta munduko lorategi guztietan lorerik ederrena bihurtzeko proposamena egin zidan, nahiz eta ni neurez oso polita izan.

Larrosa Buf! Jasanezina da. Eta nola lortuko du mirari hori?

Bitxilorea Nola? Ai, zer barregarria! produktu kimikoak sortzeko lantegi baten jabea da. Eta berak duen lorategi batean loreak edertzeko formula berezia asmatu du, txundituta uzten zaituzten masaje batzuekin. Dena den burukomin apur bat dut orain, baina guztiz martxoso sentitzen naiz.

Larrosa Kontuz ibili, Susanita! Produktu kimiko horiek arriskutsuak izan daitezke. Zergatik ez duzu jarraitzen ur garbia bakarrik erabiltzen? Horrela, ez zenituzke botako burbuila nazkagarri horiek. (*Sudurra estaltzen du*) Puaaagggg!

- Bitxilorea** Ui, ura! zelako harrokeria “Porkerin de Pravia” garbikari eder eta modernoaren ondoan.
- Larrosa** Hala ere, kontuz ibili gauza txarren bat gerta daiteke eta.
- Bitxilorea** Gauza txarren bat? Baina ez dago munduan lorerik nik baino zorte hobea duenik. Hortaz, agur! “KAKALUX” pixka bat eman behar dut, larrua edertzeko.
- Larrosa** Ai! Susanita, Susanita! Hobe zenuke ur freskoa erabili. Espero dut dena ondo irtetea. (*Badoa*)

3. EKITALDIA

(*Atsedernaldia*) (*Haizea ateratzen da*)

1. agerraldia

- Haizea** Kaixo, lagunok, kaixoooooooo! Ez nauzue ezagutzen? Hemen nago, hemen, zuen atzean, gainean, bai. Ez nauzue ikusten? Orain noa behera.

(*Denbora apur bat pasatzen da*)

Beno, ongi da, hemen nago zuen aurrean, aurrerantz begiratu. Gorri Susanita eta bere burbuilen istorioak nola jarraitzen duen kontatzera etorri naiz, zer, gustatzen zaizue istorioa? (**BAIIII**) Ui! Ba, oraindik onena gelditzen da. Ikusiko duzue! Beno, goazen ba, jarrai dezagun, Kamuñas Konde lotsagabeak Susanita engainatu du eta gizajoak ez daki bere probetxurako erabili gura duela. Hau bai arazoa, aurrean duena, hain nago haserre ze putz eta putz egingo nuke, Kamuñas Kondea basatza putzu batera bultzatu arte. Ui, ui, ui.

Luzatzen ari naiz. Baina, jakina, zuek bezain neska-mutil jatorrekin hitz egiteko aukera inoiz izaten ez dudanez, hitz asko egiten ari naiz.

Ondo, buelta bat ematera joango naiz. Ea zer gertatzen den!
Gero arteeee!!

(Bozgorailu batetik ahotsa irteten da, platertxoan arradaz. Margarita agertzen da, eta Kamuñas ere bai, dirua daramala)

Bozgorailua Jaun-andreok!! Zuekin, guztiakin, 2001.eko Munduko Miss Petunia lehiaketako irabazle ikusgarri eta zoragarria. Ederretan ederrena, Susanita bitxilorea. *(txaloak)*

Kamuñas Polit-polita zaude, Susanita. Lehiaketa zuk irabazi izanak ez nau harritzen, baina neurri handi batean, niri esker izan da, zeren asmatu egin dut burbuilekin eta produktu kimiko horiekin guztiakin zu ederrago jartzen. Ez duzue uste zuek? *(EEEEZZZZZ)*. *(Orain umeei hitz egiten die)* Je, je, je, hau txitxipu baino ergelagoa da, diru guztia niretzat izango da, den-dena, ja, ja, ja!

Bitxilorea Polit-polita nago, ezta, neska-mutilok?

(BAAAAI). Poz-pozik nago basoko ederrena naizelako. Horrek... erabat zoriontsu jartzen nau. La , la, la!

(Badoaz biak) (Geldialdi txikia)

2. agerraldia

(Rosa eta Margarita agertzen dira, azken honi petalo bi falta zaizkiola; burbuilak botatzen jarraitzen du, eta nekatu-ahotsarekin)

Bitxilorea Kaixo, Gorri! zure aurrean duzu 2001.eko Miss Petunia lehiaketako irabazle ikusgarria.

- Larrosa** Bai, esan didate, harroputz, harroputz hori! Ba, egia esan ez zaitut hain eder ikusten.
- Bitxilorea** Ez dakit zergatik diozun hori, ze... inoiz baino politago nago, ezta, neska-mutilok? (**EZZZ**). Ba, zuek zer dakizue, ba, edertasunez?
- Larrosa** Agian ederra izan zinen lehiaketa irabazi zenuenean, baina orain ez. Itxura tamalgarria duzu. Egia esan, kezkatuta naukazu.
- Bitxilorea** Kezkatuta? Gertatzen dena da nitaz bekaizturik zaudela orain ditudan jantzi, eraztun eta idunekoez. Eta kakalux urrinez beteta dagoen nire armairuez bekaiztuta zaude.
- Larrosa** Urrinez? Baina... kirats itzela darizu eta. (*Oihuka*) Oker zaude, Susanita! Ez nago bekaizturik; kezkatuta nago, zure laguna naizelako eta aldatu egin zarelako. Tira, galdeiezu neska mutil hauei guztiei, ea lehen baino ederrago zauden edo ez. Ea, neska mutilok, zelan dago, hobeto ala okerrago? (**OKERRAGOOOOO**)
- Bitxilorea** Ba, ni zuek bezalako ezjakinekin hitz egiteaz aspertuta nago. Banoa. Agur betiko, itsusi hori! (*badoa*)
- Larrosa** Ez, ez zaitez joan, Susanita. Ez zara jadanik nire laguna? (*erdi negarrez*) Joan egin da. Orain ez da nire laguna, oooooh! (*bat-batean alaitu egiten da*) Ba, ez! Bera nire laguna da eta lagundu egin behar diot. Ez dakit zer egingo dudan, baina saiatuko naiz basoko lagunena laguntza eskatzen. Eta zuek ere lagunduko didazue, ezta? (**BAAAAAAAI**) Eskerrik asko, lagunok. Ezin dut sinetsi Susanita orain nire laguna ez izatea. Ez dut onartuko. (*negarrez doa*)
- (*Geldiunea*) (*Dekoratu berean larrosa azaltzen da, triste*)
- Larrosa** Zer moduz, lagunok? Ikusi al duzue Susanita hemen, haserretu ginenez gero? Gero eta okerrago dagoela esan didate.

(Burrumba entzuten da eta erlastarra sartzen da)

- Erlastarra** Kaixo, Gorri, Pakorro erlastarra naiz. Oso triste zaude, zer gertatzen zaizu?
- Larrosa** Bai, Pakorro, oso triste nago. Aurreko batean, Susanita eta biok haserretu egin ginen, eta geroztik ez dut ikusi.
- Erlastarra** Haserretu egin zinetela? Baina ez zineten, ba, basoko lagunik onenak?
- Larrosa** Bai, baina gizon dirudun batek lelokeriaz bete zion burua. Berarekin joan zen eta ez dit hitz egin nahi. Nik aurkitu egin nahi dut, bakeak egiteko. Jasanezin dago, baina nire lagunik onena da.
- Erlastarra** Nik ere... ez dut ikusi. Eta Haizeari galdetzen badiogu? Leku guztietan dagoenez, seguru aski hemendik hurbil dabil! Ea! Deitu egingo diogu, guztiok batera.
- Haizeaaaaaaaaaaaaa, haizeaaaaaaaaaaaaa...
- Haizea** Kaixo, Gorri! Kaixo, Pakorro erlastarra! Kaixo, lagunok! Kaixooooooooooooooooo! Zertarako deitu nauzue?
- Larrosa** Kaixo, Haize, gauza bat galdetu nahi dizugu! Zu leku guztietan zaudenez, ea Susanita ikusi duzun jakin nahi dugu.
- Haizea** Bai, ez nintzen konturatu eta, indarrez putz egin nuen eta petalo bat askatu nion.
- Larrosa** Beste bat! Orain orduan billar bola baten itxura edukiko du.
- Haizea** Baina ez zidan kasurik egiten, oso txarto zegoen.
- Erlastarra** Bai, Miss Petuniaren lehiaketa irabazi duen momentutik ez du inor agurtzen, eta ez dio inori kasurik egiten, ez bere

lagunei, ezta Gorri ere. Kamuñas Konde nazkagarri horrekin bakarrik dabil.

- Haizea** Eta zer egingo duzu, Gorri? Hor geldituko al zara ezer egin gabe?
- Larrosa** Ez! Susanita lehen bezalakoa izatea lortuko dut... Baina, nola?
- Haizea** Niri ez zait ezer bururatzen.
- Erlastarra** Zer iruditzen zaizue Kanikon aztiari galdetzen baldin badiogu? Basoan bizi da. Agian berak lagunduko digu.
- Larrosa** Baina... oso arraroa dela esaten dute. Eta niri beldur pixka bat ematen dit.
- Haizea** Ez al duzu zure lagunarengatik horrenbeste egingo?
- Larrosa** Bai, bai, noski. Kanikoon, Kanikoon! non zaude Kanikon?
(Ateratzen da, haserre)
- Kanikon** Nork deitzen dit? Arraioa!
- Larrosa** Ba, ba, ba, nik, Gorri Ederrek.
- Kanikon** Arraioa! Eta zer nahi duzu?
- Larrosa** Ba... begira, jakin nahi nuke zer egin Kamuñas Kondeak Susanita bakean uzteko eta hura berriz gurekin bueltatzeko.
- Kanikon** Arraioa! Hori besterik ez duzu nahi? Bai, badakit zer gertatu zaion Susanitari. Arraioa! Kamuñas Konde horrek zigor bat behar du. Arraioa! Patata purea baino okerragoa da, dena dela badakit zer egin daitekeen. Arraioa! Zatozte, kontatuko dizuet. Arraioa! *(Hurbiltzen dira eta belarrira hitz egiten die)* Bis, bis, bla-bla-bla. Arraioa!

Erlastarra Noski! Zer erraza! eskerrik asko, Kanikon aztia.

Larrosa Bai, eskerrik asko, arraioa!

Kanikon Ez dago zergatik, arraioa! Zorte on!

3. agerraldia

(Joaten dira. Agertoki berean Susanita ateratzen da, petalorik gabe, burbuilak ateratzen) (Gero larrosa, ispilu batekin, eta erlastarra ateratzen dira)

Bitxilorea Non ote nago? Jik! Azkeneko masajeak eta hartu ditudan azkeneko pilulek lur jota utzi naute. Jik! Baina eder nagoez, aurrera. Jik! Nor dabil hor? Jik! Irten dadila, jik!

Larrosa Kaixo, Susanita. Ni naiz, Gorri. Nitaz gogoratzen zara? Laguntzera etorri naiz, eta Pakorro erlastarra ere bai.

Bitxilorea Laguntzera? Jik! Zuek ez zarete nire lagunak, ez zaituztet behar ezertarako. Jik!

Erlastarra Ba, nik, baietz esango nuke. Zainzuri lehor bat dirudizu bitxilore bat baino.

Bitxilorea Zer esan nahi duzu, eulitxo horrek?

Larrosa Pakorrok esan nahi du... ez zarela zu.

Bitxilorea Ez, noski! Orain ederragoa naiz.

Larrosa Eder...? Gustatzen zaizue zuei, lagunoi? (**EZZZZ**) Ez zara ederra, Susanita, Isabel Pantoja baino itsusiagoa zara, zure mozkorti itxurak ikara ematen du eta Bilboko ibaiak baino usain okerragoa duzu. Ispilurik ez duzu erabiltzen ala?

- Bitxilorea** Egia esan, Kamuñas Kondeak ez dit ispilua erabiltzen uzten. Esaten du nire edertasunak ispiluak apurtuko lituzkeela.
- Erlastarra** Jakina! Ispiluak apurtuko zenituzke, baina itsusia izateagatik, ja, ja, ja...
- Larrosa** Ez barrerik egin, Pakorro, begira hemen dut ispilu bat, tira, begiratu!
- (Ispiluari begiratu eta ikaratu egiten da) (Ispilua apurtzen da)*
- Bitxilorea** Aaaggg! hori naiz ni!!! *(Negarrez hasten da)* Gorri, arrazoi duzue. Oso txarto nago. Egin dudan guztiaz nekatuta nago eta buruko mina dut. Kamuñas horrek engainatu egin nau; eta nire bizitza alferrik galtzera bota du. Eta txarrena ez da hori, gainera, lagunak galdu ditut, nire harrokeriarengatik.
- Larrosa** Hori ez da egia, ni oraindik zure laguna naiz, eta lehen bezalakoa izaten lagunduko dizut.
- Bitxilorea** Benetan? Eskerrik asko, Gorri. *(Elkar besarkatzen dute)* Aizu, eta nola lortuko dut? Kamuñas hori oso azkarra da, eta ez dit utziko.
- Larrosa** Ezetz? Dena pentsatuta dugu, ezta, Pakorro?
- Erlastarra** Bai, je, je, je!
- (Apurka-apurka, Kamuñas agertzen da, leku guztietara begira, eta oihuka eta oihuka)*
- Kamuñas** *Susanita, Susanita, Susanitaaaaa!* (Ikusten duenean) A, hemen zaude! Nork eman dizu baimena lorategitik irteteko, e? Orain beste masaje saio bat dugu... E, zer gertatzen ari da hemen? Zu, berriro, larrosa ergela? Zer nahi duzu?
- Bitxilorea** Gorri Eder ni berarekin eramatera etorri da.

- Kamuñas** Berarekin? Ez da posible!! Zu ez zara nigandik aldentuko. Orain edertzeko beste saio bat dugu eta zu, larrosa, antzarrak ferratzera! Eta eulitzar hori nire euli-hilgailu bereziaz hilko dut.
- Erlastarra** Aizu! Kontuz, ez naiz eulitzar bat.
- Larrosa** Ez naiz joango Susanita barik. Pakorro! Aurrera!
(Erlastarra Kamuñasengana doa) (Margaritak makila hartzen du)
- Erlastarra** Tori, tori! Hau eulitzarra deitzeagatik, eta beste hau Susanita eramateagatik.
- Kamuñas** Ui, ui, ui, aaaaai, eulitzar madarikatua! A zer nolako ziztadak eman dizkidazun! Aaaaai, ui, ui! Zelako mina, aurpegi guztia hondatuta utzi dit.
- Larrosa** Merezi duzu! Lotsabakoa izateagatik, eta, jakin ezazu, betiko izango duzu Pakorroren ziztadaren eragina.
- Kamuñas** *(Hitz eginez)* Ai, ez, ez, ez, mesedez, zelako azkura! Mesedez, lagundu azkura hau kentzen.
- Larrosa** Guk azkura kendu ahal dizugu gure “leungarri bereziaz”; *(makila erakusten du)* baina Susanitari joaten uzten badiozu... Bestela..., badakizu, etengabe hatz egiten egongo zara!
- Kamuñas** Ez, ez, ez! Ui, ui, ui! Mesedez, eraman ezazu Susanita; baina ken iezadazu azkura hau.
- Larrosa** Tori, ken iezaiozu zeuk, Susanita.
- Bitxilorea** Gustura, gainera. *(Kamuñasi)* Petaloentzat masajea, ezta? Tori, *(Kamuñas, oihuka)* tori, edertasuna eta masajea, eta tori, Miss Petunia, tori!

- Kamuñas** Aaai, ai, ui, ui, orain mina ematen dit!
- Larrosa** Noski! hori da leungarri berezia gutxi erabili duzulako. Mila toke eman behar dituzu egunero eta 10 edo 20 urtean sendatuta egongo zara. (*Makila ematen dio*)
- Kamuñas** Ah! Eskerrik asko, lagunok, ai, ai, ai!

(*Makila hartzen du eta bere burua jotzen badoa*) (*Barre egiten dute*) (*Haizea ateratzen da*)
- Erlastarra** Zelan sinetsi duen, Kamuñas horrek! Sinetsi egin du ziztadarena, eta orain, bere buruari kolpeak emango dizkio, meloi baten itxura eduki arte.
- Larrosa** Dena ondo atera da. Beno, Susanita, orain lelokeria horiek guztiak ahaztu behar dituzu; baita produktu kimiko horiek guztiak ere.
- Bitxilorea** Bai, noski, hemendik aurrera ur freskoarekin ureztatuko naiz. Ikasi dut! Eta dena zuei esker. Pakorro, Gorri; eta, zuei esker, neska mutilok.
- Larrosa** Beno, ba, itsusi hori! Joan egin behar dugu.
- Bitxilorea** Itsusia, ni? Zu bai zarela astalikardoa baino itsusiagoa. (*Barre egiten dute*)
- Haizea** Agur, neska-mutilok, agur, gero arteeeeeeeee!!!

URREZKO BALOIA

Jon Aizpurua

Komedia

Joxemiel Barandiaran herri ikastetxea

Ataun

2001

GAIA

Futbol partida batean urrezko baloia jokoan dago. Baina baloi hori ote da, ba, munduan gehien balio duena?

1. EKITALDIA

MUSIKA (Telebistako Champions League-UEFA Futbol Lehiaketaren musika...)

AGERTOKIAREN ERTZEAN: Parte hartu behar duten 9 jokalaria edo antzezleak agertzen dira, denak bainurako bata jantzita. Tartean dago

TXAPAS, aurkezle-kontalari lana egin behar duena: komeni da futboleko baloi berri-berria eskuan duela agertzea...)

1. agerraldia

Denak batera *(Musika jaitsi eta denek batera isiltzeko eskatzen diote jendeari)*

Psss, psss, psss, psss, psss...

Txapas *(Baloi berri-berria eskuan...)*... Isilik, isilik, mesedez, mundu guztia. Antzerkia hastera goaz, kaixo, denoi, ongi etorri... Badakizue zein garen, ezta? Joxe Migel Barandiaran Eskolako 3. mailakoak, 9 neska-mutiko. Egia esan, denok ez gara neska-mutiko edo mutiko-neska, 7gara mutil eta 2 dira neska. Je!!! Neskek ez daukate zer eginik gure kontra!!! Batez ere futboleko jokatzeko dugunean... beno, neskek jolas-tu egiten dute baina guk jokatu-jokatu egiten dugu. Hori bai,

gure maisuak, GOIKO esaten dio jendeak, baina hiru izen ditu: Jexux, Maria eta Joxe, beti nesken alde egoten da. Ez dakit zergatik den, baina beti nesken alde dago... Baina, hala ere, guk irabazten dugu beti...

(Megafoniaz, maisuaren ahotsa, serio eta haserre) Hi, txapas, ez diat, ba, esan aurkezpena labur egiteko? Esan beharrekoa esan ezak eta hasi antzerkia... Azkar...!!!

Txapas Beno, entzun duzue... Maisu zorrotza daukagu, amak gaur goizean atzamarrean sartu didan jostorratza baino zorrotzagoa...

Maisua *(Megafoniaz, maisuaren ahotsa)* txapas, zer esan nian? Antzerkia hasi baino lehen, gauza bat utzi behar duzue garbi: handitan zer izan nahi duzuen. Zer izan nahi duzue handitan?

Denak batera Futbolista!!! Futbolista!!!

Maisua *(Berriro megafoniaz)* Futbolista? Baina zergatik futbolista, e? Zergatik izan nahi duzue futbolista?

Denak batera Diru asko irabazteko! Aberatsak izateko! Eta urrezko baloia irabazteko!

Txapas Urrezko baloia?

Denak batera Bai, urrezko baloia!!!

Txapas Tira, kontu fresko hauek utzi eta hasi egin beharko dugu antzerkia...

Denak batera Zuekin eta zuentzat, urrezko baloia!!!

DENAK EZKUTATU ETA MUSIKA GORA (Lehengo musika bera: Champions League)

AGERTOKI OSOKO ARGIAK PIZTU (Lehengo musika kendu eta arpa-musika jarri, ekialdekoa...)

AGERTOKIA. Baloï berri-berri bat ageri da, txuri beltza, agertokiaren erdian, airean. Hari batez lotuta dago sabaitik. Agertokiaren atzealdean futbitoko ate-porteria bat. Mutiko bat agertzen da albo batetik: geldi-geldi dator, hanka-hutsik, arropa puskatu eta zikinak. Ile-tximak banatuta, aurpegia ere zikin, Mew haur txiro pobre bat da... txakur txiki bat dakar uhaletik hartuta... (txakurraren izena zeuok erabaki.) Baloiarengana hurbiltzen da harrituta... Baloia ukitzen du bi eskuez. Baloia alde batera eta bestera mugitzen da. Mutikoa erabat harrituta dago... Ez daki baloia zer den... Buruari hazka egiten dio...

MUSIKA: Derrepentean, “txuri-urdin, txuri-urdin maitea...” Errealaren ereserkia...

Mew, erabat ikaratuta eta harrituta. Kolpetik Errealaren jantziak dituzten 3 haur agertzen dira korrika eta buila batean eskuinetik. Baloia dagoen lekura hurbiltzen dira. Mew ikaratuta dago, zer egin ez dakiela, eta ezkerreko ertzean babesten da.

MUSIKA, bat-batean: “Athletic... Athletic...” ereserkia entzuten da.

ATHLETICeko jantziz, beste hiru haur agertzen dira ezkerretik eta hauek ere korrika eta builaka, baloiaren ingurura hurreratzen dira.

MUSIKA: Athleticen ereserkia kendu eta, berehala, **EPAILE-ARBITROAREN TXISTUA, TXILIBITU-HOTSA, entzun dadila.**

EPAILE-ARBITROA agertzen da txilibitua joz eskuinetik, erabat beltzez jantzita. Baloia ondoan jartzen da. Bere ondoan, alde batera Errealeko hirurak eta beste aldera Athleticceko hirurak; Mew ertz batean, bere txakurtxoarekin.

Arbitroa

Zu, Aranzabal, zein da mutiko hori?

- Aranzabal** Ez dakigu. Gu etorri garenean hemen zegoen.
- Arbitroa** Zuek ez duzue inoiz ezer jakiten. Diru asko nola egin, nola irabazi, horretan badakizue, baina hortik aurrera.
- Joseba Etxeberria** Aizu, zein den jakin nahi baduzu, berari galdetu.
- Arbitroa** Hori neronek ikusiko dut. Eta, zu, Joseba Etxeberria, isilik. Hemen, gauzak ikusi eta erabakitzen dituen a ni naiz. Horregatik naiz epaile. Eta zuek denok jakin behar duzue, futboleko, behar bezala jantzita egon behar dela. Beraz, mutiko hori futboleko jokatu gabe geldituko da. (-*txilibitua jotzen du fuerte...*) Talde-buruak, mesedez, kapitainak.
- Arbitroa** Idiakez eta Urzaiz hurbildu arbitroarengana.
- Zuek al zarete kapitainak?
- Idiakez Urzaiz** Bai, bai! Gu gara...!!!
- Idiakez** *Ni Idiakez naiz...*
- Urzaiz** Eta ni, Urzaiz.
- Arbitroa** Eta zuek ba al dakizue ni nor naizen?
- Idiakez Urzaiz** Bai, bai.
Zu epailea zara.
- Arbitroa** Baina zer izen dut? Zein da nire izena?
- Idiakez** Izena? Zure izena?
- Arbitroa** Bai, nik ere badut izena.

- Urzaiz** Oraintxe esango dizut. Guerrero! Zer izen du arbitroak?
- Guerrero** *(Harrituta)* Arbitroak? Ez dakit. Beharbada De Pedrok jakingo du... Javi, ba al dakik, arbitroak zer izen duen?
- De Pedro** Hi, Julen, mesedez. Aurreragoko lanik ez zeukaagu, ba! Zeini inporta zioz arbitroak zer izen duen? Futbolearen egin behar diagu.
- Urzaiz** *(Arbitroari)* Arbitro jauna, berdin dio. Inork ez daki zure izena. De Pedrok dio, zuk zer izen duzun jakiteak ez diola inportarik.
- Arbitroa** *(Haserre oso)* A, ez, e! *(txilibitua jotzen du fuerte)*
Piiiiiiiiiii!!!
- (ERREALEKO eta ATHLETICeko guztiek belarriak itxi)*
(Arbitroak baloia hartu)
- Arbitroa** *Penalty, penalya zuen kontra!!!*
- Aranzabal** Baina partidua ez da hasi eta...
- Arbitroa** Erabakiak nik hartzen ditut. Penalya zuen kontra!!!
- Joseba**
Etxeberria Baina, zeinen aurka? Errealaren aurka izango da, ezta?
- Arbitroa** Bion aurka: Errealaren aurka eta Athleticen aurka... Lotsagabeak, lotsagabeak zarete, arbitroaren izena ez jakitea...
- Guerrero** Baina bi taldeen kontra baldin bada, zeinek bota behar du penalya?
- De Pedro** Entrenatzaileak esan dit penalyak nik botatzeko...
(Arbitroak txilibitua berriro fuerte: Piiiiiiiiii!!!!!!)

- Arbitroa** Zuk penalya bota? Nor zara zu?
- De Pedro** Ez dakizu ni nor naizen??? De Pedro... Entzun ondo: De Pedro!!! Eta nik botatzen ditut penalyak.
- Arbitroa** Hori nik erabakiko dut!!! Nik agintzen dut hemen... Orain ikusiko duzu!!! (*Poltsikotik txartel horiak eta gorriak atera eta gorri handi-handi bat erakusten dio De Pedrori eta baita beste jokalaria guztiei ere*) Ba, denok kanpora!!! Alde, alde hemendik!!! Ez duzue futbolean egingo eta gainera bi talde-ek galdu duzue partida... Alde, alde hemendik!!!
- Denak** (*Haserre*) Ez dago eskubiderik, honek ez du balio (*eta antzeko esaldiak aipatuz alde egiten dute*)

(*Arbitroa eta mutiko txiroa gelditzen dira bakar-bakarrik*)
- Arbitroa** Mutiko, nor zara zu?
- Mew** Mew naiz ni. Pokemonen Taldekoa!
- Arbitroa** Eeeeeee??? Zein zarela???
- Mew** Mew!!! Mew!!! Nahi dudan guztia egin dezaket. Ahalmen ikaragarria dut. Nahi badut arbitro naiz, nahi badut baloi, nahi badut pobre eta nahi badut aberats! Tope aberats!!!
- Arbitroa** Nik ere izan nahi dut aberats! Zer egin behar dut? Nik ere badaukat txakur txiki bat etxean.
- Mew** Ez txakur txikirik eta ez txakur handirik. Zuk ez duzu ez pezetarik eta ez eurorik izango. Aberats izan behar da, baina dirurik gabe.
- Arbitroa** Eeeeeee??? Dirurik gabe aberats??? Zu ez zaude burutik ondo... Ni banoa hemendik!!! Hau ez da parte onekoa!!! (-*txilibitua joz alde egiten du*) Piiiiiiii!!!!!!!!!!!!

Arbitroak alde egin eskuinetik eta Mew gelditzen da bakar bakarrik.

MUSIKA: arpa musika gozo-gozoa, Mew agertokiaren kantoirra hurbildu eta txakurra laztanduz kontu-kontari hasten da.

Mew Nire historia, nire bizitza, kontatuko nizueke, baina ikusi duzue, inork ez dit kasurik egin. Arbitroak bakarrik esan dit zerbait, beste erremediorik ez zuenean. Ba, garai batean...

(Txapas agertzen da eskuinetik beste txakur txiki batekin, txakurraren izena zuen esku, eta Mew dagoen lekura hurbildu eta bere ondoan esertzen da, txakur txikia ondoan duela)

(MEGAFONIAZ MAISUAREN AHOTSA: txapas! Azkarrago motel!!! Konta ezak, konta ezak MIU horren historia, hori Muskiko Basajaunaren historia baino hobeto dakik et.. Konta ezak, konta ezak...)

Txapas Ba, garai batean, Mew izeneko mutiko honek futbolearen jokatzeko zuen... Baloia ostikoz jotzen zuenean urte bihurtzen zen baloia... Oso ezaguna zen eta oso aberatsa.

Mew Bai, egia da... Baina nire diruagatik nintzen ezaguna. Diru asko neukalako, lagun asko neuzkan... Jantzi dotore-dotoreak nituelako, mundu guztiak ezagutzen ninduen... Nik uste nuen diruarekin dena eros zitekeela.

Txapas Baina egun batean...

Mew Konturatu nintzen ez nuela benetako lagunik. Dirua tope nuela baina ez neukala egiazko-egiazko lagunik... Lagunak, benetakoak, ez baitira diruarekin erosten.

Txapas Eta orduan erabaki zenuen, dena utzi eta benetako lagun hila hastea.

- Mew** Bai. Eta Atauna iritsi naiz. Ea norbait nire lagun egiten den...
Baina itxura honekin...
- Txapas** Itxurak mugitzen du mundua, Mew.
- Mew** Egia da. Egia handia. txakur txiki hau da nire lagunik handiena.
- Txapas** Eta hau nirea.
- (Besoa jartzen diote elkarri bizkar gainetik, lepoa inguratzuz...)*
- (UEFAko CHAMPIONS LEAGUEREN MUSIKA berriro)*
- Eskuinetik, ERREALeko ETA ATHLETICeko jokalaririk guztiak agertzen dira, arbitroa aurretik dutela.*
- Arbitroa** Hor dago, hor dago..., mutiko mutur-zikin hori da...!!!
- De Pedro** Zu al zara Mew, baloia ostikoz jota urrezko bihurtzen duena?
- Mew** Bai, ni naiz... Munduan gehien balio duen gauza dago urrezko baloiaren barruan!
- Guerrero** Adarririk ez jo guri!!! Guk ere badakigu baloia ostikoz jotzen...
- Mew** Baloia ez da jo behar. Inor ez da jo behar. Laztandu egin behar da.
- Aranzabal** Utzi txorakeriak!!!
- Joseba Etxeberria** Baloiarik gogor emateko esaten digu GOIKO maisuak!!!
- Idiakez** Nik behin zulatu egin nuen, baina amaren jaietako zapatekin jo nuelako... Punta zorrotzarekin jo nuen eta kristoren zuloa egin nion.

- Urzaiz** Baina ez zenuen golik sartu... Nik bai, sartu nuen ederra!!
Buruarekin jo eta barrura!!!
- Mew** Gauza bat egingo dugu. Urrezko Baloia lortu nahi duzue, ezta? Ba, niri, zuen herrian, norbaitek penaltyan gol sartzen badit, hementxe izango duzue Urrezko Baloia; eta, barruan, munduan gehien balio duen gauza aurkituko duzue...
- Denak batera** Bale, bale!!!
- Txapas** Ea, jarri atean, Mew... Hauek oso onak dira eta berehalaxe sartuko dizute gola...
- Arbitroa** Piiiiiiiiiii!!! Jarri denok txandan... Nik esanda bezala, e!
Lehenbizi Joseba Etxeberria...
- (Gainerako guztiak adorea ematen penaltya botatzera doanari: Joseba Etxeberria, Joseba Etxeberria...) txapasek jaso baloia eta besteei eman...)*
- Arbitroa** Piiiiiii!!!
- (Hortik aurrera denek txandatur penaltyak bota, ordena honetan: Joseba Etxeberria, Aranzabal, Urzaiz, Idiakez, Guerrero eta De Pedro... Ez dute bakar bat ere sartzen... Batzuk kanpora eta beste batzuk Mewk gelditu)*
- Mew** Ez didazue golik sartu. Ez duzue Urrezko Baloia merezi, baina azken aukera emango dizuet. Zuen herriko futbolari onenak gola sartzen badit Urrezko Baloia zuentzat!
- Txapas** Bale, bale. Ezin diozue golik sartu. Badakit nori esan. *(Belarrira esaten dio zerbait De Pedrori...)* Esaiok azkar etortzeko...
- (Bitartean Mew besteei penaltyak jaurtiz, denak barrura)*

(Musika, futbol-zelaiko adorezko oihuak eta kanta-giroa agertuko duena)

(Egoitz Sukia agertzen da. Ahal balitz futbolari jantzi dotorez, agian, Bartzelonako jantziz edo)

- txapas** Mew!!! Hau da gure herriko, Ataungo, futbolaririk onena!
- Mew** Itxura ona dauka! Baina itxurari bakarrik ez zaio begiratu behar!
- De Pedro** Hi, Mew!!! Eta honek penalya sartzen badik, gureztat izango al da Urrezko Baloia?
- Mew** Bai, zuentzat!!! Eta lehen ere esan dizuet, baloiaren barruan munduko gauzarik onena aurkituko duzue.
- Arbitroa** Ba, zeren zain gaude? Egoitz, hartu baloia eta bota penalya.
(Egoitzek baloia hartu eta penalya puntuan jartzen du, poliki-poliki... Mew atearen azpian jartzen da, beste jokalariaik oihuka hasten dira Egoitzi animoak ematen...)
- Denak batera** Egoitz, Egoitz, Egoitz, Egoitz, Egoitz!
- Arbitroa** Dena prest? Nik txilibitua jotakoan, bota penalya!
- Denak batera** Egoitz, Egoitz, Egoitz; Egoitz...!
- Arbitroa** Piiiiiiiiiiiiiiiiiii
(Egoitzek GOOOOOOLLLLLL sartzen du)
MEGAFONIAZ Goooooooooollllllllll!!!! entzuten da. Gainerako jokalari guztiek ere gol oihukatzen dute eta Egoitz inguratu eta besarkatzen dute... Mew lurrean gelditu da, ez-tzanda.

Guerrero Eta..., Mew..., Urrezko Baloia...??? Non dago Urrezko Baloia???

Mew Orain ekarriko du nire txakur txikiak.

Denak harrituta, begira. Mew irten egiten da txakur txikiarekin eta berehala agertzen da bera baino handiagoa den urrezko baloiarekin. Hari batetik tiraka dakar baloia txakur txikiak... (Ahal bada egin, nekatu burua)

MEGAFONIAZ MUSIKA: Champions League...

Mew Hauxe da Urrezko Baloia!!! Itxura ederrekoa, e??? Ba, barruan daukana da gauzarik ederrena!!!

Baloia irekitzen du eta, paper-tira bat ateratzen du barrutik. Denen artean irekitzen dute papera, agertokiaren ertzean, ikusleei erakutsiz, paperak “maitasuna” jartzen du.

Denak pozik, irribarrea ezpainetan, denak kantuan (Kaxianoren ZORIONAK kantuarien doinuan...)

“Maitasuna, maitasuna maite
dugu,
maitasuna,
hori da gauza onena, urrezkoa,
maitasuna, guk benetan
nahi duguna.”

(Hau behin baino gehiagotan errepikatu. Letra aldatu nahi bada, aldatu)

Bukatu da, bukatu da, bukatu da, se akabó...

**ESKOLA ANTZERKIA 1-9:
ANTZEZLAN GUZTIEN
ZERRENDA**

Antzezlanak	Liburua	Orrialdea
110. street-eko geltokia	Eskola Antzerkia 8	15
Afaria prestatzen	Eskola Antzerkia 4	15
Aintzinakeriak	Eskola Antzerkia 4	23
Alberto eta bere lagunak	Eskola Antzerkia 8	53
Altxor arkeologikoa	Eskola Antzerkia 4	41
Amama Benidorrera	Eskola Antzerkia 2	17
Amona honekin... kontuz	Eskola Antzerkia 8	73
Amonaren urtebetetzea	Eskola Antzerkia 2	35
Antonino Apreta	Eskola Antzerkia 4	49
Aramaioaren deabrukeriak	Eskola Antzerkia 4	61
Arin-arin erbia	Eskola Antzerkia 4	69
Arraintxoia	Eskola Antzerkia 4	75
Asteburu aztoratua	Eskola Antzerkia 7	19
Atrakoa	Eskola Antzerkia 2	49
Axeria eta otsoa lagun ederrak	Eskola Antzerkia 2	61
Azken luzea	Eskola Antzerkia 4	87
Aztia	Eskola Antzerkia 8	89
Barre egiten ez duen erregea	Eskola Antzerkia 8	101
Bazasor banda	Eskola Antzerkia 4	137
Bederatzi ez da bederatzi	Eskola Antzerkia 4	149
Begi-bakarren beste begia	Eskola Antzerkia 8	125
Bermeoko portuan	Eskola Antzerkia 8	143
Berta, Berta, agertu zaitez	Eskola Antzerkia 8	151
Bi jango ditut	Eskola Antzerkia 1	23
Bi-bit martzianoa	Eskola Antzerkia 6	25
Bost anai-arrebak	Eskola Antzerkia 6	33
Dena izango da izan behar duen bezala	Eskola Antzerkia 7	45
Diruak sendatu du	Eskola Antzerkia 7	65
Egia bazan, sar dadila kalabazan	Eskola Antzerkia 2	89
Enperadorearen jantzi berria	Eskola Antzerkia 4	171
Erniora txango	Eskola Antzerkia 8	181
Errekaloreak	Eskola Antzerkia 6	43
Esaten omen dute	Eskola Antzerkia 8	165
Eskale musikariak	Eskola Antzerkia 1	35
Eskolatik goizegi	Eskola Antzerkia 8	199
Esne-saltzaileak	Eskola Antzerkia 7	79
Estatua mugikorrak	Eskola Antzerkia 1	47
Eta horrela bizitzen gera	Eskola Antzerkia 8	231

Antzezlanak	Liburua	Orrialdea
Eta, bazkalondoan	Eskola Antzerkia 8	219
Etxe hau bai dela guai!!!	Eskola Antzerkia 2	111
Gaixo	Eskola Antzerkia 8	253
Gaztarik onenak...Arantzazukoak	Eskola Antzerkia 4	185
Gaztetxean edo gazta etxean	Eskola Antzerkia 8	271
Geurea, zaharretxea	Eskola Antzerkia 6	55
Gizon bizarpeituti eta emazte bizastsuti	Eskola Antzerkia 1	61
Guk love piratak	Eskola Antzerkia 9	15
Gure koadrilan...	Eskola Antzerkia 9	31
Haragi egosia saltsan	Eskola Antzerkia 4	203
Herensugearen burua	Eskola Antzerkia 4	215
Hilton hoteleko misterioa	Eskola Antzerkia 9	49
Ikasturte bateko mobidak	Eskola Antzerkia 9	61
Iker Miker	Eskola Antzerkia 1	97
Ilun	Eskola Antzerkia 6	79
Intsumisioa	Eskola Antzerkia 6	173
Ipotxaren etxea	Eskola Antzerkia 2	139
Ipotx-kalea	Eskola Antzerkia 2	129
Itsasminex	Eskola Antzerkia 2	151
Itsasoan galduak	Eskola Antzerkia 4	223
Itsuak	Eskola Antzerkia 4	249
Iurretoneko madarikazioa	Eskola Antzerkia 2	163
Izen gabekoa	Eskola Antzerkia 7	87
Jontxuren egoera larria	Eskola Antzerkia 2	189
Joxemari Iparragirre	Eskola Antzerkia 1	109
Kaixo, zer moduz? Lapurketa arraroa	Eskola Antzerkia 7	117
Kalamitate baten komeriak	Eskola Antzerkia 6	91
Kale gorrian	Eskola Antzerkia 9	109
Kastillopranko	Eskola Antzerkia 9	129
Korsario komeriantek	Eskola Antzerkia 6	115
Lagun zauritua	Eskola Antzerkia 7	129
Lapurrak ez du ordu jakinik	Eskola Antzerkia 9	145
Lapurtxo	Eskola Antzerkia 1	141
Lau anai eta baserria	Eskola Antzerkia 9	159
Lau ipotxen bizimodu ibiltaria		
askatasunaren bila	Eskola Antzerkia 1	165
Lehenengo oporrak	Eskola Antzerkia 1	181
Lekurik bai...?	Eskola Antzerkia 5	15

Antzezlanak	Liburua	Orrialdea
Liburu majikoa	Eskola Antzerkia 6	143
Lortuko ete dogu?	Eskola Antzerkia 4	261
Magia dela medio	Eskola Antzerkia 4	275
Maite, herri txiki batetako neskatoa	Eskola Antzerkia 4	289
Mak, ikertzaile ausarta	Eskola Antzerkia 3	17
Mambruren zain	Eskola Antzerkia 9	175
Maritxu nora zoaz?	Eskola Antzerkia 5	65
Martzianoen bisita	Eskola Antzerkia 3	35
Mexikotik Euskal Herrira	Eskola Antzerkia 6	159
Mireni laguntzen	Eskola Antzerkia 7	145
Morroi alferra?...	Eskola Antzerkia 9	187
Mosketeroen misio barregarria	Eskola Antzerkia 1	201
Mugako jostailuak	Eskola Antzerkia 3	49
Musu baten bila	Eskola Antzerkia 5	87
Naporen istorio historikoak	Eskola Antzerkia 3	73
Non ote da Sol?	Eskola Antzerkia 3	103
Nonbait, ez oso urrutian	Eskola Antzerkia 7	159
Nontzeberri enparantza	Eskola Antzerkia 5	117
Norentzat ari dira iruten hiru atsoak?	Eskola Antzerkia 3	113
Nueva Zaragozako herritarrak	Eskola Antzerkia 5	127
Orreaga	Eskola Antzerkia 1	215
Osaba Inaxioren azken agiria	Eskola Antzerkia 1	227
Ostadarra ukitu zuen neskatxa	Eskola Antzerkia 1	245
Otsoak uau, uau, uau, uau...	Eskola Antzerkia 9	201
Otsoko	Eskola Antzerkia 9	213
Paisa	Eskola Antzerkia 1	273
Pic-nic	Eskola Antzerkia 3	125
Poti	Eskola Antzerkia 3	151
Printze zoriontsua	Eskola Antzerkia 3	173
Ramonen robota	Eskola Antzerkia 9	227
Ramontxu herensugea	Eskola Antzerkia 7	179
Rutinaren itzala	Eskola Antzerkia 5	159
Sei anaiak	Eskola Antzerkia 7	187
Sor-gin hauek!	Eskola Antzerkia 5	177
Sorgina baserrian	Eskola Antzerkia 7	199
Susanita eta burbuilak	Eskola Antzerkia 9	241
Tangala danba	Eskola Antzerkia 5	187
txibistoren erbia	Eskola Antzerkia 3	195

Antzezlanak	Liburua	Orrialdea
tximatoli helia	Eskola Antzerkia 3	215
txin, txin, txin, txin, diruaren hotsa	Eskola Antzerkia 7	207
Ur tanta baten historia	Eskola Antzerkia 6	185
Urrestillako musiketeroak	Eskola Antzerkia 7	225
Urrezko baloia	Eskola Antzerkia 9	259
Urrezko larrosondoa	Eskola Antzerkia 7	231
Urruletako bainuetxea	Eskola Antzerkia 5	207
Zentimetroak 93	Eskola Antzerkia 5	251
Zer eman, hura hartu	Eskola Antzerkia 6	197
Zeroen sorotan	Eskola Antzerkia 3	237
Zubi gizakiak	Eskola Antzerkia 6	215
Zurineren anaia	Eskola Antzerkia 3	251

